

TXOSTENA

18

EMAKUMEEK

GAUZATURIKO

PROSTITUZIOA

EAE-N



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN ELISKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EMAKUMEEK
GAUZATURIKO
PROSTITUZIOA
EAE-N

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2002

IZENBURUA:	"Emakumeek gauzaturiko prostituzioa EAEn"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea, Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
MAKETATZEAILEA ETA KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Urria, 2002
DESKRIPTOREAK:	Prostituzioa, prostitutak, alde soziologikoak, elkarriketak, alde metodologikoak
ALE-ZENBAKIA:	1.000
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
INPRIMAKETA:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-87595-82-0
LEGE GORDAILUA:	VI-399/02

Salneurria: 12 euro

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
IKERKETAREN PLANTEAMENDUA	13
1. EAE-KO PROSTITUZIOAREN MAPA SEKTORIALA	17
1.1. "Mapa Sektoriala" zatiaren metodologia	19
1.1.1. Informazio iturriak	19
1.1.2. Erabilera eta metodologia	19
1.2. Prostituzio fenomenoaren aurkezpena	21
1.2.1. Fenomenoa testuinguruan jartzea	21
1.2.2. Gizarte jarrerak prostituzioarekiko	23
1.2.3. Prostituzioa: Hazten ari den sektorea	25
1.3. Prostituzioaren lege esparrua	26
1.3.1. Prostituzioaren lege esparrua Espainiar Estatuan	26
1.3.2. Udal-ordenantza. Bilboko kasua	30
1.3.3. Herbehereetako kasua	31
1.4. EAEko prostituzioaren tipologia eta bilakaera.	32
1.4.1. Tipologia	32
1.4.2. Bilakaera	36
1.5. Zenbaketa	37
1.5.1. EAEko ikuspegi orokorra	37
1.5.2. Arabako Lurralde Hiskorikoa	45
1.5.3. Bizkaiko Lurralde Hiskorikoa	47
1.5.4. Gipuzkoako Lurralde Hiskorikoa	49
BIBLIOGRAFIA	52
BIDEOTEKA	53
EGUNKARIETAKO ARTIKULUAK INTERNETEN	53
INTERNETEKO ARTIKULUAK	54
EGUNKARIETAKO ARTIKULUAK	54
WEB ORRIAK	54
2. PROSTITUZIOAN JARDUTEN DUTEN EMAKUMEEN BIZIPEN MUNDUA	55
2.1. "Bizipen zatiaren" metodologia	57
2.1.1. Erabilitako teknika	57
2.1.2. Landa lanaren emaitzak	57
2.1.3. Jasotako informazioaren aurkezpena	59

2.2.	Elkarriketatutako emakumeen profila	60
2.2.1.	Jatorrizko herrialdea	60
2.2.2.	Adina	61
2.2.3.	Egoera zibila	61
2.2.4.	Bukatutako ikasketen maila	62
2.3.	Hasiera prostituzioan	63
2.3.1.	Emakume atzerritarrak	63
2.3.2.	Estatuko emakumeak	68
2.4.	Jardueraren deskribapena	70
2.4.1.	Jardute eta dedikazio maila	70
2.4.2.	Hileroko diru-sarrerak	74
2.4.3.	Beste zenbait lan jarduera	76
2.5.	Beren burua eta sektorea ulertzeko modua	77
2.5.1.	Beren burua eta gizarte irudia ulertzeko modua	77
2.5.2.	Sektorearen bilakaerari buruzko iritzia	81
2.5.3.	Elkarren arteko harremanak eta asoziazionismoarekiko jarrera	84
2.5.4.	Prostituzioa uzteari buruzko iritzia	85
2.6.	Bezeroa	87
2.6.1.	Harremanetan jartzeko era	87
2.6.2.	Beren bezeroak nola ikusten dituzten	88
2.6.3.	Eskatutako sexu zerbitzuak	90
2.6.4.	Bezeroen motibazioak	91
2.6.5.	Bezeroekiko harremanak	93
2.7.	Jarduera profesionaletik eratorritako arazoak	95
2.7.1.	Lan onarpen ezaren ondorioz sortutako arazoak	95
2.7.2.	Laneko higieena eta osasuna	96
2.7.3.	Arriskuak eta segurtasun pertsonala	96
2.7.4.	Drogamenpekotasunak eta ludopatiak	97
2.7.5.	Atzeritarren egoera	97
2.8.	Erabilgarri dauden zerbitzuei eta esku-hartze neurriei buruzko iritzia	99
2.8.1.	Erabilgarri dauden zerbitzuei buruzko iritzia	99
2.8.2.	Esku-hartze neurriei buruzko iritzia	101
	• Prostituzioaren legeztatzea	101
	• Erregularizazioa	102
3.	ESKU HARTZEKO BIDEAK	103
3.1.	"Fase Prospektiboko" metodologia	105
3.2.	Prostituzioan diharduten pertsonen laguntza ematen dieten erakundeak	106
3.2.1.	Eurentzako berariazko programak	106
3.2.2.	Baliabide "orokorrak"	109
	• Osasun maila	109
	• Lege aholkularitza	110
	• Beste zerbitzu batzuk	111
3.3.	Diagnosi orokorra	113
3.3.1.	Kolektiboaren bilakaera	113

3.3.2.	Esku-hartzea behar duten kolektiboak	115
3.4.	Prostituzioan diharduten emakumeen kolektiboaren oinarrizko beharrak	116
3.4.1.	Informazioa	116
3.4.2.	Osasuna	117
3.4.3.	Segurtasuna	117
3.4.4.	Etxebizitza	117
3.4.5.	Egoitza baimena araupetzea	117
3.4.6.	Lanbide batean hasteko alternatibak	118
3.5.	Esku-hartze estrategiak	118
3.5.1.	Berriazkotasuna / Integrazioa eztabaida	118
3.5.2.	Esku-hartze integrala / Areaz areakoa	119
3.6.	Esku-hartzearen planteamendua	120
3.6.1.	Esku-hartzeko beharra	120
3.6.2.	Esku-hartzeko bideak	121
	• Informazioa	121
	• Osasuna	123
	• Segutasuna	124
	• Soziala / Asistentziala	125
	• Lege aholkularitza	126
	• Prestakuntza eta enplegua	127
3.7.	Jarduera legeztatze / araupetzeari buruzko eztabaida	129
3.7.1.	Jarduera behartua	129
3.7.2.	Hautaketa aktiboa	130
3.7.3.	Prostituzioa jarduera ekonomiko gisa	131
3.8.	Epe ertain / luzerako esku-hartzea: Araupetzea	132
3.8.1.	Mesfidantza	133
3.8.2.	Araupetzearen abantailak	134
LABURPENA ETA ONDORIOAK		135




Prostituzioa gizarte guztietan izan da beti, gizartearen arazo konplexua da eta guztiz loturik dago kultura bakoitzeko gizarte-baloreei. Izan ere, prostituzioa gizartearen beraren taxuaren eta unean uneko inguruabarren arabera izan ohi da. Gizonezkoak zein emakumezkoak prostituitzen dira eta bezeroak sexu berekoak zein bestekoak izaten dira. Nolanahi ere, prostituzioaz oro har hitz egiten dugunean emakumeez aritu ohi gara, hots, emakume batek bere zerbitzuak eskaini eta gizon batek kontratatzeari buruz, eta horrek argi adierazten du emakumeak betidanik gizonen menpean izan direla eta orain ere badirela gizartean eta ekonomikoki eta gizonek emakumeak sexualki esplotatzeko joera dutela.

Historian zehar era askotako legeriak egon dira, batzuk besteak baino zorrotzagoak, baina ezeinek ere ezin ezabatu izan du prostituzioa; aitzitik, garai batzuetan, industrializazioan kasurako, gorakada izugarria izan zuen, hirietako biztanleriaren kopuruaren igoerak bultzaturik. Beste alde batetik, XX. mendearen azken aldian prostituzio era berriak azaldu ziren. Emakume batzuk euren etxeetan lan egiten hasi ziren, edo hartarako berariaz erositako lokaletan, ohiko bezeroak zituztela etab., eta apurka-apurka sexuaren inguruko jardun ekonomikoa garatu eta dibertsifikatu egin zen, sexua kontsumitzeko modu berriak azaldu ziren, prostituzio modu klasikoekin zerikusirik ez dutenak, eta gaur egun sexu-esperientziak erosteko eta ordaintzeko modu asko eta asko daude.

Gainera, herrialde askotan pobrezia handia dago, edo gatazka armatuak, eta jendeak erbestera jo ohi du, eta ondoriozko migrazio-mugimenduek are gehiago korapilotu dute egoera, arlo honetan lan egiten dutenak geroago eta bizimodu larriagoa baitute: pertsona-trafikorako sareak, legezkontrako egoerak, komunikatzeko eta zerbitzuak jasotzeko eragozpenak, etab...

Egoera konplexua, antzemangaitza eta oso aldakorra dela jakinik, eta gaizkien emakumeak daudela oharturik, zeren gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna egiturazkoa baita emigratzaileen jatorrizko herrialdeetan zein jasotzen dituzten herrialdeetan, Emakundek, emakumeen eskubideen alde egitea baitu helburu, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri eta hirietan prostituitzen diren emakumeen egoera aztertu nahi izan du ahalik modurik hurbilekoenean, alde batera utzita sarriegi gai honetan izaten diren ikuspegi moralista, patologiko eta antzerakoak. Gure asmoa emakume horientzako bitartekoak eta zerbitzuak sustatzea da, hobeto bizi daitezen eta oinarrizko eskubideak gainerako pertsona guztiek bezala izan ditzaten.

Eskerrak eman nahi dizkiet azterlan hau argitaratzen lagundu duten pertsona guztiei. Izan ere, honi esker hobeto ezagutuko dugu Euskadiko Autonomia Erkidegoan prostituzioan aritzen diren emakumeen bizimodua eta aukera gehiago izango ditugu beraien egoera hobetzeko.



TXARO ARTEAGA ANSA
EMAKUNDE/Emakumearen Euskal
Erakundeko Zuzendaria

I

**IKERKETAREN
PLANTEAMENDUA**

Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoan prostituzioan aritzen diren emakumeen kolektiboari buruzko ikerketa kualitatibo hau burutu du. Era horretan, bultzada bat ematen dio, alde batetik, Euskadiko emakumeen ekintza positiborako III. Planean berariaz jasotako xedeetako baten lorpenari: "prostituzioan aritzen diren emakumeen eskubideak onartu eta bermatu". Bestalde, Eusko Legebiltzarrean 2000-2-8an, gai horren inguruan planteatu zen Txostenak piztutako jakin-minari erantzun nahi zaio.

Prostituzioa bezain errealitate konplexu, ezkutu eta marjinala ezagutu, ulertu eta bertan sakontzea ahalbidetzen duen esparru mailako ikerketa bat da. Ikerketa mugatzearen, soilik emakumeek gauzaturiko prostituzioan zentratzea proposatu da. Beste prostituzio motak (gizonak, haur prostituzioa...) alde batera utzi dira; baita beraiei buruz gizarteak edo zerbitzu horien bezeroek izan ditzaketen iritzi eta balorazioak ere. Batik bat emakumeen kolektiboz arduratzen den ikerketa da. Beraien errealitatea eta eskaera edo behar posibleak bertatik bertara ezagutzea da asmoa. Eskaera edo behar horiei instituzioek aurre egin ahal edo beharko liekete.

Ikerketaren oinarritzko helburutzat jo diren betekizunak ondokoak dira:

- Lehen zatian, gaur egun dagoen materialaren bilduma eta laburpen lana burutzea: datu estatistikoak, ikerketak, hausnarketak, bibliografia, esperientzia pilotuak, etab. Horrela, kolektibo horri buruzko mapa ahalik eta fidagarriena lor daiteke. Berebiziko garrantzia du, prostituzioan aritzen diren emakumeen hainbat tipologiatan oinarrituz, segmentazio eta zenbatzea egiteak.
- Bigarren zatian, mapa hori osatu nahi da, izaera kualitatibo bat emanez; hau da, tipologia horietako bakoitzeko bizipen eta beharretara hurbiltzea. Horrela, emakume horien "bizi" eta "lan" mundua ulertzeko plataforma bat lortu nahi da. Helburua lehen zatian lorturiko datuei aurpegia eta ahotsa ematea da.
- Hirugarren zatian, dimentsio prospektibo edo estrategikoenari ekingo zaio. Dimentsio horretan, aztertutako kolektibo bakoitzarentzat esku-hartze neurri egokienak bilatu, eztabaidatu eta ezartzea da helburua. Zati horretan, beraz, beraiek adierazitako beharrak eta gaiari buruz zeresanik duten profesionalen esperientzia eta irizpideak artikulatuko dira.

Hiru zati horien baturaren ondorioz etorri da txosten hau. Txostenean era zehatz eta laburrean, prostituzioan aritzen diren emakumeen hainbat kolektibo azaltzen da; eta baita bere errealitate, bizipen, eskaera eta esku-hartze estrategia posibleak ere.

Kualitate Lantaldea ikasketa bulegoa izan da ikerketaren arduraduna, T&D Consultores eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarkidetzan. Lan nekeza izan da, asko izan baitira prozesuan zehar azaldu diren eragozpenak. Zatietako bakoitzak bere zailtasuna izan du. Kasu batzuetan zeuden datuak eskasak izan eta datu horiek lortzea oso konplexua gertatu da, eta ondorioz bilaketa eta kontaketa ia banakakoak izan dira. Beste kasu batzuetan, emakumeek bere iritzi eta bizipenak adierazteari uko egiten zioten. Batetik, horren zergatia beldurra eta gizarte estigmaren objektu izatean bilatu behar da eta, bestetik, kolektibo horiekin egin beharreko lan prospektiboari adre emango dioten proiektu publiko zein pribatuaren urritasunean.

Prostituzioaren inguruan aurreiritzi ugari dago gizartean, bibliografia gutxi eta topiko gehiegi. Horrek guztiak iluntasun eta opakotasun batera bultzatzen du, prostituzioa mugitzen den esparruan ikertu edo gakoak lortzeko orduan. Sektore horretan milaka milioi mugitzen dira ezkutuko ekonomian, eta ez du bere burua ezagutzera eman nahi. Administrazioak edo dagokion organoak arautu dezan baino nahiago du marjinaltasunean murgildurik jarraitu.

Ikerketa hau, prostituzioaren fenomenoak ulertu eta hornitu eta horren ikuspegi orokorra eskaintzeko bitartekoa da. Eta bereziki, fenomeno horren bidez bere bizimodua ateratzen duten emakumeen ikuspegia ematekoa.

1

EAE-KO PROSTITUZIOAREN MAPA SEKTORIALA

"MAPA SEKTORIALA" ZATIAREN METODOLOGIA

1.1

INFORMAZIO ITURRIAK

1.1.1

Ikerketaren lehen zatia gauzatzeko, hau da, EAEko prostituzioaren mapa sektoriala burutzeko, lehendik zeuden iturrien bilduma sistematiko bat osatzeaz gain, beharrezkoa da iturri berriak bilatzea.

Erabili diren informazio iturri nagusiak ondokoak izan dira:

1. Funtsezko iturriak: atal honen baitan, prostituzioan aditu diren zenbait pertsonari eginiko elkarrizketetatik lortutako hainbat informazio dago. "Ahoz ahokoa" deritzona ere aintzakotzat hartu behar da; metodo horren bidez hainbat prostituzio-etxe edo etxebizitza lekukotu ahal izan da. Eta, beraiez ez litzateke ezer jakingo, datuak biltzeko modu horrengatik ez balitz.
2. Bigarren mailako iturriak: bibliografia, bideoteka eta interneten eskuragarri dagoen informazioa erabili da. EAEn aurrez prostituzioari buruz eginiko ikerketak.

Estatuaren gainerako lurraldean prostituzioari buruz eginiko ikerketak.

Prostituzio munduaren egoera orokorrari buruzko txosten eta ponentziak.

Legedia.

Prostituzioari buruzko saiakerak.

ERABILERA ETA METODOLOGIA

1.1.2

Ondoren, lehen zati honetako atal bakoitzeko, atal hori burutzeko zein iturri eta zein eratan erabili diren azaltzen da.

Lehen atalak, prostituzioaren aurkezpena gizarte fenomeno gisa izena du, eta bere jarduerak dakarren guztia aztertzen du. Atal hau burutzeko batik bat gaiari buruzko bibliografia eta bideoteka erabili dira; baita Internetetik ateratako zenbait artikulua ere.

Lehen zati honetako bigarren atala, prostituzioa kokatzen den Lege Esparruari dagokiona da. Atal horretarako, lege izaerako bibliografia hartu da aintzakotzat, bertako eremuari, estatu espainiarrekoari eta europarrari dagokionez. Hiru eremu horietako legeen azterketaren bidez, prostituzio munduaren egoera legala\alegala\ilegala zein den jakin ahal izan da. Emakume kanpotarrei dagokien beste gai bat ere aztertu da: extranjeria lege berria. Lege hori aztertu da emakume horiek jasotzen duten tratamendua ezagutzeko. Era berean, ego-

kia suertatzen zen beste herrialdeetako prostituzioaren legedi eta erregularizazio kasuren baten gaia ateratzea. Horretarako, Herbehereetako erreferentea jaso da, gai horretan hartu duen garrantziagatik. Hirugarren atala, prostituzio sektorearen tipologia eta garapenari buruzkoa da. Atal hori, aurrez zegoen bibliografiari esker, eta sektorean lanean diharduten pertsona adituek egindakoa parekatuz, zehaztuz joan da.

Lehen zati honetako azken atalean, prostituzioan diharduten emakumeen zenbaketa egiten da. Horretarako, hainbat metodologia erabili dira:

- Kluben zerrendari eta beraien ezaugarriei dagokiona telefono bidezko inkesta bidez osatu da. Inkesta hori EAEko udal guztietara joz egin da, konkretuki Udaltzaingoarekin harremanetan jarritz eta establezimendu, kokapen eta emakume kopuruari buruzko informazioa eskatuz. Prostituzioa kalean gauzatzen duten emakumeen zenbaketa, emakume horiekin era zuzen edo zeharrean lanean jarduten duten elkarteek erraztu dute.
- Etxebizitzetara dagokionez, informazio iturria egunkarietan iragartzen diren telefono zenbakiena izan da. Telefono zenbaki horietara joz, emakumeen kopurua eta ezaugarriak iragartzen duten errealitatea ikertu ahal izan da. Dena dela, prostituziorako erabiltzen diren etxebizitzetara kopurua, iragartzen diren telefono zenbakietara deituz burututako ikerketak emandakoa baino askoz ere handiagoa da. Bestalde, Goi Standinga delako tipologia jarduten duten emakumeak zenbatzea ezinezkoa izan da, darabilten jarduera ezkutua da eta.

Bada erabat detekta ezina suertatu den prostituzio mota bat: prostituzioa bigarren lantzat duten emakumeena. Hau da, bere ohiko zirkuluan erabat ezkututzen dutenak, bizitza bikoitza daramatenak; eta baita, Goi Standinga delakoan jarduten dutenak ere.

Beraz, jasotako informazioaren arabera, zenbait kolektibori dagokion mapa margotu dezakegu. Gainera, ziurta dezakegu datuak lortu ahal izan diren zehatzenak direla, eta guztiz baieztatuta daude klubetako eta kaleko prostituzioaren kasuan. Etxebizitzetako kasuan, aldiz, prentsa bidez iragartzen diren zenbaketa bat baino ez da lortu. Bere burua iragartzen ez duten etxebizitzak ere badirela susmatzen dugu.

PROSTITUZIO FENOMENOAREN AURKEZPENA

1.2

FENOMENOA TESTUINGURUAN JARTZEA

1.2.1

Ikerketan azaldu beharreko ondorio eta datuekin jarraitu aurretik, erabaki behar den lehen alderdia prostituzio bezala ulertzen dena definitzea da. Puntu horri buruz zenbait iturriekin hitz egin da. Hitza bera baino gehiago, prostituzioari eman nahi zaion zentzua argi eta garbi definitzerakoan, iturriak ez dira guztiz bat etorri. Adibidez, hiztegira jotzen badugu, definizioen erreferente argi bat izateagatik, prostituzioaren ondoko definizioak aurki ditzakegu:

"Emakume batek bi gizon baino gehiagorekin burutzen duen ohiko merkataritza egoera, bere grina asetzeko edo dirua lortzeko asmoz" (Espasa)

"Emakume batek, etekina lortzeko asmoz, bere gorputza erabiliz gauzatzen duen sexu merkataritza" (Larousse)

"Diru truke, besteekin sexu harremanak izaten dituen pertsonaren jarduera" (Real Academia Española)

Lehen bi kasuetan, prostituzio hitzari emakumezkoen zeinua bakarrik ematen zaio, prostituzioa soilik emakumeen gauza izango balitz bezala eta gizonezkoek bezero gisa soilik parte hartuko balute bezala. Zentzu horretan, hirugarren definizioa neutroagoa da, prostituzioa gauzatzen duen subjektua orokortzen baitu, gizona edo emakumea den aintzakotzat hartu gabe. Sektorean lanean diharduten elkarteek burututako materialetan antzeko hitzetan islatzen da: "Prostituzioa = giza gorputzaren sexu komertzioa" (1).

Gaiaren inguruan lan egin edo idatzi duten pertsona guztien adostasuna duen zerbait baieztatzen du definizioen nahaste horrek: planteamendu etiko eta baloratiboak alde batera utzi gabe ezinezkoa dela prostituzioaren gaiari aurrez aurre heldzea. Beste sektore batzuetan dena eta adierazten duenarekiko bat etortze eta adostasun handiagoa badago ere. Prostituzioan definizioa bakoitzak berarekin egin behar denaren menpe egongo da, hau da, bere postulatu ideologikoen arabera izango da: prostituzioarekin zer egin behar den iritzia, horrelakoa izango da horren definizioa.

Zenbait sektorek, genero eta gizarte bazterketarekin parekatzen dute. Izan ere, honako iritzia dute: prostituzioak gizon eta emakumeen artean, menperatze, aginte, zapalketa eta etekin ekonomikoen erlazioa agerian jartzen duela. Eta beraz, emakumea gizonen erabilerarako objektu bezala tratatua izaten denez, duintasunaren aurkako erasoa eta sexu biolentzia ematen dira. Beste zenbait sektorek, giza desbideratze eta marjinaltasun planteatu

(1) Askabide. *Curso introductorio al fenómeno de la prostitución*; Jesús García (et al), 1998.

menduetatik ihes egiten dute, prostituzioa besteak bezain bidezko den sexu aukera bezala identifikatzen dute. Gainera, adierazteko era hori denborarekin onartua izatea ez dute zentzugabea ikusten. Eztabaida hori nabarmena da prostituzioari buruzko publikazio gehiengotik, ondorengo testuan ikus daitekeen bezala:

"Ez al legoke prostituzioa normalkuntzaren bidean, sexualitatean bazterturiko betiko beste modu batzuk bezala (ama ezkongabeak, homosexualak, etab)? (...) Ez al dago prostituzioa jadanik herrialde batzuetan, beste edozein "zerbitzu pertsonal" bezala ikusia? Ez al da hori prostituzioaren azken patua, zerbitzuen eta kontsumoaren merkatuko aroaren logika gupidagabearen arabera?"

Edo muga eta ukapena izaten jarraituko du, eta horietatik abiatuz gizarteak sozialki onargarria izango den sexualitatearen araua ezagutuko al du?" (2).

Beste eztabaida esparru bat prostituzioen mugei buruzkoa da. Hau da, zer den eta zer ez den prostituzioa. Zentzu horretan, gai horri buruz ikertzen direnek, prostituzio jardueraren gauzatzea "noizean behingoa" edo "iraunkorra" izatea bezalako alderdiak hartzen dituzte aintzakotzat. Edo ea "prostituzioaz bere ogibidea egin duen" pertsona batek, edo "pasadizozko jarduera bat den". Ideia horiek, hitza zein zehaztugabea den azaltzen dute, azken finean, kontu pribatu batez ari baikara. Beste arrazoi batzuen artean, diruaren trukeko harreman sexuala pertsona bakoitzak bizitzen duen eraren araberrakoa izango da. Hautemate horiek muturrera eramane eta alderdi ekonomikoen ordeztu beste era bateko mesede batzuk hartuta, harreman sexual asko prostituzioaren eskemari loturik daudela esan liteke. Baina horrek gaia desitxuratuko luke argi eta garbi.

Hala ere, badira autore batzuk, prostituzio kontzeptuaren barne beste zenbait forma sartzeko beharra ikusten dutenak: gizartean garrantzia handia hartzen ari diren eta era puru batean kontaktu fisiko, sexual edo genitalak ez diren harremanak. Telefono beroen lineen ugaritzeaz, Interneteko sexu orrien bisita kopuruen arrakastaz, negozio enpresetarako laguntza nesken eskaintzaz, lasaitasun masaje mota batzuen zerbitzuez, eta abar ari gara. Era askotako adierazpenak dira horiek guztiak, eta sexualitatearen hainbat dimentsiorekin egokitzen dira. Baina, hori guztia gure ikerketak bere gain hartzeak, ikerketa beraren zeregina izugarri handituko luke, aipaturiko forma guzti horiek prostituziotzat jo daitezkeen edo ez aintzakotzat hartu gabe.

Beraz, prostituzioaren jardueraren esanahiari buruzko eztabaida zabala da; eta, era berean, jarduera horretan aritzen diren emakumeen izaerari buruzkoa. Hala eta guztiz, ikerketa honen eginkizuna ez da gaiari buruzko epai morala ematea, egungo prostituzioaren benetako egoera deskribatzea baizik. Eta horrez gain, errealitate horretan nola esku-hartu daitezkeen, jarduera horretan aritzen diren emakumeen bizi baldintzak hobetzeko asmoz.

(2) Negre I Rigol, Pers. *Prostitución popular: relatos de vida*. 1998.

Prostituzioaren fenomenoaren inguruko bibliografiaren ibilbidean, gizarteak sektore horrekiko duen irudiak eta balorazioak berebiziko garrantzia dute. Hiritarrei eginiko inkesta espezifikorik ez dagoen arren, antzeko jarreraren inguruko taldekatzeak burutzen dira. Askabide elkarteak argitara emandako hainbat txostenetan, zehatz samarrak suertatzen diren zenbait gizarte balorazio jasotzen dira:

- Lehenengoa eta muturrekoena, korronte Erabateko Abolizionista litzateke. Hau da, prostituzioaren jardura behintzat, delituzko arau-haustea, edo arau-hauste administratiboa izateagatik jazarri eta zigortu behar litzatekeela uste dute.
- Bigarren korrontea Abolizionismo Klasikoa da. Bere pentsaera zentrala prostituzioa legalki debekatzea da, eta bere jarduerarekin zerikusirik duten instalazio guztiak ixtea.
- Hirugarren korrontea Erabateko Tolerantzia izena du. Korronte horren ustez, prostituzioa ez da gizarte arazo bat. Beraz, ez dago erabakitze estrategiarik planteatu beharrik. Gizartearen aurkako fenomenoak adierazten dituenean edo Kode Penala urratzen duenean bakarrik jazarri behar da.
- Bukatzeko, Tolerantzia Erlatiboa dugu. Korronte horrek prostituzioa ezinbesteko gizarte errealitate bezala ulertzen du eta bere osasun erregulazioa, erregulazio administratiboa eta abarren beharra dakusa.

Prostituzioan jarduten duten emakumeek gizartearen ezinikusia eta gaitzespena jasaten dutela esan da. Baina bestalde, prostituzioa desagerrarazteko zaila dela eta ezinbesteko ekintza bezala onarturik dagoela ere egia da. Bere ezinbesteko izaerari buruz teorizatzen da, funtzio bikoitza betetzen duelako: alde batetik, gizartearentzat onargarri diren erabilpen sexualei mugak ezartzea, eta, bestetik, kasu batzuetan horrek dakarren frustrazioaren ordaina jasotzea. Autore batzuen aburuz, prostituzioa lagungarri gertatzen da zenbait kasutan. Horrela, "ezkontza gordetzen" eta "desbideratze sexual handiagoak ekiditen" laguntzeaz gain "pasio hilketak" ere eragotzi ditzake, esleitzen zaion sexualitatearen funtzioan oinarrituz. Gizarteak ezinbestekotasun hori adierazteko duen modua, "munduko ogibiderik zaharrena" delako adierazpenean laburbiltzen da.

Normalki, prostituzioan aritzen ziren emakumeak ghettoetan bizi ohi ziren; hau da, "auzo txinarrak" deiturikoetan zentralizaturik. Eta baztertu egiten dituen arren, puntu bateraino beharrezkotzat jotzen dituen gizartearengandik zokoraturik. Ghetizazio hori desagertuz joan da eta prostitutak hirian zehar barreiatuz joan dira, eta horrela auzotarren kexuak azaleratzen hasi dira. Leku bereiztuetan beren existentzia onartzen den arren, gainerako hiritarren inguruan bizi daitezela ez baita onartzen. Izan ere, prostituzioa eragozpen iturria izateaz gain, inguruaren debaluaziorako alegiazko lehen urratsa da. Prostituzioan jarduten duten emakumeak bi neurri erabiliz neurtze horrek beraian segurtasun eza eta gaitzespena sortzen du.

Gizartearentzat, prostituzioaren mundua gizarte bazterketari dagokio. Asoziazio hori arrazoitzen duten faktoreak bat baino gehiago dira. Lehenengoak, gizartean gorputzarekin zerikusirik duten ogibideak orokorki gaizki ikusiak egotearekin lotura zuzena du. Gizartean pres-

tigioa duten modeloen ogibide horiek izan ezik, prostituzioa, streep-teaseko dantzariak eta abarreko ogibideetan aritzen direnak, bigarren mailako emakumetzat jotzen dira.

Bigarren faktorea erlijiosoa litzateke. Mendebaldean nagusi izan diren kristau ikusmoldeen barne, sexua gai tabutzat jo izan da beti. Kasu askotan, erlijio dotrina ofiziala, ezkontzaz kanpo sexu formen, edo helburutzat ugaltzea ez duten sexu formen aurka egon da. Ezkontza eta tradiziozko familiaz kanpo kokatzen diren harreman sexualak ezmoraltzat jotzen dira, eta ondorioz, prostituzioaren jardura postulatu katolikoetatik kanpo geratzen da.

Faktore horien eraginez, gizarteak prostitutak izatea onartzen du, baina era berean baztertu egiten ditu. Prostituzioa ezkutukoari loturik dago eta sarritan morboari loturik ere bai; gizarte tabu kopuru handia eta erlijio arauak nahasten baitira. Hori gizartean jokaera zuzen edo oker bezala ezagutzen da.

Prostituzioan aritzen diren emakumeen kolektiboarenganako gizartearen bazterketa horretan, bada garrantzizko beste faktore bat ere: emakume horien mundu sinbolikoa. Hau da, prostituta hitzak uztarturik daraman gutxiespen karga, diruaren trukeko asoziazioa, debe-kuak, delinkuentzia, eta abarrek, era zuzenean eragiten du hiritarrek emakume horiek baztertzearengan. "Put" hitza iraintzeko erabiltzea eta hitz horrek dituen konnotazio eta denotazio sozialek gizartearen desprestigioa argi eta garbi adierazten dute. Hitz horren erabilera beti negatiboa da, eta, aldiz, erabiltzaile edo bezeroa ez da inoiz gaitzesten.

lkerketa hau egiteko orduan, prostituzioa asko aldatu dela egiaztatu ahal izan da, forma, tipologia eta zerbitzuei dagokienez. Baina ez da berdin gertatzen, prostituzioaren kontzeptua edo bere jardura baloratzeko erari dagokionean, beti bezala jarraitzen baitu. Beste behin ere, nabaria da gaiari heltzeko orduan, ez dela neurri bakarra erabiltzen: badago prostituzioaren bilakaera bat, baina ez berarekiko pentsamenduaren bilakaerarik. Eta oraindik ere, horretaz hitz egiteko orduan betiko topikoak erabili ohi dira. Agian, prostituzioa ber-kontzeptualizatzeko garai ona izango da oraingo hau, gaiari buruzko azterketa eta argitara emandakoak oinarritzat hartuz.

2000ko ekainean, Madrilén Prostituzioa eta Emakumeen Trafikoari buruzko Nazioarteko Sinposioa ospatu zen. Sinposio horretan hainbat asoziazio eta elkartek hartu zuten parte, eta aurkezturiko proposamen guztiek ardatz bera zuten. Hain zuzen ere, kontzeptu soziala-ren zabaltze handiago baten ildotik, Sinposio horretan, gizarteak gai horri buruz eztabaida-tzea eta bere inguruan dagoen isiltasuna apurtu eta tabuak ezabatzearen garrantziaren ingu-ruan eragin zen. Gainera, gobernuen esku-hartze posibleetarako jarraibide batzuk ezartzen saiatu ziren, hala nola, prostituzioan aritzen diren emakumeentzat lan eskaintza alternati-boak egotea, edo jazarpen eta zigor handiagoak ezartzea trafiko sareei.

EAEEn sektore horretan aldaketa edo transformazio parametroak ezartzea zaila suertatzen da. Izan ere, aurrez globalizaturiko daturik ez baitago, konparaketak egin ahal izateko. Hori dela eta, sektore horretan lanean diharduten pertsonen adierazpenetara jotzea beste aukerarik ez da geratzen, zein aldaketa eman diren zehaztu ahal izateko. Hori guztia oinarritzat hartuz, inolako zalantzarik gabe baieztatu daiteke eskaintza hazten eta nabarmenki aldatzen ari dela, ondoko adierazleetan oinarrituta:

- Jardueran horretan aritzen den emakumeen kopurua handiagoa da, eta gehienak atzeritarra dira.
- Jarduera lekuari dagokionez, aldaketa bat nabarmentzen da: hiriz kanpoko makrozentroak eta etxebizitzak ari dira nagusitzen.

Prostituzioan aritzen diren emakume atzeritarren kopuruak gora egin du (kontsultaturiko adituek, EAEEn prostituzioan diharduten emakumeen ehuneko 80 eta 90 artean atzeritarra direla kalkulatu dute). Hori ondokoaren adierazle bat da: ogibide hori beste sektoreetan gertatzen denaren arabera aldatuz doala. Adibidez, nekazaritza, arrantza edo etxeko lanetan inmigranteek lehen gure inguruko pertsonak burutzen zituzten lanak egiten dituzte.

Emakumeek beraiek diotenez, atzerriko emakumeen prostituzio mundurako etorrera handia, azken 5 urteotan eman da batez ere (gehienek jatorri latinoamerikarra dute). Horrek funtsezko aldaketak eragin ditu, sektorearen ohiko eskaintzan. Beste kultura eta herrialdeetako emakumeen ugaritzea mesedegarria suertatu da bezeroarentzat; ohiko ez diren hazpegi etnikodun emakumeekin edo emakume exotikoekin harremanak izatearen berrikuntzak bezeroak erakartzen baititu.

Prostituzioan aritzen diren emakumeen jatorriari dagokion aldaketaz gain, sektorean leku aldaketa bat ere nabari da. Eskaintzak, klubetatik eta batez ere kaletik, gune metropolitarretan kokaturiko makrozentroetara jo du. Horrek bezeroen anonimatua eta jabeentzat negozio errentagarriagoa bermatzen du. Zentroak handiagoak dira eta lurzorua merkeagoa. Horrela, emakume eta zerbitzuen kopuruak gora egiten du, eta, era berean, auzotarrekin izan zitekeen gatazken kopurua txikitu egiten da. Gainera, hiri zehatz batzuetan bereziki, prostituziorako etxebizitzak kopurua handitu egin da. Azken modalitate hori kontrolatzea oso zaila da.

Arrazoi horiek medio, eskaintzaren eremuan hazkunde handia ikus daiteke. Horrek emakume horien arteko konpetentzia handiagoa eta irabazien murrizketa eragin du.

Auzoan ohiko eran jarduten duten emakumeak desagertuz doaz, eta zentro handiei lekua uzten ari zaie. Leku handi horietan, emakumeak txandakatu egiten dira maiztasun handiz, eskaintza zabaltzeko asmoz. Ondorioz, bi tendentzia nagusitu dira: batetik, zerbitzuak zentro handietan biltzea, eta, bestetik, gune urbanoetako etxebizitza txikietan zehar barreiatzea.

Egunkarietan sartzen diren iragarkien kopuru handia, prostituzioaren gorakadaren eta horrek dakarren negozio handiaren adierazle garbia da. Iragarki horietan klubak, etxebizi-

tzak, telefono erotikoak eta era guztietako sexu zerbitzuak aurki daitezke. Gainera, zenbait kasutan, iragarki horiek nesken argazki eta guzti azaltzen dira, eta horrek iragarkiaren kostua nabarmenki igotzen du. Probintzia mailako tirada duen egunkari batek egunean milioi bat pezetako kopurua faktura dezake, era horretako iragarkiei esker bakarrik. Eraikuntza enpresei buruzko atal eta gehigarri berezietako iragarkiak izan ezik, kontaktuei buruzkoak dira normalki kopuru handiena osatzen dutenak.

Trantsizio garaitik orainaldira bitartean bizi izan den askatasun sexualaren pixkanakako hazkundeak eta gaiari buruzko onargarritasun sozial handiagoa izateak sexua komunikabideetan gero eta maiztasun gehiagoz azaltzea eragin dute. Orain, eskaintza sexualaren zabalpean esparru horretako aldaketa sozialak nabarmentzen dira: linea erotikoen jaiotza, pornografiarako sarbide askea (helduentzat), Interneteko orri erotiko eta pornografikoen ugartzea... sexua izugarrizko erakargarri komertziala bilakatu da. Sektore horretan aritzen den merkatua oso indartsua da eta etekin izugarriak sortzen ditu.

Soilik prostituzioari buruzko datuei dagokienez, zenbatu ahal izan diren emakumeen diru sarrerak batuz, EAEn prostituzioan diharduten emakumeek dituzten diru sarrerak urtean 6.400 milioi pezeta gaindi ditzakeela kalkulatu da. Luxu guneetan edo iragartzen ez diren etxebizitzetan aritzen diren zehaztu gabeko emakume kopuru bat dagoela aintzakotzat hartu behar da. Emakume horien kopurua ez da zenbatu ahal izan azterketa honetan. Ondorioz, beren diru sarrerak ez dira kontuan hartu aurreko zifran. Horri guztiari, negozioari etekina ateratzen dioten gainerako pertsonen irabaziak gehituz gero, hasierako zifra horrek nabarmenki egingo luke gora.

PROSTITUZIOAREN LEGE ESPARRUA

1.3

PROSTITUZIOAREN LEGE ESPARRUA ESPAINIAR ESTATUAN

1.3.1

Prostituzioaren egoera legala, edo lege esparrua, osagai garrantzitsua da sektorearen inguruko eztabaidan, eta horixe azaldu zaigu azterturiko bibliografian. Beste zenbait alderdiren artean Kode Penal eta hainbat legeren ibilbide historiko bat egiten da, prostituzioak izandako tratamendua oinarritzat hartuz.

Muinean 3 politika aurki daitezke:

- DEBEKUA: Sistema hau, prostituzioa debekatzeaz gain, ekintza horretan jardun, antolatu edo ustiatzen dutenen aurkako errepresioan oinarritzen da.

- **ARAUTZEA:** Sistema honetan prostituzioaren existentzia onartzen da. Prostituzioan aritzen diren emakumeak polizia eta osasun kontrolpean ezartzeaz gain, aginte bidez biltzen ditu. Biltze hori kokapen berezietan, edo "lenozinio etxeetan", konfinamendu eran gauzatu daiteke. Beste konfinamendu mota bat geografikoki ongi zehaztu eta araututako herri guneei dagokiena da. Sistema honen aldeko pertsonak, gaixotasun benereoen zabaltzeari aurre egiteko era eraginkorra zela pentsatu arren, sistemak ez zuen lortu sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak kontrolatzea.
- **ABOLIZIONISMOA:** Sistema honek bere burua proxenetismoaren jazarle bezala definitzen du, baina ez prostituzioaren beraren aurkakoa bezala. Debekaturik dago lenozinio etxeak izan edo zabaltzea. Prostituzioa ez da debekatzen, baina ez da legalki onartzen.

LEGEDIA ESPAINIAR ESTATUAN

Espainiar estatuan azken bi sistemak erabili izan dira, eta gaur egun abolizionismoa nagusitzen da. Dena den, bi formulek kritika ugari jasotzen dituzte: prostituzioan aritzen diren emakumeei lan egitea eragozten diete, beraiekiko gizarte kontrola areagotzen dute eta ondorioz estigmatizazioa eragiten dute. Gainera, kriminaltasunaren garapena bultzatzen dute eta ez dituzte emakumeen lan eskubideak onartzen...

Gaur egun espainiar estatuak bere burua Abolizionismoan kokatzeak prostituzioaren jarduerarentzat araudi zehatzik ez dagoela esan nahi du. 1996ko kode penal berrian (3) azaltzen diren alderdi berri batzuk besterik ez daude.

Legeak aldatuz joan dira urteak pasa ahala:

- Abolizionismoaren aurrekariak aztertzeko, 1935. urtera jo beharko genuke. Urte horretan, prostituzioaren araudia bertan behera uzten zuen dekretu bat promulgatu zen. Gerora, 1956ko martxoaren 3an Lege Dekretu bat sartu zen indarrean, Tolerantzia Zentroen Abolizioa eta Prostituzioaren inguruko beste zenbait Neurri buruzkoa. Une horretan, espainiar estatua herrialde abolizionisten taldera pasa zen.
- Espainiar Gobernuak NBERen 1949ko komenioari atxiki zitzaion 1962. urtean. Hitzarmena Pertsonen Salerosketaren Errepresioa eta Besteen Prostituzioaren Esplotazioari buruzkoa zen, eta prostituzio politika abolizionistaren berrespen eta berrindartzea dakar.
- Aurrerago, 1979ko abenduaren 18an, Nazio Batuen Asanblada Orokorrean, Emakumearen Diskriminazio era guztien Ezabatzeari buruzko Hitzarmena onartu zen. Espainiar estatuak 1983. urtean berretsi zuen hitzarmena.
- Geroago, prostituzioarekin zerikusirik duten ekintzak, alde batetik Arriskugarritasun eta Gizarte Birgaitze Legean jaso ziren eta bestetik Kode Penalean.

Kode Penal berria (1996ko maiatza) indarrean sartzearekin Arriskugarritasun eta Gizarte Birgaitze Legea indargabetu egin zen.

(3) Kode Penal berrian, prostituzioa adin helduko pertsonak askatasun sexualaren ondorioz gauzatzen duten jarduera da, beti ere parte hartzen duten pertsonak onartzen badute eta inolako koakzio motarik ez badago.

1996ko Kode Penal berriak erakusten duen sakoneko aldaketa aztertzen bada, prostituzioaren inguruko lege hausteekiko ezartzen dena ikus daiteke.

- Tipo penalen soiltze nabarmena eman da, bai arau kopuru eta barnean sartutako jarrenen barietateei dagokienez; bai arau horien idazketan ere.
- Eduki moralista erabat baztertu egin dela egiaztatzen da (aurreko araudian zeuden trafiko inmorala eta ustelkeriari buruzko erreferentziak. Horrela, tipo penal berriek, Tituluaren azpian dagoen ondasun juridikoaren babesari erantzuten diote argi eta garbi, askatasun sexuala babesteari hain zuzen).
- Edozein motako eduki moralizanteak eragozteko ezabatu dira hain zuzen, 18 urtetik gorako baten prostituzioan parte hartzeari dagozkion tipo penalak; jardueran dabilenaren aurkako borondaterik edo bere askatasunari jarritako mugarik ez badago. Ikus daitekeen bezala, tipo penal horrek ezin zuen askatasun sexuala ondasun juridiko gisa izan, izatekotan, moral publikoa babestea izango luke ondasun juridiko gisa.
- Araudi berri horren bidez, alde batetik, adin txikikoak edo ezinduek prostituzioan jardutera bultzatzen dituzten jokabideak zigortzen dira, eta horrela beren askatasun sexuala babesten da, oraindik osatze prozesuan baitaude. Eta, bestetik, adinez heldua denari mehatxupean prostituzioan jardutera behartzea ere zigortzen da.

Prostituzioarekin loturiko izenburupean arauturiko jokabideak ondokoak dira:

- **Adin txikiko pertsonen edo ezinduen prostituzioa (187. artikulua).** Adin txikikoen prostituzio merkatuaren eraketan era handi edo txikiago batean eragiten duten jokabide guztiak, modu zabal batean, egozten saiatzen da Kodea.
- **Mehatxu bidez eragindako hamazortzi urtetik gorako prostituzioa (188. artikulua).** Kasu horretan, lehen 452. bis artikuluko d) azpiatalean sartzen ziren jokabide horiek guztiak, despenalizatutzat jo behar dira. Hau da, jarduerarako lokaletan lan egiten duten gerente, jabe, langile, errentatzaile eta abarren jardura.

188. artikuluen bigarren paragrafoak, hain zuzen bere aurreko delituan bezala, tipo larriago bat ezartzen du: subjektu aktiboa, aginte publiko, agente edo funtzionario bada, eta izaera horretan jarduten badu.

- **Adin txikikoen edo ezinduen erabilera ikuskizun exhibizionista edo pornografikotzat (189. artikulua).** Lehenengo paragrafoan jardura bikoitz bat sartzen da: "adin txikiko pertsona bat edo ezindu bat erabiltzea ikuskizun exhibizionistetan, garatzen den esparruan publizitatea dakarrelako, eta adin txikikoa edo ezindua xede exhibizionista edo pornografikoz erabiltzea, horrek esparruko publizitate hori bere barne hartzen ez duelarik" (adin txikikoei argazkiak atera edo beraiekin pelikula bat egitea eta ondoren, sare informatikoetan adibidez, komertzializatzea bezalako jokabideak sartuko lirateke hor).
- **Adin txikikoen zein ezinduen prostituzioa eragoztearen betebeharra ez egiteko delitua.** 189. artikuluko bigarren paragrafoak ondokoa arautzen du: "bere botere, zaintza, tutoretza edo babespean adin txikiko bat edo ezindu bat izan, eta prostituzioan jarduten duela jakinik, egoera horretan jarrai ez dezan, ekiditeko ahal duena egin edo agintariengana jotzen ez duenaren" jarrera. Artikuluak, adin txikikoak bere erantzukizunpean

(guraso agintea dela, tutoretza, zaintza zein babesa) dituzten subjektu aktiboei dagozkien betebeharrak jasotzen ditu. Eta horretan datza hain zuzen arau horrek. Tipo penalarren baldintza objektibo bezala, betebeharrak horiek izateaz gain, subjektu aktiboak adin txikikoa prostituzio ekintzetan dabilela jakin beharra exijitzen du.

ATZERRIKO PERTSONEN EGOERA LEGALA

Orain arte esandakoaz gain, prostituzio munduan lan egiten duten emakume atzerriarren kopurua gero eta handiagoa dela ere aintzat hartzeko modukoa da. Beraz, ezin dugu alde batera utzi urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerriarren Eskubide eta Askatasunei eta bere Gizarte Integrazioari buruzkoa; eta bereziki hori erreformatzen duen 2000ko abenduaren 22koa.

Lege horrek immigrazioa arautzen du, estatu espainiarraren barruan fenomeno hori handituz joango dela baita ustea. Datuek errealitate hori erakusten dute, eta gero eta pertsona gehiagok estatu espainiarrerako bidea hartuko dute, edo, bestela, beste herrialde batzuetarako pasabide bezala erabiliko dute.

Erreforma horren bidez, sarrera baldintzak betetzen dituzten egiaztatu gabe, espainiar lurraldera atzerriko pertsonak ekartzen dituzten garraiozaleei zigorra ezartzen zaie. Gainera, gizakien trafiko eta esplotazioaren aurkako borrokan sakondu ahal izateko neurriak gehitzen dira, "beraiekin loturiko zenbait jarduera kontrolatzeko bidea emanez".

Prostituzioan aritzen diren atzerriko emakumeei dagokien erreforma horretako beste puntu bat espainiar lurraldean legez kontra egotearena da. Hori kanporatzearekin zigor daitekeen lege hauste bat da.

Nabarmentzeko moduko artikulua bat I. Izenburuko I. kapituluko 12. artikulua da. Horren arabera, "Espainian bizi, eta bizi diren udalerriko erroldan izena emanda duten atzerriarrek osasun asistentziarako eskubidea dute espainiarren baldintza berberetan". EAEn bizileku gisa klubetan erroldaturik dauden emakumeen kasuak aurkitu dira, bertan lan jarduera bat aurrera eramaten dute, eta era horretan Osasun Txartela eskuratu ahal izan dute.

Erreforma horretan kontuan izateko moduko beste puntu bat zera da: II. Izenburuko I. Kapituluko 25. Artikuluaren arabera –Lurralde Espainiarrera sartzeko Baldintzak–, "Espainiara sartu nahi duten atzerriarrek arauz zehaztutako diren eta egonaldiaren xede eta baldintzak justifikatuko dituen dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Gainera, Espainian egotea pentsatzen duten denborarako bizitzeko beharrezko baliabideak ziurtatu behar dituzte, edo, bestela, baliabide horiek legalki lortzeko gai izan behar dute". Eta prostituzioa legez arauturik ez dagoenez, ezinezkoa gertatzen zaie lan egoera justifikatzea.

Arrazoi horrengatik, normalki, emakume horien egoera "egonaldikoa" izan ohi da; hau da, ezin dute lurraldean 90 egunetik gora egon. Denbora hori agortzen denean, egonaldiaren luzapen bat lortu beharko dute, edo aldi baterako egoitza baimena. Lortuko ez balute, legez kanpoko egoeran geratuko lirateke. Bietarako (luzapena edo aldi baterako egonaldia) beharrezkoa da ziurtatzea mantenu edo egonaldi gastuez arduratzeko bizibide nahikoa dutela.

Luzapen bat lortuz gero, egonaldia ezingo da 6 hilabetetik gora luzatu. Aldi baterako egoitzaren kasuan, aldiz, beste edozein lan egiten ari direla ziurtatzeko paperak lortu behar direla eta, egonaldia 5 urteraino luza daiteke.

Horri gehitu beharreko beste arazo bat zera da: aldi baterako egoitza lortzeko ezinbestekoa da aurrekari penalik ez izatea estatu espainiarrean, ez eta aurrez bizi izandako herrialdeetan ere. Baldintza horiek guztiak lortzea oso zaila da, emakume horiek bizi ohi dituzten eskasia egoerak direla eta.

UDAL ORDENANTZA. BILBOKO KASUA

1.3.2

Orain arte izaera estatal edo europarra duten legeak aztertu dira. Beheragoko maila batean Bilboko Udal Ordenantza dago. Udal-Ordenantza hori, General Conchako inguruan (kale horretan prostituzioarekin zerikusia duten lokal asko daude) auzotarren kexu ugarien eta horrek beraientzat dakarren gizarte alarmaren ondorioz sortu zen. Helburu horrekin 1999an prostituziora dedikaturiko establezimenduei buruzko udal Ordenantza izenekoa sortu zen (BOE, 104. Zenbakia, 1999ko ekaina).

Ordenantza horren helburua, alde batetik, era partzial edo osoan prostituzio jardueretarako publikoari zabaltzen zaizkion lokal edo establezimenduen arteko gutxieneko distantzia finkatzea da. Eta, era berean, jarduera horretarik eratorritako erregimen juridikoa finkatzea. Bestetik, helburua establezimendu horiek gutxieneko garbitasun eta osasun baldintzak behar bezala gordetzea da.

Ordenantzan adierazten den legea: "hirigintza arloari eskatutako baimenen tramitazioa eta euren erregimen juridikoarena soilik dagokio. Aldiz, prostituzioaren jarduera eta bere gauzatze baldintzen azterketa hiritarren materiez eta osasunaz arduratzen diren udal departamentuen konpetentzia izango dira hurrenez hurren". Udaltzaingoa establezimenduen konprobazioaz arduratuko da, eta ondoren hirigintza saila da jarduerak bertan behera uztea erabakitzen duena ordenantzaren baldintzak beteko ez balira. Lokaletan prostituzio jardunik badagoen ala ez erabakitze txostenak egiteko konpetentziak ditu Udaltzaingoa. Gune gatazkatsuak bisitatuko dituzte eta neskek lan egiten ote duten begiztatuko dute eta baita zein erlazio maila ezartzen duten bezeroekiko ere. Hori guztia ikuspuntu deskriptibo soil bat erabiliz.

Normalki prostituzio jardueraren bat –edozein eratan dela ere eta aitortuta edo aitortu gabe–, egiten den establezimendu edo publikoarentzat zabalduriko lokalak ordenantza horren eraginpean daude. Edozein prostituzio era garatzea erabaki eta lehendik irekirik zeuden lokalak ere bere barne hartzen ditu Ordenantzak. Izan ere, horretarako ere zabaltze baimena behar baita. Zona berean klub bat baino gehiagok eskatuko balute baimena, lehen-dabizi eskatu zuenari emango litzaioke. Establezimendu publikoak ez diren bizitoki edo etxebizitza partikularretako prostituzioa Ordenantza horren eraginetik kanpo geratzen da erabat.

Ordenantza horren aurkako asko sortu dira. Jaso diren adierazleen arabera, Ordenantzaren ezarpenak klubak itxi eta etxebizitzaren kopuruak gora egitea eragin duela nabari da. Era berean, orain arte prostituzio jarduerarik ez zegoen leku berrietan klubak irekitzeko joera ere ekarri du. Sektorearen sakabanaketa sortu da, eta prostituzioan jarduten duten emakumeek beraiek diotenez, horrek babes gutxiago izatearen sentzazioa, egoera ahula eta segurtasun maila txikiagoa ekarri dizkie.

Gaur egun, Bilboko Udalak lokalen itxierari dagokion politika eta herri ordenantzaren aplikazioa zehaztu egin du. Hirigintzako zinegotzigoak, ordenantza hori, lokalek auzotarren artean kexuak eragiten dituztenean bakarrik aplikatzea erabaki du. Udaltzaingoa eta Hirigintzako Zinegotzigoak hirugarrenek eskaturik bakarrik hartuko dute parte, ordenantza horren azken helburua ez baita prostituzioa hiritik ezabatzea, klubek eragindako arazoak arintzea baizik.

HERBEHEREETAKO KASUA

1.3.3

Legedien alorreko atal honen barruan, prostituzioaren munduan egiten den esku-hartzeetatik sortzen den eztabaidagatik Herbehereetako kasua ezin da alde batera utzi.

Herbehereetan prostituzioa ez da inoiz legez kontraktatzat jo. Are gehiago, 1996 urteaz geroztik prostituzioan aritzen diren emakumeak zergak ordaintzen ari dira, beste edozein ogibiderekin parekatuz. Baina 1997. urtean hasi ziren alor horri buruzko araudia burutzen. Urte horretan, Herbehereetako Justizia Ministerioak proposamen bat aurkeztu zuen, herrialde horretako Kode Kriminalaren 250. bis artikuluari buruzkoa, Parlamentuko Bigarren Ganbararen barruan prostituzioaren jardura arautzea planteatuz. 1999. urtean, proposamena onartua izan zen eta 2000. urteko urrian indarrean sartu zen. Herbehereetako Parlamentutik, Internet bidez jasotako informazioak prostituzioaren negozioa erregulatu eta arautzeko beharra 5 helbururi begira planteatu zela zehazten du:

- Prostituzio operazioak kontrolatu eta arautzea.
- Nork bere borondatearen aurka burututako prostituzioaren aurkako neurriak hartzea.
- Adin txikiko pertsonak abusu sexualetatik babestea.
- Sexu industriaren barruan krimena ezegonkortzea.
- Prostituzioaren eraketaren eta irregulartasunak sumatzen ziren prostituzio-etxeen aurka borrokatzea.

Lege berri horren bidez prostituzioaren sektoreko egoera injustu eta onartezineki bukaera eman nahi zaie: adin txikikoen prostituzioa, mafiak... Gainera, lege horren bidez prostituzio etxeak ere arautzen dira, eta une horretatik aurrera edozein enpresa bezala tratatuko dituzte. Beraz, elkarteek gaineko zergak ordaindu beharko dituzte, Gizarte Segurantzaren izena eman eta lan eskubidea eta osasunaren esparruan indarrean dauden arauak errespetatu.

EAE-KO PROSTITUZIOAREN TIPOLOGIA ETA BILAKAERA

1.4

Prostituzioan aritzen diren pertsonen artean tipologia bat ezar daiteke jarduera motaren arabera: kalea, klub edo lokalak, etxebizitzak eta goi standinga. Tipologia hori bat dator azterturiko datu eta ikerketekin.

Esan daiteke, EAEn prostituzioan aritzen den emakumearen profila antzekoa dela hiru herrialde historikoetan: atzerritarra (%80 eta %90 artean), nagusiki Hegoamerika eta Karibetik datorrena: Brasil, Kuba, Kolonia, Dominikar Errepublika. Bere profilik komunena emakume gazte eta ezkongabearena da, bere kargupean seme-alabak dituen, eta dirua modu azkarrean lortzeko asmoz estatura etorria.

EAera prostituzioan jardutera etortzen diren atzerriko emakumeen fenomeno horrek 90eko hamarkadaren hasieran hasi eta 1995. urtetik aurrera nabarmenki egin du gora. Azken hamar urteotan prostituzioan jarduten duten Latinoamerikako emakumeen kopurua baskari ez da izan gora egin duena. 1995 eta 1997. urteen artean SESB zenetik eta Poloniatik zetozen emakumeen talde ugaria azaldu zen gure lurraldean. Emakume horiek beraien herrialdeetako egoera politiko eta ekonomikoak bultzaturik Espainiara emigratu zuten lan egin ahal izateko. Ez dago erabat argi zein baldintzatan heldu ziren; hau da, aurrez jakinik bere patua prostituzioan jardutea zela edo horretara beharturik ikusi ote zuten bere burua, hasierako beren borondatearen aurka.

Gaur egun, prostituzioan jardutera EAera iristen diren atzerriko emakumeen kopurua gero eta handiagoa da. Horren ondorioz, konpetentzia gero eta gogorragoa denez eta baldintzak ere gero eta aurkakoagoak, egoera oso zaila gertatzen da emakume horientzat.

TIPOLOGIA

1.4.1

Ondoren tipologia bakoitza eta jasan duen bilakaera zehazten dira:

KALEA: Prostituzio mota horretan aritzen den emakumeak, bezeroa bilatu egin behar du, eta jarduera horretarako alokatzen den eta bere bizilekua ez den lekuetan burutu ohi du. Normalki, emakume bakoitzak aurrez ezarritako leku bat izan ohi du, eta bezeroaren bilaketa kalean zein zona konkretu eta mugatueta kokaturiko ostalaritza lokaletan eman daiteke.

Irabaziak faktore batzuen arabera izan ohi dira: lan orduak, transakzioan parte hartzen duten bitartekariak eta urteko garaia. Normalki, baldintza horietan lan egiten duen emakume batek, harreman bakoitzeko 2.000 edo 3.000 pezeta irabaz ditzake.

Duela hogeit hamar urte, prostituzioaren sektore hori zen zabalduen zegoena, baina harrez gero funtsezko aldaketa sortu da. Horretan jarduten zuten emakume gehienak espainiarrak

ziren, baliabiderik gabeko familietakoak, normalki gazte ezkongabeak eta bere kargupean seme-alabak zituztenak.

Gaur egun talde horretako emakumeei Prostituta klasikoak deitzen zaie. Emakume horiek berrogeita hamar urtetik gorakoak dira, ez dute ordezkatu dituen belaunaldi berri bat atzetik, eta normalki leku berberetan jarraitzen dute bere jardunarekin. Bezeroak bereganatzeaz gain, hitzorduak jartzen dituzte, eta "lagun zaharrak" bezala definitzen dituztenengana jotzen dute. Gehienez, prostituzio klasikoan aritzen diren emakumeek ez dute baliabide ekonomikorik eta bere jarduerarekin lortzen dutenaren bidez, IMItik jasotzen dutenarekin eta zenbait elkarteri esker bizi dira. Elkarrekin horiek, prostituzioan aritzen diren emakumeei laguntza ematen dietenak dira.

90eko hamarkadan, kaleko prostituzioaren bilakaeran inflexio puntu bat hasi zen, eta 1995. urtetik aurrera nabarmentzen da; hau da, hain zuzen prostituzioan aritzeko asmoz atzeritarraren etorrera handia gertatzen den unea.

Une horretan, kaleko prostituzioaren eskaintza drogaren menpeko emakume eta paperik gabeko atzeritarren artean osatzen da. Toxikomania arazoak dituzten emakumeen sarrerak aldaketak eragin ditu sektorean. Aldaketa horien artean prezioaren jaitsiera eta segurtasun ezaren igoera nabarmendu behar dira. Normalki emakume horiek gazteenak eta baztertuek izan ohi dira, eta gatazka gehien dituztenak. Prostituzioaren jardueran ibiltzearen arrazoi estupezkiekin kontsumoan bertan dago.

Kaleko prostituzioan jarduten duten emakumeen artean, badira egoitzari dagozkion hiru hilabeteak pasa eta arauzko paperik gabeko emakume atzeritarrak. Azken finean, klubak utzi eta kalean lan egiten hastea poliziaren eskutik etor daitekeen atxilotu eragozteko modu bat da, kalean kontrola murriztagoa baita eta errazagoa da ihes egitea.

Badira beste zenbait arrazoiengatik klubak uzten dituzten emakumeak. Hala nola, kontrol zehatz baten menpe egoteari uko egitea, edo maizago gertatzen dena: emakume gazteagoengandik ordezkatu izatea. Prostituzio munduaren barruan, kalean lan egiten duten emakumeek geruza marjinala osatzen dute, eta beraiek dira baldintza txarretan lan egiten dutenak (segurtasun zein osasun mailan).

KLUBAK: Klub bezala, bere barruan bezeroekin harremanak izateko beraien zain dauden emakumeen lokala ulertzen da. Taberna baten antzeko ezaugarriak ditu, bezeroei edariak ateratzen baitaizkie. Bezeroekin gauzatzen den harremana lokalean bertan burutu daiteke, edo hurbileko etxebizitzetara jo daiteke. Klubak hirietan zein errepideetan egon daitezke; batzuk Plaza Sistemaren bidezko funtzionamendua dute. Zenbait kasutan, emakumeek egoitza klubean bertan daukate.

Plaza Sistema ondokoan datza: hainbat lokaletako emakumeak txandakatzen dira, eta lokal bakoitzean gutxi gorabehera 21 eguneko egonaldiak egiten dituzte, menstruazio garaia dagozkionak hain zuzen ere. Eraginkortasun eta ahalik eta aprobetxamendu handiena lortzeko ildo horretan, errotaziorako beste zenbait arrazoi ere aipatzen da. Adibidez era horretan, bezeroak emakume bat gutziaztea eragozten da, eta, gainera, emakumeek elkarren artean adiskidetasun erlazioak garatzea ere kontrolatzen da, era horretan beraien isolatzea areagotuz eta kontrol gogorragoa ezarri.

Normalki, sareen bidez prostituzioa gure herrialdean gauzatzera datozen emakume atzerri-tarrak lana klubetan antolatua izanik etorri ohi dira. Emakume horiek eramaten dituzten klu-bak ez dute derrigorrez EAEn egon behar, eta emakumeak estatu espainiarreko lokaletan zehar txandakatuz ibili daitezke.

Azken hamar urteotan, lokal horien kopuruaren gorakada handia izan da, prostituzioan jar-duteko asmoz emandako emakumeen immigrazio jendetsuaren fenomeno dela eta. Ez da erraza gertatzen estatuko emakumeak aurkitzea sistema horretan lan egiten. Gainera, azken bost urteotan, auzotarren kexuak eta beste faktore batzuk direla medio, lokalak bere lan sistema aldatuz joan dira. Kontaktuak zita etxeetara desbideratzen dira eta era horreta-ko lokalen kopuruak hiri inguruan gora egin du, era eraginkorrago batean bermatzen baitu-te bezeroaren anonimatua.

Klubaren barruan ere mailak daude: goi estatus, erdi mailako estatus edo behe mailako esta-tusekoak izan daitezke. Errepideetako klubetan ez dute estatus handirik izaten, eta logiko-ki lan baldintzak okerragoak dira, nahiz eta txandakatzea handiagoa izan. Prezioen arteko aldeak paseko 10.000 pezeta eta 3.000-4.000 pezeta artean ibiltzen dira. Klubaren katego-ria, normalki, kokaturik dagoen auzoaren ezaugarrietan oinarrituz ezartzen da.

Klubaren arteko desberdintasun ezaugarri bat zera da: batzuetan prostituzioan aritzen diren emakumeak bertan bizi dira, eta arrazoi horrengatik finkaturiko prezio bat ordaindu behar dute, eta, beste batzuetan, bizi diren etxeetatik joaten dira klubera. Kobratzeko orduan ere hainbat modalitate daude: zenbait klubetan gaueko zati finko bat ematen zaie, beste ba-tzuetan %50 itundu egiten da, eta beste batzuetan, kopuru bat ematen da eta gainerakoa emakumearentzat izaten da.

ETXEBIZITZAK: Aurreko bi modalitateez gain, badira prostituzioa etxebizitzetan gauzatzen duten pertsonak ere. Modalitate horren barruan lan egiteko hainbat modu daudela ikusten dugu. Ondoren zehazten direnak hain zuzen ere:

- "Alternerako lokala": Modu horretako etxebizitzak badu alternerako lokal baten itxura zenbait alderditan. Bertan lan egiten duen neska kopurua zabala da, eta "hegoamerika-rrak" nagusitzen dira espainiarrekiko. Gainera, era guztietako zerbitzuak eskaintzen dituz-te eta diruak bakarrik du garrantzia, ez joera sexualek. Zerbitzuaren zenbatekoa dirutan zein kreditu txartel bidez ordain daiteke. Zerbitzuaren kostua "Taximetroaren" arabera da, hau da, denborari dagokionez /(20 min, 30 min, 45 min, ordu bete...) aukera zabala, edozein izanik hautaturiko zerbitzua. Normalki, era horretako lokalak egun osoan zehar egoten dira zabalik eta, gainera, neskek lokal barruan bakarrik egiten dute lan, eta ez dira hotel edo bizilekuetara joaten.
- "Lagunak": Normalean bi edo hiru neska izan ohi dira, eta, gainera, ez dituzte era guztie-tako zerbitzuak burutzen, ezatseginak iruditzen zaizkienei uko egin ohi diete (normalki griegoa, sadomasoa...). Horrez gain, ordaintze sistema desberdina da, eta dirutan ordaintzea bakarrik onartzen dute. 30 minutuko unitate bakoitzeko ordaintzen da. Neska horien lan ordutegia murriztagoa da, gutxi gorabehera goizeko 10etatik gaueko 8etara egiten dute lan. Lokaletan gertatzen den bezala, etxebizitzatik kanpora ez dute inolako zerbitzurik burutzen.

- "Masajea": Kategoria honen barruan, suposatzen da neskek ez dutela sexu harremanik izaten bezeroekin, masaje terapeutikoak eta jolas erotikoak bakarrik (nahiz eta Hiesaren aurrakako Komisioak preserbatiboak ematen dizkieten). Zerbitzuen izaera dela eta, era horretako etxebizitzetan beharrezkoa gertatzen da aurrez ordua hartzea. Ordutegia aurreko kategorikoaren antzekoa da: goizeko 10etatik gaueko 8etara.
- "Madame": Telefonoa hartzen duen pertsona etxebizitzako jabea eta negozioaren arduraduna izaten da; ordutegia gutxi gorabehera goizeko 10etatik gaueko 8etarakoa izaten da eta etxebizitza horietan lan egiten duten nesken kopurua txikia da normalki. Lagunak aurkitzen diren etxebizitzetan gertatzen den bezala, ez da kreditu txartelik onartzen ordaintzeko orduan, eta Lagunen kasuan bezala ez da edozein zerbitzu mota eskaintzen.
- "Pertsona bakar bat": Izenak adierazten duen gisara, kasu honetan pertsona bakar batek egiten du lan etxebizitzan, eta berak erabakitzen ditu egiten dituen zerbitzuak eta kobratzen dituen prezioak.

Prostituzio mota horretan, era horretako lokaletan aritzen diren estatuko emakumeen portzentajea beste modalitateetan baino altuagoa da, nahiz eta gero eta emakume atzerritar gehiago dagoen. Azken urteotan, etxebizitzak kopuruak gora egin du nabarmenki, eta batez ere Alternerako Lokalak izeneko tipologiari dagokionez.

Horrela lan egiten duten atzerritarrak "mami" deituriko emakume heldu baten begiradapean egon ohi dira. Berarekin joaten dira norabait joateko beharra izanez gero: medikuarengana, ile apaindegira.

Etxebizitzetan aritzen diren estatuko emakumeek ez dute prostituzio klasikoan aritzen direnen profil bera. Etxebizitzetan aritzen diren emakumeak kategoria handiagokotzat jotzen baitira gehienetan, eta zenbait kasutan Goi Standing delakoak izaten dira.

Zenbait kasutan, bizitza bikoitza duten emakumeak dira. Hau da, dirua lortzeko prostituzioaren jarduerari ekin dioten etxekoandreak, edo bere ikasketak ordaindu eta bere bizitza maila igotzeko asmoz noiz edo noiz jarduera horretan aritzen diren ikasle gazteak. Emakume horien osagai komuna ondokoa da: prostituzioan aritu arren ez dute beren burua prostitutatzen jotzen, gauza iragankor bat dela kontsideratzen dute, diru iturri gehigarri bat bakarrik denbora mugatu batez. Tipologia horren barruan zenbait kategoria daudela esan badugu ere, batezbesteko bezala, 8.000 pezeta kobratu ohi da ordu erdiko harreman bategatik.

Duela zenbait urte etxebizitzak egon egongo ziren, baina ez ziren ezagutzen, eta ez zen inola ere ohikoa egunkarian iragarki bat ezartzea bere zerbitzuak eskaintzeko. Gaur egun, edozein egunkaritan aurki daiteke prostituzioa burutzen den etxebizitzaren eskaintza zabala, eta Interneten ere ezaugarri berdinak dituzten iragarkietan espezializaturiko orri asko aurki daitezke.

Prostituzio mota hori da inkontrolatuena, eta oso zaila gertatzen da etxebizitzak kokapena eta bertan aritzen den emakumeen kopurua zehazki ezagutzea.

GOI STANDINGa: Gaur egun, batez ere estatuko emakumeak dira prostituzioan aritzen direnak Luxu Sektorean; hau da, hoteletako prostituzioa, akonpainamendu agentziak... Gehienak neska gazteak edo oso presentzia onekoak izan ohi dira, gizarte eta kultura maila

handia dutenak. Horietako batzuk, noizean behin bakarrik aritzen dira prostituzioan gainsoldata bat jasotzeko asmoz, eta normalean beste ogibide batean aritzen dira edo unibertsitateko ikasleak dira. Agentziaren baten bidez lan egiten dutela ere uste da. Txosten kualifikatuei esker ezagutzen ditugu datu horiek, baina datu konkreturik ez da jaso ahal izan.

Ez da zehazki ezagutzen prostituzio mota horretan jarduten duten emakumeen profila, ez eta kopurua ere. Eta ia ezinezkoa da ezagutzea, emakume horiek beren buruarekiko duten pertzepzioa dela eta, ez baitute beren burua prostitutatzat jotzen.

BILAKAERA

1.4.2

Bilakaera nabaria da hiru lurralde historikoetan. Arabatik hasita, kaleari dagokionez, esan daiteke prostituzio klasikoan aritzen diren espainiar naziotasuneko emakumeak ia erabat desagertu direla. Eta gaur egun, modalitate horren barruan, kolonbiarrak, marokoarrak, dominikarrak eta espainiarren bat edo beste aritzen da. Hori bai, kalean prostituzioan jarduten duten emakumeen kopuruak behera egin du.

Antzeko fenomenoak gertatu da etxebizitzetan ere: gaur egun Vitoria-Gasteizko etxebizitza eta klubak kopurua oso murriztu da, eta aldiz, inguruetako klubak kopuruak gora egin du, batez ere errepide nagusietan (N.1). Etxebizitzetan zein klubetan gazte atzerritarren kopuruak gora egin du, eta estatuko emakumeen kopuruak, aldiz, nabarmen egin du behera.

Ondoren, Bizkaiko Lurralde Historikoa aztertzen badugu, kaleko tipologian bilakaera Arabakoaren oso antzekoa dela ikusiko dugu. Kalean aritzen diren emakumeen kopurua asko jaitsi da, eta gehienak atzerritarrek dira, zehazkiago Latinoamerikatik etorriak. Gainera, Bilboko Las Cortes izeneko auzoan, prostituzioan aritzen diren emakumeen talde txiki bat sortu da.

Bestalde, idatzitako prentsan agertzen diren iragarkiak zenbatuz, etxebizitzetako kopuruak gora ikaragarri egin duela ikusiko dugu. Era berean, Latinoamerikako eta Ekialdeko herrialdeetatik etorritako emakume atzerritarren kopuruak ere gora egin du. Bilbon, auzotarren kexuen ondorioz itxitako altxerako lokalek ekarri dute neurri batean etxebizitzetako ugartzea. Hau da, etxebizitza kopurua beherantz doa hiriburuan, eta horrek etxebizitzetako inguruetako altxerako lokalen ugartzea eragiten du.

Bukatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren bilakaeran, ikus daiteke Donostiako hirian kaleko prostituzioa erabat desagertu dela; etxebizitzetako kopurua ez, ordea. Logikoki, inguruetan eta gainerako lurraldean, lokalen kopuruak gora egin du. Beste bi lurraldeetan bezala, ez da ia estatuko emakumerik geratzen, emakume kolonbiar, marokoar eta dominikarren kopuruarekin alderatuz gero.

ZENBAKETA

1.5

Orain arte, EAEko prostituzioaren tipologia ez dira zenbatu, zenbaki konkretu bat eskaintzea oso zaila gertatzen baita. Prostituzioan aritzen diren emakumeek biztanleria mugikorra osatzen dutela da zailtasun horren iturria. Hau da, batetik bestera asko mugitzen dira emakume horiek, bai klubetan zein etxebizitzetan.

Etxebizitzaren tipologia dagokionez, prentsan eta Interneten azalduko iragarkiak bakarrik hartu dira kontuan erreferenteak zenbatzeko orduan. Baina ustea da iragartzen diren etxebizitzak ez direla dauden guztiak. Hori dela eta, EAEko etxebizitzaren kopuru globala kontrolatzina gertatzen da. Iragarkietan azaltzen diren etxebizitza horietan lanean aritzen diren emakumeen kopurua zehazteko, etxebizitza horietara telefono deiak egin dira, eta ezaugarri beretako etxebizitza bakoitzeko emakume kopuru bera estimatu da.

Klubei dagokionez, zenbaketa sakonagoa eta zehatzagoa izan da. Establezimendu mota horretako guztizko kopurua, EAEko udalerrietako Udaltzaingora eginiko deien bidez jaso ahal izan da.

Kaleari dagokion zenbaketa egin ahal izateko, hainbat elkarte eta esparru horretan lan egiten duten pertsonen igorritako informazioa egituratu da.

EAE-KO IKUSPEGI OROKORRA

1.5.1

Ondoren, EAEn prostituzioari buruz jasotako datuak aztertuko dira. Lehendabizi, prostituzioaren jarduerako kopuru eta lekuez arituko gara, eta ondoren EAEn tipologia bakoitzean aritzen diren emakumeen kopurua zehaztuko da.

1. TAULA. EAEko klub, etxebizitza eta kaleko prostituzioaren kopuruak

KALEA		HIRIBURUKO KLUBAK		GAINONTZEKO LURRALDEKO KLUBAK		ETXEBIZITZAK*	
			%		%		%
Araba	BAI	9	21	8	14	8	6
Bizkaia	BAI	27	63	24	41	87	66
Gipuzkoa	EZ	7	16	27	45	37	28
GUZTIRA		43		59		132	

Iturria: Geuk egina.

* egunkarietan eta Interneten iragarritakoak soilik.

1. Taulan prostituzioa hiru lurralde historikoetan gauzatzen dela egiazta daiteke. Gainera, Bizkaian –kaleko prostituzioa gauzatzeaz gain– klub eta etxebizitzaren kopurua beste lurralde historikoetako baino handiagoa dela ere egiazta daiteke.

Kaleko prostituzioaren jarduerari buruz, nabarmendu daiteke Gipuzkoan ez dela ematen fenomeno hori, baina aldiz, Arabako Lurralde Historikoan, zein Bizkaiko Lurralde Historikoan badirau oraindik.

Lurralde bakoitzeko hiriburuan kokaturiko klubei dagokionean, ikus daiteke Bilbao dela era horretako lokalen portzentajea handiena duena, hiru euskal hiriburuetan dauden lokalen %63k Bilbon baitu bere kokagunea.

Klub gutxien dagoen hiriburua Donostia dela ere garbi ikus daiteke, hiriburu hori eta Arabakoaren arteko diferentzia oso txikia bada ere. Biek, EAEko hiriburuetan kokaturik dauden klubak %16 eta %21 biltzen dute hurrenez hurren. Horren ordean, Gipuzkoa da klub gehien dituen lurralde historikoa, klub guztien %45 biltzen baitu. Bere atzetik Bizkaiko Lurralde Historikoa dugu, eta EAEko hirigunez kanpoko klubak kopuru osoaren %41 biltzen du.

Azken tokian, Arabako Lurralde Historikoa azaltzen da: hiriburuetatik kanpo dauden klubak %14 bakarrik du. Araban, beste bi lurralde historikoekin alderatuz, klubak kopurua txikia da: guztira 17 klub baino ez daude (hiriburua gehi gainerako lurraldea), Gipuzkoan aldiz 34 eta Bizkaian 51. Beraz, Araba da hiru lurralde historikoen artean klub kopuru txikiena duena.

Dena dela, lurralde bakoitzean ematen den prostituzio maila gainerakoekin alderatu ahal izateko, lurralde bakoitzean prostituzioan aritzen diren emakumeen zenbaketatik gain lurralde horretako biztanle kopurua hartu beharko litzateke aintzakotzat. Horrela, lurraldeen artean sektoreko jarreretan dauden desberdintasunak ikus daitezke.

10.000 biztanleko prostituzioan aritzen den emakumeen kopurua:

ARABA:	12,1
BIZKAIA:	7,8
GIPUZKOA:	7,9

Datu horien bidez, Bizkaian eta Gipuzkoan biztanle kopuruarekiko prostituzioan aritzen diren emakumeen kopurua kasik parekoa bada ere, kopuru horrek Araban nabarmenki gora egiten duela (lau puntu baino gehiago gainera) frogatzen da.

Beste datu osagarri bat, lurralde arabarraren izaera beste lurraldeekiko nabarmen duena, ondokoa da: hiru lurralde historikoetako hiriburuetan prostituzioan jarduten duten emakumeen portzentajea eta gainerako udalerrietan jarduten duten emakumeen portzentajearen arteko erlazioa. Araban, hiriburuaz kanpo kokaturiko klubetan, 10.000 biztanleko 26,6 prostituzioan aritzen dira. Hiriburuan aldiz, kopuru hori 7,5ekoa da. Datu horiek bereziki adierazgarriak dira, biztanleriaren %76,02 Vitoria-Gasteizen biltzen den herrialde batean.

10.000 biztanleko, prostituzioan aritzen den emakume kopuruari dagokion datuarekin gertatzen zen bezala, hiriburua eta gainerako lurraldearen arteko bereizkuntzan ere, Bizkaia eta Gipuzkoan darabiltzagun zenbakiak antzekoak dira beraien artean (10.000 biztanleko, prostituzioan jarduten duten emakumeen kopurua handiagoa da hiriburuetan gainerako lurraldean baino, Arabaren kasuan ez bezala, biztanleria hiriburuan hain kontzentratua ez egon arren), eta Arabakoen alderantzizkoak.

Beraz, lurralde arabarra da portaera desberdina azaltzen duena. Portaera horren oinarria hiriburutik kanpo kokatzen den klubaren kontzentrazioan aurkitzen da, bereziki Vitoria-Gasteizek biltzen duen biztanle kopuruarekin alderatuz gero.

Aintzakotzat hartzeko moduko faktore bat klub horiek lurraldearen barruan duten kokalekua da. Hau da, ea klubak hiriburuarengandik hurbil aurkitzen diren eskualdeetan kokatzen diren, edo aldiz, urrunagoko eskualdeetan kokatzen diren. Informazio hori ezagutzeko ondo-ko taula aztertu behar dugu. Taula horretan gainerako lurraldeko klubak eskualdeka kokatu-ko ditugu.

2. TAULA. Hiriburutik kanpo dauden klubaren eskualdekako banaketa

LURRALDE HISTORIKOA	ESKUALDEA	KLUBEN KOPURUA
ARABA	Arabako Bailarak	0
	Arabako Lautada	6
	Arabako Mendialdea	0
	Arabako Errioxa	2
	Gorbeialdea	0
	Arabako kantabriarra	0
BIZKAIA	Arratia-Nerbioi	0
	Bilbao handia	19
	Durangaldea	4
	Enkarterriak	0
	Gernika-Bermio	0
	Markina Ondarroa	0
	Plentzia Mungia	1
GIPUZKOA	Bidasoa Behea	8
	Deba Behea	1
	Deba Garaia	2
	Donostia	5
	Goierri	2
	Tolosaldea	6
	Urola Kosta	3

Iturria: Geuk egina.

2. Taula arretaz begiratzen badugu Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten sei eskualdeetatik klubak bitan bakarrik aurki daitezkeela ikusiko dugu. Bi eskualde horiek Arabako Lautada eta Arabako Errioxa dira. Lehenengoak du klub kopururik handiena eta eskualde

horrek Vitoria-Gasteiz du bere barruan. Ondorioz, esan daiteke, hiriburutik kanpo kokaturiko klubak berarengandik hurbil daudela.

Beste klubak kasik lurraldearen mugan daude, Arabako Errioxa eskualdean baitaude kokaturik. Bi eskualde horietako klubak artean bada ezaugarri komun bat, eta zera da: Arabako Lurralde Historikoan hiriburutik kanpo kokaturiko klub guztiek plaza sistemarekin lan egiten dutela.

Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, bere zazpi eskualdeetatik klubak hirutan bakarrik daudela nabaritu daiteke. Klub gehien dituen eskualdea Bilbao Handia deiturikoa da. Eskualde horrek, Arabaren kasuan bezala, lurraldeko hiriburua bere barruan du. Hau da, berriro ere Bilbon kokaturik ez dauden klubak kopuru handiena, hiriburuaren inguruko gunean dago.

Durangeldea eta Plentzia-Mungia dira klubak dituzten beste bi eskualdeak –baina neurri txikiagoan–. Biak lurraldearen erdi-erdian kokatuta daude eta gainera aintzakotzat hartu behar da Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan, Bilbao Handiaren ondoren, Durangeldea dela biztanle gehien duen eskualdea. Klub horien tipologia era askotakoa da, goi mailatik hasi eta maila ertain-behe artekoa.

Eskualdekako azterketa amaitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruz hitz egingo dugu. Jadanik esan dugu hiriburutik kanpo klub gehien dituen lurraldea dela. Hori, eskualdekako azterketa taula horretan aurkeztutako datuen bidez egiazta daiteke. Argi eta garbi ikus daiteke lurralde hori zazpi eskualdez osatzen dela eta eskualde guztietan aurki daitezkeela klubak.


Kasu horretan, bere barruan klub kopuru handiena duen eskualdea Bidasoa Behea da. Eskualde hori hiriburua bere barruan duen eskualdearen aldamenean eta Frantziako mugan dago. Ondoren Tolosaldea aurkitzen da, hori ere Donostiako eskualdearen mugakide delarik. Donostia eskualdeak hirugarren lekua hartzen du Donostiatik kanpo kokatzen diren klubak kopuruaren zerrendan.

Informazio horri esker, ondoriozta daiteke Gipuzkoako lurraldean hiriburutik kanpoko klubak kokapena desberdina dela, klub gehienak ez baitira hiriburuaren inguruan kokatzen, eta gainera eskualde guztietan aurki daitezke.

Lurralde historikoetan hiriburuetatik kanpo dauden klubak banaketa era egokiagoan azaltzeko asmoz, ondorengo mapa prestatu da. Zenbait tonutan biztanleria dentsitatea ikus daitekeen EUSTATen mapa baten gainean, hiriburuetatik kanpo kokatzen diren klubak dituzten EAEko eskualde guztiak itzalez estali dira.

Horrela, hurrengo orriko grafikoan argi eta garbi azaltzen da Gipuzkoako Lurralde Historiko osoa itzalez estalita dagoela. Aldiz, Bizkaia eta Arabako lurralde historikoetan, era horretako klubak dauden eskualde konketuak baino ez dira azaltzen itzalez estalirik. Bitxia den arren, eskualde horiek ez dira beti demografi dentsitate handiena dutenak.

1. MAPA. Biztanle Dentsitatea eta hiriburutik kanpoko klubak dituzten gunak



MAPA Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitzaren estatistika, 1997
ITZALEZ ESTALIA: Geuk egina

Ondoren etxebizitzetako buruz jasotako datuak aztertuko dira. Gogoan hartu behar da beste behin ere, ikerketa honetan zehar egunkarietan eta Interneten iragarritako etxebizitzaren inguruan bakarrik arituko garela. Eta horiek ez direla, noski, prostituzio jardueran izaten diren etxebizitzaren kopuru osoari dagozkionak.

1. Taula berrikusten badugu, nabaria da prostituzioari dagozkion etxebizitzaren kopurua dezente aldatzen dela lurralde historikoaren arabera. Zenbaturiko etxebizitza guztiak lurralde historikoetako hiriburuetan daude, eta gainerako lurraldeari dagokionez ez dakigu izan badiren.

Horietako kopuru handiena Bilbon dagoela nabarmendu daiteke, hots Bizkaian. Era horretako etxebizitzaren %66 Bizkaiko Lurralde Historikoan daude, aldiz Gipuzkoan etxebizitza kopuru osoaren %28 dago. Azkenik, Arabako Lurralde Historikoan, prostituzioan jarduten den etxebizitzetako %6 bakarrik daude. Etxebizitza horiek, prentsan eta Interneten iragartzen dira eta bezeroak bereganatzea dute helburu.

Ondoren aurkezten den taulan egunkariaren bidez jasotako datuak sistematizatzen dira. Taula horretan ikus daitekeen legez, telefono gehienak 906 aurrizkiei edo telefono mugikorreari dagozkienak dira. Ondorioz, telefono horiek lekutzea ezinezkoa gertatzen da. Horrek, ikerketan zenbaturiko etxebizitzak baino askoz gehiago daudenaren ideia egiaztatzen du.

3. TAULA. Egunkarietako harreman iragarkien sistematizazioa

IRAGARKI MOTA	El Correo Español Bizkaiko Argitalpena (XI-9)	El Correo Español Bizkaiko Argitalpena (XI-12)	El Correo Español Gasteizko Argitalpena (XI-14)	El Diario Vasco (XI-12)	El Diario Vasco (XI-18)
Nesken Iragarkiak	486	522	140	139	186
906 Iragarkiak eta					
Atzerriarrak	216	252	231	160	158
Mugikorrak	98	115	59	40	71
Madrid	1	1	0	1	0
Castro	2	2	1	0	0
Mutilak	8	8	14	10	25
Beste batzuk			100 (Bilbao)		
GUZTIRA	811	900	545	350	440

Iturria: Geuk egina.

Nabarmena da, ikus daitekeenez, azaltzen diren iragarkiak asko direla. Eta gainera kontuan hartu behar da iragarki gehienak neskei buruzkoak direla. Era berean, argitu egin behar da, iragarki horiek errepikatu egiten direla. Hau da, telefono zenbaki bera behin eta berriz azaltzen da. Hori dela eta, 1. Taulan ikus daitekeen etxebizitzaren kopurua desberdina da, bertan egunkarietan iragarritako hainbat etxebizitzetako telefono zenbakiak agertzen baitira. Zerrrenda hori, kontaktuei buruzko web orrialde batean aurkitutako etxebizitzaren telefono zenbakien kopuru txiki baten bidez osatu zen (www.inforelax.com).

1. Taulan etxebizitzari buruzko ondorioetan gertatzen zen bezala, iragarkien kopuruei dago-kienez ere esan daiteke Bizkaia dela iragarki kopuru handiena duen lurraldea. Kasu horretan Arabak jarraituko lioke. Bitxia da Araban aurki daitekeen Bizkaiko hiriburuen kokaturiko etxebizitzaren iragarki kopuru altua. Hirugarren lekuan Gipuzkoa dago iragarki kopuru txikiagoz, baina etxebizitza kopuru handiagoz.

4. Taulan bezeroaren arreta eskuratzeko asmoz, prentsan azaltzen diren erakargarri erabilienak bereizten ditugu. Horren asmoa hiru lurralde historikoetako bakoitzeko etxebizitzek eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea da.

4. TAULA. Etxebizitzaren Erakargarri erabilienak lurralde historikoetako hiriburuen arabera

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Masajeak	Alternerako lokala	Estiloa
Beste batzuk	Masajeak	Karibearrak
	Luxua	Alargunak
	Partikularra	Masajeak
	Helduak	Euskaldunak
	Beste batzuk	Beste batzuk

Iturria: Geuk egina.

Egunkariko iragarkien sistematizazioa egiteko orduan, erakargarriak inprimaturiko iragarkien kopurua bezain aldakorrak direla ikus daiteke. Aurreko taulan aurkeztu direnak gehien errepikatzen direnak dira. Hala ere, "Beste batzuk" atalaren barruan aniztasun izugarria aurki daiteke. Batzuetan, eskaintzen den zerbitzua, emakumeen jatorria, prezioa, emakumeen egoera zibila eta abar luze bat zehazten da. Erakargarri horiez gain, bezeroak bereganatzeko beste estrategia bat ondokoa da: erakargarri desberdina izan arren telefono zenbaki bera duten iragarkiak jartzea. Horrela zenbait bezero motaren atentzioa eskuratzen da.

Ondoren, prostituzioan jarduten duten emakumeen kopurua eta beren jardueraren modalitatea nabarmendu nahi dira. Datu horiek 5. Taulan azaltzen dira.

5. TAULA. Prostituzioan jarduten duten emakumeen kopurua lurralde historiko eta jardueraren modalitatearen arabera

	KALEA	KLUBA HIRIBURUA	KLUBA GAIN. LURRALDEA	ETXEB.*	Guztira
Araba	30	102	180	30	342
Bizkaia	130	260	254	254	898
Gipuzkoa	0	72	348	120	540
GUZTIRA	160	434	782	404	1.780

Iturria: Geuk egina.


* egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

5. Taulan ikus daitekeen bezala, Bizkaia da emakume gehien dituen lurralde historikoa. Bertan 898 emakume zenbatzen dira, eta horiek kopuru osoaren %50 biltzen dute. Hau da, EAEn prostituzioan aritzen diren emakumeen erdiak Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten du lan. Gainera lurralde horretan jardueraren modalitateetan emakumeen banaketa berdintsua azaltzen da.

Araban zenbatutako emakumeek, 342, EAEn ogibide horretan jarduten duten emakumeen %19 baino ez dute biltzen. Bukatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 540 emakume aritzen dira prostituzioan; hau da, kopuru osoaren %31.

Datu horien irakurketa errazagoa gerta dadin, 5. Taulari ondorengo grafikoa gehitzen zaio. Horrela errazagoa da lurralde historikoen arabera alderaketa egitea.

1. GRAFIKOA. Jarduera leku eta lurralde historikoen arabera emakume kopurua



Iturria: Geuk egina.

* egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoa.

Hasteko "kaleko" prostituzioa izeneko modalitatean aritzen diren emakumeen kopuruari ekingo diogu. Bilbon 130 dira Las Corteseko gunean jarduten duten emakumeak. Vitoria-Gasteizen, ogibide hori kalean burutzen duten emakumeen zenbaketan 30 soilik azaltzen dira. Konparatiboki, prostituzio mota hori askoz handiagoa da Bilbon Vitoria-Gasteizen baino. Lehen esan dugunez, Gipuzkoan ez dago kaleko prostituziorik.

Ondoren, klubetan lan egiten duten emakumeen datuak aztertuko dira. Hasteko, hiriburutik kanpo lurralde historikoan zehar barreiatuak dauden klubetan lan egiten duten emakumeen datuak aztertuko ditugu. Ikus dezakegu EAE guztian 782 emakume direla tipologia horretan aritzen direnak.

Emakume horietako gehienek (%45) Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten dute; Lurralde Historiko hori da ezaugarri horietako klub gehien dituen. Aldiz, Bizkaian 254 emakume (%32) jarduten dute era horretako klubetan eta Araban 180 emakume soilik (%23). Araban, Gipuzkoan bezala, kopuru horrek lurralde historikoaren barruan prostituzioan aritzen diren emakumeen kopururik handiena biltzen du.

Hiriburuetako klubetan prostituzioan jarduten duten emakumeen kopuruari dagokionez, ikus daiteke Bilboko kopuru handiena biltzen duena (260 emakume, EAEko emakumeen kopuru osoaren %60). Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan modalitate horretan azaltzen da emakume kopururik handiena.

Vitoria-Gasteizen, 102 dira bertako klubetan prostituzioan aritzen diren emakumeak; Donostian berriz, 72 dira lokal horien barruan aritzen diren emakumeak. Vitoria-Gasteizek modalitate horren barruan jarduten duten emakumeen %23 biltzen du, eta gainerako %16

Donostian aurkitzen dira. EAEko hiriburuetakoko klubetan prostituzioan jarduten duten emakume gehienek Bilbon jarduten duela da ondorioa.

Azpiatalarekin bukatzeko, egunkarietan eta Interneten iragarritako etxebizitzetan jarduten duten emakumeen kopurua aipatuko dugu. Aurreko kasuan bezala, etxebizitzetan jarduten duten emakume gehienek Bilbon jarduten dute. 254 emakume dira eta EAEn iragarritako etxebizitzetan prostituzioan jarduten duten emakumeen %63 biltzen dute.

Bigarren tokian era horretako prostituzioan Donostian aritzen diren emakumeak daude. Kopurutan, 120 emakume dira, kopuru osoaren %30 suposatzen dute. Vitoria-Gasteizen iragarritako etxebizitzetan prostituzioan jarduten duten 30 emakume besterik ez daude, eta portzentajeei dagokionez %7 da.

Ondoren, lurralde historiko bakoitzari dagokion azterketa zehatza egingo dugu, bai prostituzio jardueraren lekuei zein beraietan aritzen diren emakumeei dagokionez.

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

1.5.2

Ondorengo taulan prostituzio jarduerak dituzten lokalen kopurua ikus daiteke, modalitateen arabera, baita lokal horietan prostituzioan jarduten duten emakumeen kopurua ere.

6. TAULA. Arabako prostituzio lokalen kopurua eta bertan jarduten duten emakumeena

MOTA	VITORIA-GASTEIZ	GAINON. LURRALDEA	EMAKUME KOPUR. VITORIA-GASTEIZ	EMAKUME KOPUR. GAINON. LURRALDEA	ARABAKO GUZTIZKOA
KALEA	BAI	-	30	-	30
ETXE*	8	-	30	-	30
KLUBA	9	8	102	180	282
GUZT.					342

Iturria: Geuk egina.

* soilik egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

6. Taulan lurralde historikoaren barruan guztira 17 klub daudela nabarmentzen da. Horietako bederatzia, hau da, %53, Vitoria-Gasteizen kokatzen dira, eta beste zortziak (%47) gainerako lurraldean zehar sakabanaturik daude.

Gainerako lurraldean dauden klubak –zehazkiago bi eskualdetan, 1.5.1 atalean ikusi dugun bezala– plaza sistemaren bidez funtzionatzen dute. Horietan lan egiten duten emakume gehienak atzerritarrak eta gazteak dira (ez dago 30 urtetik gorakorik).


Hirian, klubena kategoria Goi mailakoa, Ertaina eta Behe mailakoa da, eta klub horietan lan egiten duten emakume gehienak atzeritarrak dira. Dena den, badira estatuko emakumeak ere, atzeritarrak baino helduagoak diren arren.

Klub horietan 282 emakumek egiten dute lan. Hiritik kanpoko lurraldean klub gutxiago egon arren, emakume gehiagok egiten dute lan, lokal horiek handiagoak izaten baitira. Klubetan lan egiten duten emakumeen %64k hiritik kanpoko lurraldeko klubetan jarduten dute, eta gainerako %36k Vitoria-Gasteizko klubetan.

Arabako Lurralde Historikoan, hiriburuan zein gainerako lurraldean, klubetan lanean diharduten emakumeak Araba osoan edozein modalitatetan prostituzioan jarduten duten emakume guztien %82 dira.

Arabako Lurralde Historikoan lan egiten duten emakumeen portzentajeak argiago ikusteko, ondorengo grafikoa aurkezten da:

2. GRAFIKOA. Emakumeen ehunekoa jarduera lekuaren arabera Araban



Iturria: Geuk egina.

*Egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

Grafikoa begiratzuz, emakume horien erdia baino gehiagok (%52) Arabako Lurralde Historikoan zehar sakabanaturiko klubetan jarduten dutela egiaztatzen da. Gainera, emakume horien %30ek Arabako hiriburuko klubetan jarduten dutela ikus daiteke.

6. Taulara itzuliz, Kaleko tipologiaren barruan prostituzioan aritzen diren emakumeak 30 besterik ez direla egiaztatzen da. Hori Araban prostituzioan aritzen diren emakumeen kopuru osoaren %9 da. %9 hori, klubetan prostituzioan diharduten emakumeei dagokion %82rekin alderatuz gero, atera dezakegun ondorioa zera da: Araban kaleko prostituzioa oso eskasa dela.

Prostituzioaren forma lurralde historiko horretan joera berrietarantz doa; hau da, klubetako prostituzioa lurralde osoan zehar zabaltzen da, eta zehazkiago hiriburuarengandik hurbil dauden eskualdeetan.

Arabako Lurralde historikoan dauden emakume eta etxebizitzaren kopuruari dagokionez, oso txikia dela egiaztatzen da. Hiriburuan iragarritako zortzi etxebizitza bakarrik daude. Etxebizitza horietan 30 emakumek egiten dute lan, Arabako Lurralde Historikoan prostituzioan aritzen diren emakume guztien %9.

Egunkarietan iragarritako etxebizitzetan prostituzioan aritzen diren emakume gehienak 18 eta 24 urte arteko latinoamerikarrak dira, 25 eta 30 urte arteko estatuko emakumeak ere badauden arren. Normalki masaje zentroa izan ohi da erabilitako iragarkia, baina bezeroarekin harreman sexualak izaten direla ez dute ukatzen.

Prostituzioan etxebizitzetan jarduten duten emakumeen proportzioa, Kaleko tipologiakoena bezala, oso txikia da. Ekintza horrekin, lurralde horretan aldaketa handia ematen ari den ideiak indar gehiago hartzen du. Horren arabera, klubak dira prostituzioaren jardueraren gune nagusia, eta gainerako modalitateak (kalea eta etxebizitzak) zaharkiturik ari dira gelditzen.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

1.5.3

Atal honen barruan Bizkaiko Lurralde Historikoan prostituzioaren fenomenoaz aztertuko da. 1.5.1 atalean adierazi bezala, Bizkaia prostituzioan jarduten duten emakume kopuru handiena duen lurraldea da. Hori, klub eta etxebizitza kopuru handiena duen lurralde historikoa izatearen ondorio zuzena da. Eta gainera, kaleko prostituzioan aritzen den emakume talde oparoa du Bizkaia.

7. TAULA. Bizkaiko prostituzio lokalen kopurua eta bertan jarduten duten emakumeena

MOTA	BILBAO	GAINON. LURRALDEA	BILBOKO EMAKUME KOP.	GAIN. LURRALDEKO EMAKUME KOP.	BIZKAIKO EMAK. OROTARA
KALEA	BAI	-	130	-	130
ETXE*	87	-	254	-	254
KLUBA	27	24	260	254	514
GUZT.					898

Iturria: Geuk egina

* Egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak

Fenomeno hori zein eratan gertatzen den aztertzeko 7. Taula eta 3. Grafikoa erabiliko ditugu laguntza moduan. Horrela, errazago ikusi ahal izango dugu emakumeen banaketa –portzentuak hitz eginez– jarduera modalitateen arabera.


Lurraldean 51 klub daudela ikusten da; horietatik %47 hiru eskualdetan zehar sakabanaturik daude. Gainerakoak, hau da, %53 Bilbao hiriburuan daude. Hots, hiriburuan gainerako lurraldean baino klub gehiago daude.

Hiriburutik kanpo dauden klubetan arreta jarritz, ikusiko dugu beraietan 254 emakumek egiten dutela lan; horrek Bizkaiko Lurralde Historikoan modalitate guztietan prostituzioan jarduten duten emakumeen kopuru osoaren %28 biltzen du.

Lurraldeko hiriburuan, Bilbon kokaturik dauden klubetan prostituzioan jarduten duten emakumeak, emakume guztien %29 dira. Hori dela eta, Bizkaian prostituzioan aritzen diren emakumeen %57 klubetan aritzen direla egiazta daiteke.

Datu hau argiago ikusi ahal izateko 3. Grafikoari begiratu dakioke.

3. GRAFIKOA. Emakumeen ehunekoa jarduera lekuaren arabera Bizkaian



Iturria: Geuk egina.

*Egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

Grafikoa begiratzean, lau kategoriatik hirutako prostituzio maila antzekoa dela ohar gaitezke (%28 eta %29koa).

Bilboko klubak maila desberdinetakoak dira (behe mailan hasi eta goikoraino, eta plaza sistema erabiltzen da). Gehienetan lokal horietan prostituzioan aritzen diren emakumeak atzeritarrek dira, nagusiki latinoamerikar gazteak. Behe mailako lokaletan aritzen dira estatutik etorritako emakumeak, helduagoak direnak (40 eta 50 urte artekoak).

Araban bezala, plaza modalitatean lan egiten duten emakumeak atzeritarrek dira. Arraroa da prostituzioan modalitate horretan aritzen diren estatuko emakumeak aurkitzea.

Gainerako lurraldeko klubei dagokionez, maila guztiak aurki daitezkeela ikusten da, eta hiriburukoetan bezala oso arraroa da estatuko emakumeak aurkitzea. Prostituzioan diharduten emakume gehienak latinoamerikar gazteak dira (18 eta 25 urte artekoak).

Ogibide horretako "kaleko" jarduerari dagokionez, prostituzioaren modalitate hori ugarien duen lurraldea Bizkaia dela egiaztatzen da. 130 dira era horretan aritzen direnak, eta hori Bizkaiko Lurralde Historikoan prostituzioan jarduten duten emakume guztien %15 da.

Lehenago esan dugunez, jardueraren modalitate horrek desagertzeko joera du. Datu zehatzik ez egon arren, pertsona adituei eginiko elkarrizketari eta aurrez egindako ikerketei esker, argi dago duela zenbait urte prostituzioa kalean burutzen zuten emakume gehiago zeudela.

Bilboko Las Cortes izeneko gunean prostituzioan diharduten emakumeen profila argia da: estatu guztitik etorritako 40 eta 50 urte arteko emakumeak dira. Neurri txikiagoan atzerri-tarrak ere badaude, eta baita emakume drogazale talde murriz bat ere, horien jatorria ere estatukoa izanik.

Ondoren, iragarritako etxebizitzetan eta bertan lan egiten duten emakumeen kopurua aztertuko da. Bilbon, egunkarietan eta Interneten iragartzen diren etxebizitzetan kopurua 87koa da. Iragarritako 87 etxebizitza horietan 254 emakumek lan egiten dutela estimatu da, hau da; Bizkaian prostituzioan aritzen diren emakume guztien %28.

Iragarritako etxebizitzetan lan egiten duten emakumeak atzeritarrak zein estatukoak dira, nagusiki. Baina atzeritarrak, batez ere latinoamerikarrak, estatukoak baino dezente gazteagoak dira. Estatukoak helduagoak izan ohi dira. Etxebizitzak ertainak, goi mailakoak eta goi standingekoak izan ohi dira; etxebizitzetan ere plaza sistema erabil daiteke, baina ez da ohikoa.

7. Taula kontuan hartuz, zera ikus daiteke, Bilboko etxebizitzetako emakumeak hiriburuko klubetakoekin eta kalean jarduten duten emakumeekin lotuz; hau da, Bizkaiko hiriburuan jarduten duten emakume guztiak batuz, emaitza zera da: lurralde honetan prostituzioan aritzen diren emakumeen %72a bere hiriburuan aritzen dela eta %28k soilik jarduten duela gainerako lurraldean.

Lurralde historikoan prostituzio fenomenoaren EAEko gainerakoaren desberdina dela ikus daiteke. Kasik ez dago prostituzioaren sakabanaketarik, eta, aldiz, lurraldeko hiriburuaren inguruan biltzen da ogibide horren jardueraren zati handiena.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

1.5.4

EAEko prostituzioaren gain begiradarekin amaitzeko, fenomeno horren azterketa egingo da Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

8. TAULA. Gipuzkoako prostituzio lokalen kopurua eta bertan jarduten duten emakumeena

MOTA	DONOSTIA	GAINER. LURRALDEA	DONOSTIA EMAK. KOP.	GAIN. LURRALD. EMAK. KOPURUA	GIPUZKOA EMAK. GUZT.
KALEA	EZ	-	-	-	-
ETXEB.*	37	-	120	-	120
KLUBA	7	27	72	348	420
GUZT.					540

Iturria: Geuk egina


* Egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak

Argi ikus daiteke lurraldean 34 klub daudela, horietatik %79 (27) lurralde osoan zehar sakabanaturik daude. Gainera, lurralde hori osatzen duten zazpi eskualdeetan klubak daude.

Lurraldeko hiriburuan, Donostian, 7 klub bakarrik daude, hau da, gainerako %21a. Desberdintasun handi hori, logikoa denez, hiriburuan lan egiten duten emakumeen kopuruan eta lurralde osoan lan egiten duten emakumeenean ere nabarmendu daiteke.

Lurraldean 348 emakume aritzen dira prostituzioan klubetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan prostituzioan aritzen diren emakume guztien %64 osatzen dute. Hiriburuko klubetan lan egiten duten emakumeak, emakume guztien %13 baino ez dira. Datu horiek era argiagoan ikusi ahal izateko, 4. Grafikoa aurkezten da.

4. GRAFIKOA. Emakumeen portzentajea jarduera lekuaren arabera Gipuzkoako Lurralde Historikoan



Iturria: Geuk egina.

*Egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

Grafikoan argi ikusi daitekeenez, lurraldean zehar sakabanatutako klubetan prostituzioan aritzen diren emakumeak dira ugarietak.

Grafikoa aztertzen jarraitu aurretik, lurraldeko klubetan lan egiten duten emakumeen profila zein den jakitea interesgarria gertatzen da. Gainerako lurraldeko klubetan zein hiriburu-koetan jarduten duten emakumeak atzerritarrak dira, eta zehazkiago latinoamerikarrak. Gainera, Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan bezala emakume gazteak izan ohi dira (18 eta 25 urte artekoak). Gipuzkoan kasik ez dago estatutik etorritako emakumerik, eta dauden bakarrak atzerritarrak baino dezente helduagoak dira.

Grafikoaren azpimarratzeko moduko beste kontu bat zera da: kaleko prostituziorik ez da ikusten. Ez da horrelako kasurik ematen hiriburuan ez eta gainerako lurraldean ere.

Iragarritako etxebizitzari dagokienez, Donostian 37 etxebizitza zenbatzera iritsi gara. Etxebizitza horietan 120 emakumek lan egiten dutela estimatzen da, eta hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan prostituzioan aritzen diren emakume guztien %13 da.

Gipuzkoan modalitate horretan prostituzioan aritzen diren emakumeak gazteak dira (18 eta 25 urte artekoak) jatorri latinoamerikarra dutenak, nahiz eta estatutik etorritakoak ere badauden, kopuru askoz ere txikiagoan bada ere.

Lehen zatian zehar esan den legez, prostituzioa aldatu egin da eta estatuko emakumeen kopuruak behera egin du atzeritarrenak (nagusiki latinoamerikarrak) gora egin duen heinean. Jarduten duen emakumearen profila aldatu egin den bezala, jardueraren forma ere aldatu egin da: kalea desagertu egin da, hiriburuko kluba ere bai, eta errepedeetako klubek gero eta garrantzia handiagoa hartu dute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan ikus daitezke, era egokienean, jarduten duen emakumearen profila, zein jardueraren modalitateak. Izan ere, kaleko jarduera erabat desagertu da eta etxebizitzak eta errepedeko klubak nagusitzen dira, eta horietan jarduten duten emakume gehienak latinoamerikarrak dira.

BIBLIOGRAFIA

ANDRIEU, R.; VÁZQUEZ, K. *Prostitución: de la marginación a la integración*. Ed. Institut Valencia de la Dona; 1987.

Askabide. *Jornadas sobre prostitución* 1997. Bilbao. Bilbon Askabidek antolatutako jardunaldiak 1997. urteko abenduaren 12 eta 13an.

Askabide. *Ponencias e informes relacionados con prostitución*.

BRUSSA LICIA. *Seminar on action against traffic in women and forced... and human dignity*. Strasbourg, 25-27 september 1991. Ed. Consejo de Europa; 1991.

COMAS, A. *La prostitución femenina en Madrid*. Madrilgo Komunitatea, Dirección General de la Mujer; 1991.

Comunicación de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo sobre la trata de mujeres con fines de explotación sexual. Elkarte Europarrak 1996.

Delitos contra la libertad sexual [10/1995 Lege Organikoa, Kode Penaleko 1995. urteko azaroaren 23a] BOE (281 zkia, 1995eko aza. 24).

ETXARRI, T. "Las Cortes una calle sin ley". *Emakunde* Ald. (2. zkia, 1993ko ekaina).

Gabinete de estudios sociales. *Condiciones de vida de las prostitutas en Asturias*. Asturiaseko Printzerria; 1992.

GARCÍA, J. [et al.] *Curso introductorio al fenómeno de la prostitución: prostitucion, prostitutas, aspectos sanitarios, aspectos sociológicos, aspectos jurídicos*. Askabide; 1998.

GOENAGA OLAIZOLA, R. "Delitos contra la libertad sexual", Ald.: *Eguzkilore* (10. zkia, 1997.eko urria).

JIMÉNEZ, A.; DIEGO VALLEJO, R. *Estudio sobre la prostitución femenina en la comunidad de Castilla y León*. Ed. Gaztela eta Leongo Junta, Osasun eta Gizarte Ongizate Kontseilaritza; 1999.

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta bere gizarte integrazioari buruzkoa. BOE 2000-01-12. I. Tituluko. I. Kap. 6,7,11,12,12,14 artikulak. II. Titulua I. Kap. 25, 26 artikulak; II Kap. 30, 31, 32, 34 artikulak.

LAS HERAS, A.; BIURRUN, J. *La prostitución femenina en Donostialdea*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Zerbitzuetarako Departamentua, 1998.

LOUIS, M.V. "Gobiernos europeos frente al proxenetismo", Ald.: *8 marzo* (28. zkia, 1997).

NEGRE I RIGOL. *Prostitución popular: relatos la vida: estudio sociológico biográfico*. Fundacio Caixa de Pensions Barcelona, 1998.

NIETO RUBIO, M.R. "Mujer prostituida, una alternativa para su reinserción". *Gizarte eskuhartzearen Psikologia jardunaldiak* (3é. 1991.Madril).

Ordenanza Local sobre Establecimientos públicos dedicados a la prostitución. Bizkaiko Lurralde Historikoko Udal Administrazioa; BAO 105. zkia. 1999ko ekainaren 4a, ostirala.

PAMPLONA, E. "Es mi trabajo", Ald.: *Hika* (39. zkia, 1993).

RUIZ DE AZUAECOLAZA, N.; OTEIZA AJONA, O. *Mujer y marginación en Álava.* Arabako Foru Aldundia, Gizarte Ongizate Departamentua; 1989.

SANTAMARÍA, A.; MARTINEZ TOLEDANO, B; ESPINOSA, M. *La prostitución de las mujeres.* Ikerketa soziologikoa 1985-1986. Emakumearen Institutua; 1988.

Donostiako Udaleko emakumearentzako udal zerbitzua. *El fenómeno de la prostitución femenina en Donostia.* Donostiako Udala, 1990.

TAMZALI, W. *La prostitución femenina en la Europa de hoy: cómo responder a esta cuestión.* Madrilén eginiko Konferentzia, 1996ko abenduaren 17an. Madrilgo Komunitatea, dirección general de la mujer; 1998.

BIDEOTEKA

El bulevar de las mujeres perdidas. Pedro Erquicia. Documentos TV. TVE-2, 1999/05/27

Imposible escapar. Pedro Erquicia. Documentos TV. TVE-1, 1990

Millones en la ilegalidad. Reporteros – Erreportari. ETB-2, 1992/10/19. ETB1, 1992/10/20

Prostitución. Adelina Castillejo. Preguntas y Respuestas; TVE-2, 1996/01/30

Prostitución al desnudo. Roberto Arce. Albistegi berezia. Antena-3, 2000/07/17

Prostitución ¿vicio o esclavitud? Dossier. TVE-1, 1996/11/05

Proxenetismo y prostitución. Emakumearen institutua 1988

Trata de blancas. Dossier. TVE-1, 1997/07/01

Trata de blancas. Pedro Erquicia. Documentos TV. TVE-1, 1993/11/15

Trata de blancas. Programa berezia. Antena 3, 2000/02/01

EGUNKARIETAKO ARTIKULUAK INTERNETEN

"Holanda reconoce la prostitución como una actividad laboral"

www.elmundo.es; 1999

"El Ayuntamiento bilbaíno limita su lucha contra la prostitución a los clubes de Concha"
www.elcorreodigital.com; 2001.eko urtarrilaren 29a, astelehena.

"Archivan las denuncias contra Azkuna por el cierre de clubs de alterne en Bilbao"
www.elcorreodigital.com; 2001.eko otsailaren 2a, ostirala.

"Alemania aprobará la prostitución como actividad comercial"
www.prensamujer.com, 2001.eko maiatzaren 10a.

INTERNETEKO ARTIKULUAK

"Dutch law on ages consent since 1991" www.amsterdam.nl

"Finding Women in: Netherlands" www.amsterdam.nl

"Holanda despenaliza la prostitución en burdeles" www.nodo50.org/mujeresred/holanda-prostitucion.html

"Liberal or degenerate? Why Netherlands is different" www.hollandsentinel.com.

"Public order and safety" www.amsterdam.nl

"Prostitutas de cuerpo entero " www.swimw.org

"Trabajar en la industria del sexo" www.swimw.org

EGUNKARIETAKO ARTIKULUAK

"El 90% de las prostitutas que trabajan en España son inmigrantes"
El País, 2001eko martxoaren 4a, igandea.

* Más de 2.500 mujeres ejercen la prostitución en la C.A.E"
El Nervión, 2001eko maiatzaren 21a.

WEB ORRIAK

www.inforelax.com-contactos

www.christinerelax.com

www.begonarelax.com

2

PROSTITUZIOAN JARDUTEN DUTEN EMAKUMEEN BIZIPEN MUNDUA

"BIZIPEN ZATIAREN" METODOLOGIA

2.1

ERABILITAKO TEKNIKA

2.1.1

Txostenaren bigarren zatiaren helburua prostituzioan jarduten duten emakumeen iritziak biltzea da beraien "bizitzaren munduaren" ulermenaren, arrazoien, iritzien eta pertzepzioen ikuspegitik. Prostituzioan diharduten emakumeen bizipenetara eta bere gizarte eta lan ingurunearen pertzepzio subjektibora zuzendutako hurbiltzea da.

Gainera, 3. zatian (Prospektiba) elkarte eta zerbitzu publikoek kolektibo horientzako beharrezko esku-hartzei buruzko neurrien inguruko hautemateak burutzen dituzte. Sektorearen bilakaerari buruz duten pertzepzioa, ogibidearen lan onarpen ezarekin erlazionaturiko arazok, prostituzioa uzteari buruzko ardurak eta azalduko eskakizunen inguruan jasotako iritziek 3. zati horretan egiten diren hautemateak aztertzeke kontraste gisa balioko dute.

Asmo hori izanik, bilketa kualitatiboen teknikan oinarritutako metodologia erabili da: erdi egituratutako gidoia erabiliz egindako elkarrizketa sakonetan. Horrela, teknika horiek inferentzia estatistikoaren ikuspegitik beren iritziak zenbatzera iritsi ezin duten arren, beren gizarte errealitatea eta esanahien beren mundua ulertzea ahalbidetzen dute. Esanahien mundu horrekin eraiki eta interpretatzen dute, hain zuzen ere, beraien burua eta gizarte ingurunea.

Helburua, hain zuzen, ekintza ezagunak ulertu eta interpretatzea da (kasu honetan, prostituzioan jarduteko ohiko hiru era) eta ez datuen tratamenduaren emaitzak ematea.

Elkarrizketatuak aukeratzeko, txostenaren hasieratik maneiatzen ari garen tipologiak erabili dira. Tipologia horiek, "prostituzioaren jardueraren lekua" aldagaian oinarrituz eraiki dira. Aldagai hori behar bezain diskriminatzailea da lan baldintza, diru-sarrera maila eta arazo eta eskakizunen identifikazioari dagokionez. Unibertsoko tipologia bakoitzeko dagoen emakumeen proportzio erlatiboa mantentzeko ahalegina egin da.

Gure informatzaileak aurkitzeko, lehendabizi, ikerketan parte hartu duten elkarteetara jo da. Bitarteko horren bidez aurreikusitako elkarrizketa kopurua osatzeko aukerak agortzen joan ziren heinean, "elurrezko bola" izeneko metodoaz baliatu da. Hau da, elkarrizketaturiko emakumeen bidez kontaktu berriak bilatu dira. Azkenik, sektorea ongi ezagutzen duen emakume batengana jo da eta berak azken kontaktuak eman ditu.

LANDA LANAREN EMAITZAK

2.1.2

Harremanetan jartzeko erabilitako zenbait bideren deskripzioagatik ikusten denez, landa-lana luzea eta konplexua izan da, eta zailtasun asko agertu dira, jarduera beraren izaera dela eta.

"Icebergaren muturra" bakarrik nabari zaion sektorea da, ikus daitekeenetik haratagoko informazioa lortzeko ahaleginen aurrean berean setatzen den sektorea. Berez, proxeneta edota klubetako jabeekin harremanetan jartzeko hiru ahalegin egin dira, baina guztiek porrot egin dute, pertsona horiek informazioa emateari uko egin baitiote. Gainera, prostituzioan aritzen diren emakumeek duten gizarte begirune eskasa aintzakotzat hartzen bada, adierazitako zailtasunei sektorean lan egiten duten emakumeek informazioa emateko duten errezelo eta gogo faltak eragindako zailtasuna gehitu behar zaie.

Kasu batean izan ezik, emakumeak elkarriketatzeko ikerketaren lehen zatian identifikaturiko klubetan sartzea ezinezkoa izan da, eta are gehiago errepideetako klubetan kasuan. Elkarriketa gehienak jarduera lokaletatik kanpo egin dira.

Zailtasunak zailtasun, programaturiko elkarriketa multzoa osatu ahal izan da. Landa lanaren emaitza ondorengoa izan da:

TIPOLOGIA	Absolutuak	%
Kalea	8	20,5
Klubak	20	51,3
Etxebizitzak	11	28,2
GUZTIRA	39	100

Tipologia bakoitzeko elkarriketa kopurua, tipologiek ikerketaren unibertsoan duten banaketara behar adina hurbildu da. Hau da, txostenaren lehen zatian aurkezturiko datuetara, salbuespen batzuekin.

Unibertso osorako eginiko estimazioek prostituziorako kalea erabiltzen duten emakumeak sektorearen %10 direla azaltzen badute ere, era horretako zortzi elkarriketa burutu dira guztira. Hori guztizkoaren %20 da. Klubekoei dagokionez, elkarriketaturiko emakumeak %51 izan dira, unibertsoan %64 badira ere. Eta azkenik, etxebizitzetan lan egiten duten emakumeei egindako elkarriketak %28 dira, eta unibertsoan estimaturiko proportziara asko hurbiltzen da (%26).

Horrela, desbideratze aipagarriak "kalea" eta "klubak" tipoetan agertzen dira. "Kalea" tipoak, unibertsoko urrienak, unibertsoan duen baino portzentaje handiagoko elkarriketa kopurua izan du. Dena den, segmentu horretan egon zitezkeen hainbat azpitipologia jasotzeko, lau elkarriketa nahikoa ez liratekeela izango hartu da aintzakotzat.

Unibertsoan prostituzioan aritzen diren emakumeen kopuru handiena biltzen duen "klubak" tipoaren inguruan eginiko elkarriketak segmentu horretako emakumeek unibertsoan duten proportzioaren azpitik geratu dira. Hala ere, burutu diren 20 elkarriketak dauden egoerak jasotzeko nahikoa direla uste da.

Dena den, "goi standingeko" prostituzioan aritzen diren klub, etxebizitza, masaje etxe, laguntza agentzia eta abarreko emakumeengana iristea ezinezkoa izan dela adierazi behar da. Hori da, hain zuzen, sektoreko segmenturik hurbilgaitzena. Aurkezten diren emaitzetan,

errepideetako klubetan prostituzioan aritzen diren emakumeen baldintzak ere ez dira agertzen. Baldintza horiek izan ohi dira gogorrenak eta bertan isolamendua handiagoa izaten da. Aldiz, hiri inguru edo hiriko mugetan kokaturiko klubetan lan egiten duten emakumeak elkarriketatu ahal izan dira. Klub horiek, sarritan, errepideko klubaren antza dute, beren kokapena dela eta.

Jatorriari dagokionez, Europako Ekialdeko herrialdeetako emakumeak ikerketatik kanpo geratzen dira. Emakume horiek, beste kontinenteetako (Latinoamerika eta Afrika nagusiki) emakume guztiengan pixkanaka kolektibo handia dira. Adierazitakoez gain, hizkuntzatik eratorritako eragozpenek kolektibo horrekin harremanetan jartzea are gehiago zailtzen dute.

Beraz, ondoren aurkezten den informazioa kaleko prostituzioan, klubetan eta etxebizitzetan jarduten duten emakumeei buruzkoa da. Klub horien arteko gehienak EAEko hiri eta herrietako hiriguneetan kokatzen dira eta emakume gehienak latinoamerikatik etorriak dira. Lehenago aipatu den legez, klubaren eta etxebizitzaren tipoei ezinezkoa gertatu da goi standingeko prostituzioan aritzen diren emakumerik elkarriketatzea.

Prostituzioa profil oso baxuko beste jardueraren batzuekin bateragarri egiten duten emakumeak agertzen diren arren –batez ere garbiketa eta pertsona nagusien zaintzarekin zerikusia dutenak–, ezinezkoa gertatu da emakume horiek elkarriketatzea. Antzeko zerbait gertatu da prostituzioan noiz behinka aritzen diren etxekoandreekin edo beste ogibide bat izanik (eta beste diru iturri bat) beren diru iturriak handitzeko prostituzioan aritzen diren emakumeekin ere. Azken horiek normalki goi standingarekin loturik egoten dira.

JASOTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

2.1.3

Kategorizatu eta aztertu ondoren, buruturiko elkarriketatetik lortutako informazioa ondorengo ataletan egituraturik aurkezten da:

- Elkarriketatutako emakumeen profila.
- Bere hasiera prostituzioan.
- Bere jardueraren deskribapena.
- Bere burua eta sektorearekiko duen pertzepzioa.
- Bezeroa.
- Bere lan jardueratik eratorritako arazoak.
- Dauden zerbitzuei eta beharrezko esku-hartze neurriei buruz duten iritzia.

ELKARRIZKETATUTAKO EMAKUMEEN PROFILA

2.2

Ondoren aurkezten den elkarrizketatutakoen profilei buruzko analisiaren helburua beraien ezaugarriak ezagutzea da, hurrengo kapituluetakoa informazioa ulertu ahal izateko. Era berean, emaitzak formatu "kuantitatiboan" aurkezteak, datuen irakurketa errazteaz gain, erabilitako tipologia bakoitzean gure berriemaile taldearen heterogeneotasuna erakustea du helburu.

Informazio hori irakurtzeko orduan, kontuan hartu beharko da zenbaki eta portzentajeek, aintzakotzat hartu diren aldagaien arabera, hainbat emakumeren ezaugarriak zein eratan banatzen diren ordezkatzeko dutela soilik. Inolaz ere ezin da suposatu portzentaje horiek ikerketaren unibertsoa estrapolatu daitezkeenik. Gogora dezagun atala azterketa teknika kualitatiboetan oinarritzen dela, eta teknika horiek ez dutela inferentzia estatistikoa burutzea ahalbidetzen.

Aintzakotzat hartu diren aldagaiak ondorengoak izan dira:

- Jatorrizko herrialdea.
- Adina.
- Egoera zibila.
- Bukatutako ikasketen maila.

JATORRIZKO HERRIALDEA

2.2.1

JATORRIA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Klubak	Etxeb.		
Estatu espainiarra	1	1	5	7	17,9
Portugal	1	0	1	2	5,1
Latinoamerika	6	17	5	28	71,8
Afrika	0	2	0	2	5,1
GUZTIRA	8	20	11	39	100

Koadroan ikus daitekeen bezala, elkarrizketatu diren pertsona gehienak Latinoamerikarrak dira jaiotzez, nagusiki Kolonbia, Brasil, Argentina eta Dominikar Errepublikakoak. Osagai azpimarragarri gisa, "kalea" eta "klubak" tipoetako prostituzioan aritzen diren estatuko emakumeen proportzio txikiagoa adierazi behar da. Proportzio horrek "etxebizitza" tipoan gora egiten du. Beraz, txostenaren lehenengo zatian adierazi diren proportzioei eusteko ahalegina egin da.

ADINA

2.2.2

Elkarrizketatu diren emakumeetatik hamarretik zazpi 26 eta 45 urte arteko tartean kokatzen dira. Hala ere, ezarritako tipologiaren arabera desberdintasunak azaltzen dira. Gazteenak "etxebizitzak" tipoaren baitan elkarrizketatutakoak dira. Elkarrizketatu diren 45 urtetik gorako emakume gehienek dagoeneko ez dute prostituzioan jarduten edo klub/etxebizitzan jabeak dira.

ADINA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Klubak	Etxeb.		
18 eta 25 artean	1	3	2	6	15,4
26 eta 35 artean	2	6	7	15	38,5
36 eta 45 artean	4	7	1	12	30,8
45etik gora	1	2	1	4	10,3
ED/EE	0	2	0	2	5,1
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

EGOERA ZIBILA

2.2.3

EGOERA ZIBILA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Klubak	Etxeb.		
Ezkongabea	6 (1)	12 (3)	8	26	66,7
Ezkondua	1	3 (2)	2	6	15,4
Alarguna	0	1	0	1	2,6
Dibortziatua / Bereiztua	0	3	1	4	10,3
ED/EE	1	1	0	2	5,1
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

(1) Emakumeetako bat ama ezkongabea da, 45 urte ditu eta hiru seme-alaba. Kolonbiarra da.

(2) Ezkondutako emakumeetako batek 40 urte ditu eta Klub baten jabea da.

(3) Beraien artean, 20 urteko ama ezkongabe bat.

Ezarritako tipo guztietan gure berriemaile gehienak ezkongabeak dira.

Aurreko atalean bezala, "klubak" tipoari dagozkion elkarrizketatuak dira egoera zibilarekiko aldakortasun handiena aurkezten dutenak.

SEME-ALABARIK BA AL DUTE?	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Klubak	Etxeb.		
Bai	6	14	3	23	59,0
Ez	2	6	7	15	38,5
ED/EE	0	0	1	1	2,6
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

Elkarrizketatutako hamarretik seik badute seme-alabaren bat. Proportzio horrek gora egiten du "klubak" eta "kalea" tipoei dagozkien elkarrizketatutakoen kasuan. Dena den, "etxebizitzak" tipoko elkarrizketatutakoen kasuan joera horren noranzkoa aldatu egiten da. Multzo horretan, elkarrizketatutako 10 emakumeren artetik hiruk bakarrik dute seme-alabaren bat.

BUKATUTAKO IKASKETEN MAILA

2.2.4

Gure berriemaileen jatorriko herrialdeetako hainbat titulazio homogeneousatzeak ekarriko lituzkeen zailtasunak direla eta, burutu dituzten ikasketak era zehatzean jasotzeko "ad hoc" sailkapena egitea aukeratu da. Horrela, "unibertsitate ikasketen hasiera" kategoria gisara onartu da, orokorki prostituzioan aritzen diren emakumeek ikasketa maila oso baxua dute-la uste denez, aipagarritzat jo delako.

Gainera, irizpide murriztailea aplikatu dela adierazi behar da. Hau da, titulazioa pertsona bati egokitzearen inguruan zalantzarik izanez gero, aurretik eginiko ikasketa mailan sartuko litzateke. Beraz, taulan aurkezten diren emaitzak bukatutako ikasketen mailari dagokionez hobeak izan daitezke, inoiz ez kaskarragoak. Beraiek emandako informazioa sinetsi ezean bederen.

Sailkapena honakoa izan da:

- Ikasketarik gabeak: emakume analfabetak eta ikasketarik gabeak.
- Lehen mailakoak: Lehen mailakoa bukatuta, eskola Graduatua dutenak eta bigarren mailakoa bukatu ez dutenak.
- Bigarren mailakoak: Bigarren mailakoa bukatuta, Batxilergoa bukatuta edo Irakasle eskolako ikasketak bukatu gabe.
- Goi mailako ikasketak hasi dituztenak: unibertsitate ikasketak hasi baina bukatu gabe bertan behera utzi dituzten emakumeak.

BUKATUTAKO IKASKETAK	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Klubak	Etxeb.		
Ikasketarik gabeak	1	2	0	3	7,7
Lehen mailako Hezkuntza	5	6	4	15	38,5
Bigarren mailako Hezkuntza	1	8	1	10	25,6
Lanbide ikasketak (1)	0	1	4	5	12,8
Goi mailako ikasketak hasi.	0	2	1	3	7,7
ED/EE	1	1	1	3	7,7
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

(1) Lanbide ikasketak epigrafearen pean batxilergoa bukatu eta LHrekin batera litezkeen ikastaroak burutu dituzten emakumeak sartu ditugu.

Elkarriketatutako hamarretik bostek lehen mailako hezkuntzako titulua lortu du. Ezarritako tipologiaren arabera, "etxebizitzak" tipoko elkarriketatuak dira konparatiboki ikasketa maila altuenak aurkezten dituztenak.

"Lanbide ikasketak" epigrafearen pean –normalki jaioterriko herrialdean eginak–, idazkari ikasketak, administraritza, hizkuntzak, kontularitzako laguntzaile eta Marketingarekin eta Giza Baliabideekin zerikusia duten ikasketak aipatzen dira.

Taulak erakusten duen bezala, elkarriketatutako hiruk unibertsitateko ikasketak hasi baina ez zituztela bukatu esan zuten.

HASIERA PROSTITUZIOAN

2.3

Prostituzioan jarduten duten emakumeak moduan lanean hasteko gure berriemaileek izan zituzten arrazoiak azaltzeko, ikerketan zehar erabilitako "jarduera lekua" tipologiak ez du garrantzirik. Ez dago funtsezko ezberdintasunik, kalean lan egiten duten emakumeak eta klubetan edo etxebizitzetan lan egiten dutenen artean. Hala ere, jatorria gauzak gehiago argitzen dituen aldagaia da. Hori dela eta, atal hau elkarriketatuen jaioterriaren arabera antolatu da.

EMAKUME ATZERRITARRAK

2.3.1

Prostituzioan jarduteko arrazoiak

Elkarriketatutako emakume guztiek bere jatorrizko herrialdea arazo ekonomikoak tarteko utzi zuten. Arazo horiek normalki bere herrialdeko ekonomia krisiari eta lan ezari loturik zeu-

den; senarra edo adiskideak utzi edo elkarrengandik banatu, edo familia mantendu ezinagatik.

"Santo Domingon ez nuen honetan jarduten, baina jateko adina ere ez nuela ikusten nuenez, honantz etorri nintzen".

"Kolonbian bi alabarekin eta Mexikora joan eta gutaz ezertxo ere jakin nahi ez zuen aita batekin aurkitzen nintzen".

"Kolonbian lanik gabe geratu nintzen (...) denbora luzez egon nintzen lanik gabe eta zorrek estutu egiten ninduten, gainera nire familiari lagundu behar nion...".

Beste batzuek gizarte estatusa eta bizi kalitatea hobetu eta beraientzat eta beren seme-alabentzat etorkizuna nahi dute. Hemen beren jaioterrietan baino hobeto ordaindutako lana erraz topatu daitekeelakoan etortzen dira, baina aurkitzen duten errealitatea ez da itxaroten zutena:

"Zure herrialdean zaudenean errealitatearekin zerikusirik ez duen ideia batekin etortzen zara, hemen irabazten denaz amets asko egiten baita. Nik etxe bat izan nahi nuen nire alabari niri bezala gerta ez dakion, nik ez bainuen ikasten jarraitu nire amak ez zuelako lortu niri ikasketak ematea...".

"Han bizimodua oso zaila da. Ametsen bila etorri nintzen, ilusioak, jendea ezagutu, hemen lan egin, familiari lagundu, geneuzkan zor batzuk kitatu eta ondoren ikasketak hemen egin...".

"Ama ezkongabea naiz eta nire amari, anaiari eta nire alabari bizimodu hobea eman nahi nien".

Kasu askotan ez zuten prostituzioan jardun beren jaioterrietan. Espainiara iristen dira lan bila, baina "paperik" gabe aurkitzen dira eta kalifikazio txikiko lanak bakarrik egin ditzaketela ohartzen dira (neskametza, haurren edo zaharren zaintza), ziurrenik diru beltza jasoz (ezkutu ekonomia) eta oso maila baxuko diru sarrerekin. Egoera horrek aurrez aurre jotzen du beren itxaropen ekonomikoekin eta ezagun edo lagunen harremanen bidez prostituzioan hasten dira:

"Guk, atzerritarrok, oso zaila daukagu lanean hastera paperik ez izateagatik eragozpen asko jartzen baitigute (...). Madrilen egon nintzen familia baten etxean baina 35.000 pezeta irabazten nituen. Nire alaba txikiarekin etorri nintzenez eskola eta etxeko alokairua ordaindu behar nituen, eta gainera nire semea ekarri nahi nuen Kolonbiatik".

"Duela sei hilabete etorri eta lan bila hasi nintzen, baina ez honetan, etxe edo jatetxe batean baizik, baina ez nuen paperik eta honetan hastera errazagoa da eta dirua azkarrago lortzen da eta nik dirua behar nuen".

"Garbitzaile jarduten nuen etxe batean, baina behar ekonomikoak medio (70.000 pezeta irabazten nituen eta alokairua bakarrik 73.000koa zen) honetan hasi nintzen".

"Lagun batekin etorri nintzen, hasiera batean haurrak zaintzeko asmoz. Gero neure ekimezez klub batean hasi nintzen gehiago irabazten zelako. Badakit txarra den zerbait dela, baina ez nau inork behartu".

Beste emakume batzuek beren jaioterrian jadanik prostituzioan jarduten zuten. Espainiara diru sarrera handiagoak izateko itxaropenez etortzen dira. Elkarrizketatutakoen gehiengo handi batek dirua irabazi nahi du negozio bat ezartzeko eta bere jaioterrian etxea erosteko (errepikaturik azaltzen diren bi osagai), edo bere familia ekarri eta bizi baldintza hobek ber-matzeko. Hala ere, azken aukera hori "paperak" lortzearen menpe dago.

"Hona etortzea erabaki genuenean hobeto bizitzeko asmoz egin genuen. Denok egiten dugu amets etxea erostearekin. Denok nahi dugu, nire herrialdean esan ohi den bezala, burua sartzeko leku bat".

"Dirua irabazi nahi nuen nire herrialdean negozio txiki bat ezarri eta etxea erosteko, baina orain nire herrialdean dagoen egoera ikusita nahiago dut nire familiarekin hemen finkatu".

"Nire ama, aita eta familiari arropa erostea (...) Beharrak asko dira. Nire ama eta nire seme-alabak ekarri ditut, baina nire anaiak ekartzea gustatuko litzaidake Argentinan oso gaizki ari baitira pasatzen".

"Hemen geratu ahal izatea gustatuko litzaidake, aukera gehiago baitaude. Baina hori izapideen menpe dago. Lortu beharko nukeen lehenengoa lan kontratua litzateke. Gustatuko litzaidake nire alabak ekartzea, nire ama..."

Atal honetan jasotzen diren aipamen askotan bere familiakoen bizimodua hobetzeko nekeak pairatu beharraren ideia adierazten da. Bidaia ezjakin bati ekiten diote, esperientzia oso gogorrek jasaten dituzte eta degradazio eta desgaste maila handia dakarren ogibide batean jarduten dute, bere familiaren bizi kalitatea hobetzeko. Badakite ogibidearengan gizarte estigmatizazioak eragina duela, baita beraien jaioterrian ere, eta beren diru sarreraren iturria hurbileneko zirkuluarengandik ezkutatzea ahalbidetzen dien distantzian babesten dute beren burua.

Eta prostituzioan jarduten dute denbora tarte motzean diru sarrera handiak lortzea ahalbidetzen dien lana delako. Baina ezin da inola ere "diru erraza" kontsideratu, guztiek ongi baitakite prostituzioan jardutea ez dela "erraza"; harremanean zakarkeria handiari lotutako ogibidea, lan baldintza gogorrek eta desgaste pertsonal (fisiko zein psikiko) handikoa baizik. Gizartean nagusitzen den topikoaren aurka, sexualitatearen adierazpenari buruz kultura permisiboagoetatik etorritako emakumeek, ez dute "gogo gehiago" edo "erraztasun gehiago" ogibide horretan jarduteko. Oso bestela, elkarrizketatutako guztiek, ogibidea gutxienez atsekabez bizi dute, ez dute beren sexualitatearekin lotzen eta jarri zituzten helburuak betetakoan uzteko itxaropena daukate.

"Lehenengo aldiz Santanderren egon nintzen eta ondoren Burgosa eraman ninduten erre-pideko klub batera. Han bizitzan sufritu daitekeen guztia sufritu nuen. Ordutegirik gabe lan egitera behartzen gintuzten eta dirua eta pasaportea kentzen zizkiguten ihes egin ahal izan ez genezan. Jotzearekin mehatxatzen gintuzten ... Ihes egitea lortu nuen, Espainiar polizia mugitzen eta klubak kontrolatzen hasi zelako. Horrela Bilbora etorri eta libreago aurkitu nuen nire burua. (...) Gezur hutsa da, bizimodu beldurgarria".

"Portugalen bi egunez bakarrik egon nintzen, baina hona iristean ni esplotatzen eta min ematen saiatu ziren. Oso argi nentorrenez eta esperientzi gabea ez nintzenez, ospa egitea lortu nuen".

"... Gero Espainiara etortzeko esan zidan neska bat ezagutu nuen, 350.000 pezeta ordaindu nituen bidaiarengatik eta klubetan lan egiten hasi nintzen arratsaldeko 4etatik goizaldeko 3ak arte, eta ia alkoholiko bihurtu nintzen. (...) Bakardade handia dago eta diskriminatua sentitzen naiz, emakumeek ikusten nautenean puta naizela uste baitute".

"Hasieran zalantza asko nituen baina lagun batek hau klubean edo kalean lan egitearen desberdina zela sartu zidan buruan (etxebizitza batean egiten du lan) (...) gero eta nekatuago zaude eta ezin duzu jasan".

"Etxebizitzan hasi aurretik Eibarko klub batean egon nintzen, gauez kotxe batek Bilbon jasotzen gintuen eta goizez ekartzen gintuen. Diru dezente irabazten nuen baina gaixorik bukatu nuen: loezina, elikadura-arazoak, edaria ...".

"Ez da lan atsegina (...) Tristeia da jasan behar duzunagatik, egin nahi ez dituzun gauzak egin, entzun nahi ez dituzunak jasan (...) Badira oso gaizki tratatzen gaituzten gizonak. Gu prostitutak garela eta beraiek nahi dutena egin behar dugula (...) Gizon guztiak basatiak dira, animaliak bezalakoak. (...) Guk emozionalki asko sufritzen dugu. Beldurgarria da".

Zein baliabiderekin iristen diren

Elkarrizketatutako atzerritar gehienak beren jatorrizko herrialdeetatik senitarteko edo lagunen sare naturalen bidez iristen dira, normalki hegazkineko txartelaren prezioa salbu, zorrik egin gabe:

"Hiru urte daramatzat hemen eta etortzeko mailegua eskatu behar izan nuen, baina guztia era normalean igaro zen, gehiegikeriarik gabe".

"Ni neure diruarekin etorri nintzen, nire ahizpak eman zidan eta arrazoia soilik ekonomikoa izan zen ezin baintuen nire bi semeak mantendu".

"Duela hiru urte iritsi nintzen. Hiru hilabetez egon eta Brasila bueltatu nintzen, gero berriro etorri nintzen. Kontaktua hemen lanean ari zen lagun baten bidez izan zen. Lagun hori sei hilabetez hemen eta beste sei Brasilen egon ohi zen".

"Etorri nintzenean ez nintzen zuzenean prostituzioan hasi. Gero jendea ezagutuz joan nintzen eta lagun afrikar batzuk lagundu zidaten honetan hasten".

"Nire kabuz etorri nintzen bi lehengusina nituelako honetan lanean eta banekien zertara nentorren...".

Elkarrizketatutako beste zenbait emakumek bitartekarien sareen (proxenetak, klubak) kontaktuen bidez iritsi zirela adierazten dute. Horrela zorrak egiten dituzte, gure berriemaileen kasuan 350.000 eta 1.200.000 pezeta artekoak.

"Klub bat ezagutzen zuen lagun batek nire bidaia kudeatu eta lanean jarri ninduen. Etortzeagatik 500.000 pezeta ordaindu nituen. Banekien klub batera nentorela baina oso inozoa izan nintzen; ez nekien top-less egin edo bikini jantzita ibili behar nuenik... Ez nuen uste prostituzioaz ari ginenik... Klubeko jabearekin egindako zorra Brasildik etortzeko txartela ordaintzeko zen eta 'abokatu' bat ematen dizute paper kontuatarako hiru hilabetez".

"Brasilen, hona atzerriko neskak ekartzen zituen proxeneta bat ezagutu nuen, Portugala edo Espainiara etortzea proposatu zidan. Nik banekien zertara nentorren, ez ninduen inork iruzurrik egin".

Kontakizunek adierazten dutenez, bitartekarien bidez etorri ziren elkarriketatutako gehienek bazekiten prostituzioan aritzera zetoze. Elkarriketatuak kasu batean bakarrik adierazten du engainatuta iritsi zela:

"Nire lagun batek iragarki bat ikusi zuen eta etortzera animatu nintzen. Neskak hona engainatuta ekartzen zituzten garaia zen eta horrela etorri nintzen"

Beraien itxaropenak betetzen direla ikusten al dute?

Emakume atzeritar gehienek iritsi zirenean zituzten itxaropenak beteta ikusi dituzte. Orokorki, beraien helburuak ondorengoetan biltzen dira: familiari dirua bidali biziraupena ahalbidetzeko edo bizi baldintzak hobetzeko, beraien herrialdeetara itzuli negozio bat ezartzeko, familia berrelkartzea lortu, edo hemen finkatu eta ogibidea utzi eta "bizitza normala" egin. Bere familiarentzat lan egitearen motibazioak dirua aurrezte eta beraien itxaropenak estatuko gure berriemaileek baino neurri handiagoan betetzea ahalbidetzen die:

"Neurri batean nire itxaropenak bete dira, baina ez guztiz. Asko dira beharrak. Ama eta seme-alabak ekarri ditut, baina nire anai-arrebak ere ekarri nahi nituzke, Argentinan oso gaizki pasatzen ari dira eta. Oraindik betetzeko geratzen zaidan itxaropenik handiena prostituzioa lehenbailehen uztea da. Beste zerbaiten jardun nahi dut".

"Urte bukaeran nire herrialdera itzuliko naiz. Nire itxaropenak bete dira. Etxea daukat, autoa, amari etxea erosi nion, lur zati bat erosi nuen eta bi denda ezarri behar ditut, arropa denda eta mertzeria. Guztia Brasilen. Nahi nuena lortu dut eta prostituzioa utzi behar dut. Merezi izan duela uste dut. Ez naiz damutzen".

"Orain etxea erosi dut eta prostituzioan beste hilabete batzuek bakarrik egingo dut lan, beste zerbaiten jardun nahi baitut. Konkretuki andre batentzat egingo dut lan neskame bezala eta horrela paperak lortu ahal izango ditut".

"Nire zorrak kitatu eta beste lan bat lortzea (ziren nire itxaropenak). Bete dira bai. Orain etxea daukat Brasilen".

"Kolonbiara itzultzeko beldur naiz. Nire alaba ekarri nahi dut, zaharren zaintzan lan egin, taberna batean, denda bat jarri... Etxebizitza bat hartu, hemen geratu eta bizitza normala izan".

"Oraindik goiz da nire itxaropenak bete diren ala ez esateko. Diru bila etorri nintzen eta horixe itxaroten dut. Uste dut orain irabazten dudana ongi dagoela".

Ezarritako helburuak lortu ez dituztenek prostituzioaren jarduerak eragiten duen hondatzea jasan dute: depresioa, alkoholismoa... eta diru sarreraren zati bat aurrezteko zailtasunak. Orokorki, ogibideak suposatzen duen gastu maila altuaz aritzen dira. Gastu hori kasu askotan "konpentsatzailea" da eta ogibidearen jarduerak dakarren gogortasun mailarekiko zuzenki proportzionala:

"Nire egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz etorri nintzen. Hemen daramadan denboraldian ezin izan dut ezer aurreztu. Irabazten dudana gastatu egiten dut".

"Etxea egitea bezalako asmoz beterik etortzen gara guztiok... Ez dut uste lortuko dudarik gastu asko baititut: 170.000 pezeta bidaltzen ditut Brasila eta alokairua 30.000 pezeta kostatzen zait eta gainera jantzi eta jan egin behar da".

"Nik eskuan dirua izan dut eta ez dut inoiz biharamunean pentsatzen, beti orainaz pentsatzen dut. Bizitzan nuen (itxaropen) bakarra irakasle izan eta bizitza normala izatea zen, baina azkenean ez nuen helburu hori lortu ahal izan".

"Ogibidea uzteko adina diru lortzea. Gertatzen dena da, dirua lortu arren ez dela aurrezten"

"Nire itxaropena bizi baldintzak hobetzea zen, etxea erosi ahal izatea... azken finean nire bizitza kalitatea hobetzea. Behin irabazten hasiz gero asko gastatzen duzu eta ondorioz itxaroten nuena ez da bete".

ESTATUKO EMAKUMEAK **2.3.2**

"Estatuko" emakumeak prostituzioan sartzearen arrazoiak funtsean ez dira desberdinak. Arrazoi ekonomikoak izaten jarraitzen dute, langabezia, badaezpadako lanak, senarra edo adiskidearen heriotza edo beregandiko banaketari loturik. Emakumearen askatasunaren hertsadura handiagoari loturiko garai ilunagoetan bizi behar izan zuten emakume helduagoen kasuan, arrazoi gisa ezkongabe izanik haurdun geratzea aipatzen da:

"Taberna batean lan egin nuen, ondoren garbiketa enpresa batean, baina ordu gehiegi ziren niretzat. Goizeko 6etan hasi eta gaueko 11k arte bazkaltzeko bakarrik geratuz. Bost hilabetez egon nintzen horrela eta nire gorputzak ezin zuen gehiago jasan, eta gainera irabazten nuenarekin oinarritzko gastuak ere ezin nituen bete".

"Nire adiskidea hil zelako (...) Hura hiltzean, bat-batean lanik ere ez izateagatik aurre egin ezin nion egoera ekonomikoa aurkeztu zitzaidan".

"Etxetik irtetea lortzeko, dirua irabazteko. Nire arazo propioak direla eta gorriak ikusi ditut".

"Sei hilabete neramatzan langabezian eta ezin nuen gehiago jasan. Egunez egun handitzen zen zorra nuen".

"20 urterekin luxuzko klub batean alternatzen hasi nintzen Irunen, haurdun geratu eta etxetik bota nindutelako. Errepublikazale dirudunen alaba naiz. Nire ahizpa nagusiak Madrilen goi funtzionario baten etxera neskame bidali ninduen, eta Hondarribian udako etxea zeukanez hona iritsi nintzen, eta gau batean parrandara irteteagatik kalera bota gintuztenez (zerbitzaria eta ni neu, sukaldaria), klub batean lana eman zigun gizon batekin harremanetan jarri ginen".

Ogibidean hasteko era atzerritarren kasuan aipaturiko bideetatik doa: prentsako iragarkiak, lagun edo ezagunen bidez edo bitartekariekin harremanetan jarritz:

"Egunkariko iragarki baten bidez hasi nintzen. Lan bat aurkitzeko premia nuen eta beraz iragarkia ikusi orduko hots egin nuen. Artatu ninduen mutilak neskak joan-etorrian ibiltzen zirela eta une horretan norbait sartzea ongi zetorkiola esan zidan".

"Lan egiteko etxebizitza honetaz hitz egin zidan Donostiako lagun baten bidez".

"Kosmetikoak saltzen zituen neska batekin kontaktatu eta klubeko jabea aurkeztu zidan".

"Masaje zentro batean hasi nintzen, neska gehiago zeuden eta guztia era egokiagoan antolaturik zegoen. Zentroko jabeak ekartzen zituen bezeroak".

40 urteko emakume baten ondorengo testigantzak, senar edo adiskidearen presio edota iruzurrei dagozkien beste hasteko era batzuk azaltzen ditu:

"Engainaturik. 20 urte nituenean kluba zen Caceresko taberna batean lan egiteko esan zidaten eta gainera nire senarra lanik gabe zegoen".

Beraien itxaropenak betetzen direla ikusten al dute?

Funtsean, estatuko berriemaileen kasuak, elkarrizketatutako atzerritarrek eskainitako testigantzen desberdinak dira. Atzerritarrek, kasu gehienetan, helburu garbiak izan ohi dituzte, normalki beraien eta beren familien bizi baldintzen hobekuntzarekin lotutakoak. Gainera, helburu horiek hein handi batean lortzen dituzte. Estatuko emakumeen artean, aldiz, itxaropenak askoz ere zehaztugabeagoak dira eta itxaropen horien lorpena kasu askotan galdutzat jotzen da aurrezteko ezintasuna medio:

"Hau utzi eta nik egiten dakidanarekin (informatika) zerikusia duen lan bat aurkitzea (da nire itxaropena), baina ez 80.000 pezetaren truke".

"Nire itxaropena nire seme-alabak aurrera ateratzea zen. Orain utzi egin dut, nire senarra eraikuntzan hasi delako lanean, eta uzten ez banuen gizarte-laguntzaileak seme-alabak kentzearekin mehatxatu ninduelako".

"Edaritan joaten zait dirua. Ez diot jaramonik egiten diruari. Gogoia dudanean gauzak erosten ditut, bitxiak, arropak ... eta ez niretzat bakarrik, baita nire amari eta nire ahizpari opariak egiteko ere. Momentuz ez da itxaropen bakar bat ere bete".

"Denbora gutxian diru apur bat pilatu eta Valladolida itzultzea zen nahi nuena, han bizi nahiz eta. Egia esan, ez naiz batere aurretzen ari eta nola edo hala mantentzen dut nire burua".

"Estatuko" emakumeen kolektiboaren barruan toxikomania arazoak dituzten emakumeen presentzia adierazgarria da. Batez ere kaleko prostituzioan hasten diren gazteak dira, beren menpetasunari eutsi ahal izateko. "Ogibidearen" ideiarekin ez datoz bat, eta beharrezko dosia lortzeaz gain ez dute beste itxaropenik. Helbururen bat ezartzen badute eskuraezina izaten da, beste edozein itxaropen baino indar gehiago baitu drogarekiko menpekotasunak:

"17 urterekin engantxatu nintzen (...) Klub batean hasi nintzen. Klubera nire herrikide baten bidez joan nintzen. Han taxi-gidari bat ezagutu eta berarekin ibiltzen hasi nintzen. Bere ere engantxatuta zegoenez, are gehiago engantxatu nintzen kokaina eta zaldiarekin".

"Hasi nintzenean, droga lortzeaz gain, etxea erosteko diru apur bat biltzeko itxaropena nuen, baina ez nuen inoiz lortu guztia bizioan gastatzen bainuen".

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

2.4

JARDUTE ETA DEDIKAZIO MAILA

2.4.1

Atal hau aztertzeko, prostituzioan aritzen diren emakumeen tipologietan zehar ibilbide bat egingo dugu:

Kale tipoko prostituzioan jarduten duten emakumeak klub batekin zerikusia izan ohi dute (ohiko kluba baino tabernaren antza gehiago duena). Klubak bezerorik ez dagoenean bertan egotea edo bezeroekin hasierako harremana sortzea ahalbidetzen die. Gainera, klubak toki pribaturik badu, beren zerbitzuetarako erabil dezakete. Ordainean emakumeek klubeko jabeari bezeroen edarien portzentaje bat ematen die (normalean kopien prezioaren %50 ingurukoa) eta zenbait kasutan, zerbitzuaren prezioaren proportzio bat. Azken hori denboraren arabera neurtzen da eta 20 minutuko 5.000 pezeta inguruan finkatzen da (15.000 pezeta ordubeteko).

Beste zenbait kasutan zerbitzua alokatutako gela batean ematen da. Gela horren prezioa ordu erdiko 800 eta 1.000 pezeta artekoa izan daiteke. Klean, zerbitzuen prezioa 2.500 / 3.000 pezetaraino jaitsi daiteke:

"Klean 2.500 eta 3.000 eta denetik egiten dute. Klubetan 5.000".

"Kopa bakoitzeko 2.000 pezeta kobratzen ditugu, eta horietatik 1.000 etxearentzat dira. 20 minutuko pase bakoitzeko 5.000 pezeta kobratzen ditugu, 1.000 etxearentzat. Eta ordubeteko 15.000 pezeta".

"Paseko 3.000 pezeta gehi gela. Gela 800 edo 1.000 pezetakoa izan ohi da. Ordu erdi 5.000 izan ohi da, ordubete 10.000 edo 15.000 pezeta, bezeroaren aurpegiaren arabera".

Gure berriemaileen artean hainbat dedikazio maila daude. Eguneko zortzi ordu ingurukoa da eta ordutegiak nagusiki gaueko 10ak arte izan ohi dira. Ordu horretatik aurrera ez da bezerorik aurkitzen asteburuetan ezik. Asteburuetan ordutegia zabaldu egiten da, batez ere larunbatetan. Klean diharduten emakumeek ordutegi zabalagoa dute, eguneko 9/10 ordu ingurukoa. Klean lan egiten duten –taberna tipoko klubak laguntza izan ala ez– dezaketen gure zenbait berriemailek lanari buruz duten iritzia sektorearen gainbeherarena da. Hori dela eta, kaleko lana plazak egitearekin bateratzen dute.

"Goizeko 10etatik arratsaldeko ordu bietara. Arratsaldez, 5etatik 9etara. Gauez ez dut lanik egiten, kluba hilik dagoelako".

"Nire ordutegia goizeko 11etatik gaueko 9ak artekoa da".

"Asteburuetan ordu gehiagoz egiten dut lan: goizez 10etatik 2etara eta ondoren 5etatik 8etara. Larunbatetan gaueko 11k arte".

"Goizeko 10etatik 2etara. Arratsaldez 5etatik 9etara. Nik benetan dirua plazetan ateratzen dut eta ordutegi hau egiten dut Cortesen egiteari ez uzteagatik eta zerbait gehiago irabazteagatik".

"Badira estreinatzen ez zaren egunak. Nik bidaiatuz eta plazak eginez mantentzen dut nire burua, Las Cortesek jadanik ez baitu ezertarako balio".

Emakume toxikomanoen kasuak aipamen berezia merezi du. Droga menpetasunak dedikazio maila askoz ere handiagoaz gain, paseko tarifa merkeagoak eta lan baldintza gogorragoak dakartza:

"Kalean ligatzen dut eta ondoren batzuetan gela batera joaten naiz eta beste batzuetan autoan egiten dut".

"Eguna niretzat prostituzioan aritu eta droga lortzea da (...) 2.000 pezeta ...depende".

Klub tipoan lan egiten duten emakumeek ordutegi bat jarraitu behar dute, adosten dutena aldakorra izan daitekeen arren. Orokorki, lanaldiak eguneko 8 eta 9 ordu artekoak izan ohi dira eta ordutegiak arratsaldeko 8ak eta goizaldeko 3ak artekoak. Ordutegia asteburuetan beste ordubetez zabaltzen da. Asteroko dedikazioa aldakorra da. Gure berriemaile batzuek egunero egiten dute lan, beste batzuek astean egun bat jai dute, baina bada asteburuan bakarrik lan egin edo astean 3 edo 4 egun lan egiten duenik ere.

"Astegunetan egunero 6/7 pase egiten ditut. Ordutegia arratsaldeko 7etatik goizaldeko 4etarakoa da. Astegunetan egiten dut lan eta egun bat jai hartzen dut. Lehen egunero 18 pase egiten nituen".

"10etatik goizeko 6ak arte (egiten dut lan). Egun bat jai hartzen dut, nahi dudan eguna".

"Gaueko 9etan hasten naiz eta goizeko 3etan bukatzen dut. Asteburuetan ordutegia ordubete zabaltzen da".

"Gaueko 11etatik goizeko 6ak arte egoten naiz. Astegunetan 3 eta erdiak arte. Astean lau gautan joaten naiz. Batzuetan ezin dut joan, beste lanen bat dudalako. Nahiko malguak diren arren ordutegi bat bete behar duzu".

"Klub batean bakarrik egiten dut lan. Ordutegi bat bete behar dut beste betebeharririk gabe (...) Gaueko 11etatik goizeko 5 eta erdiak arte. Astean 2 edo 3 egunez atseden hartzen dut".

"Gaueko 10etatik goizeko 6ak arte. Astegunetan goizeko 3ak arte. Igande eta astelehene-tan itxita dago".

Klubean edo jabearen etxebizitza batean bizi direnean, kopuru zehatz bat ordaintzen da ohe eta elikadura moduan (eguneko 2.000 eta 2.500 pezeta artean). Atzerritarren kasuan, etxe-

bizitza horiek emakume baten (mami) ardurapean egon ohi dira. Emakume horrek, paperak 3 hilabetero berritzearen azalpenarekin egindako zorraren (150.000 pezeta inguru) ordainketaren kontrolatzaile moduan jokatzeko du. Normalean kluba emakumeek egindako zerbitzuen portzentaje baten jabe egiten da (%20 eta 30 artean) edo bestela eguneko kopuru finko bat kobratzen du. Bezeroak ordaintzen dituen kopak erdibana banatzen dira etxea eta prostituzioan jarduten duen emakumearen artean.

Zerbitzuen prezioa kaleko tipoan baino altuagoa da, eta baremoa berbera da: bezeroarekin egondako denboraren arabera. Tarifak 20 minutuko 6.000 pezeta ingurukoak dira edo zerbitzu orduko 16.000 eta 18.000 artekoak. Emakumeek eguneko egiten dituzten paseen kopurua aldakorra da.

"Klubaren gainean dagoen etxebizitza batean bizi zara, mami baten ardurapean, eta zu zaintzen dabil jabeekin duzun zorreatik. Hiru hilabete pasa ondoren 150.000 pezeta ordaindu behar dituzu klubean jarraitzeko eta beste hiru hilabeterako paper berriak egiten dizkizute".

"(Prezioak) gorabeherak izaten ditu, denboraren arabera da eta bezeroaren arabera ere bai. Bezeroak ordaintzen dizkigun kopen prezioa 3.000 edo 5.000koa da, eta berak hartzen duen bakoitzak 1.000 pezeta balio ditu. Klubak 20 minutu egoten bazara 1.000 pezeta jasotzen ditu eta 3.000 ordubetez egoten bazara. Neskak berriz 12.000 irabaziko lituzke".

"20 minutu 7.000 pezeta, ordu erdia 10.000, 45 minuturengatik 12.000 pezeta eta ordubete 16.000. Klubean kopak 3.000 edo 4.000 pezetan kobratzen dituzte eta horren erdia guri dagokigu".

"20 minutuko pase bakoitzeko 6.000 pezeta kobratzen ditugu, horietatik 1.000 etxearentzat dira. Kopen kontuan erdibana goaz. Kopa bakoitzak 2.000 pezeta balio ditu".

Ikus daitekeen legez, klubetan prostituzioan jarduten duten emakumeen sariak eta ordainak araututa daude: denbora frakzioko prezioak, etxearentzako portzentajeak, edarien portzentajeak... beti ere bezeroarekin sortzen den harremana klubean gertatzen bada:

"20 minuturengatik prezioa 6.000 pezetakoa da, horietatik jabeak niri 4.800 ematen dizkit; ordu erdia 10.000 eta ordubete 20.000 pezeta. Kopen portzentajea aldatu egiten da klub batetik bestera. Nik %50a eramaten dut. Bezeroarekin harreman bat izaten baduzu klubetik kanpo %100a zuretzat da. Klubean bazaude jabeari portzentajea eman behar diozu".

Eskaintzen diren zerbitzuak "normalak" deiturikoak dira, hau da, hitz egin, gonbidapenak (kopak) onartu, felazioak eta koito baginala, normalki preserbatiboa erabiliz. "Zerbitzu bereziak" izenez ezagutzen denaren barruan, sadomasokismoa, uzki koitoa eta bibragailuen erabilpena sartzen dira. Gure berriemaileen kasuan, egiten dituzten zerbitzuak normalki prostituzioan jarduten duen emakumearen esku geratu ohi dira. Zentzu horretan testigantzak nahiko grafikoak dira:

"Normalak: mamada eta koitoa. Ez dut zerbitzu berezirik egiten eta bibratzailerik erabiltzen".

"Hitz eginez hasten da eta gero datorrena datorrela. Nik ez ditut zerbitzu guztiak eskaintzen. Nik erabakitzen dut uneoro zer emateko prest nagoen".

"Ez dugu zerbitzu berezirik eskaintzen, koitoa eta frantsesa bakarrik. Nik beti goma erabiltzen dut eta norbait arraro xamar jartzen bada emakumezkoaren preserbatiboa erabiltzen dut".

"Pertsona bakoitzaren arabera. Nik kondoiarekin egiten dut. Bada zerbitzu bereziak egiten dituenik ere, nik larrua jo, xurgatu goma erabiliz eta musurik ez. Egin dudan gauzarik bereziena kontsoladoreekin egin dut eta masoko zerbait ere bai, baina azken hori behin bakarrik".

"Normala. Zuk onartzen ez duzun zerbait eskatzen badizute, ezetz erantzuten duzu eta kito, nahiz eta guztiok ez garen berdinak".

Etxebizitza tipoa: gure berriemaileek deskribatzen dituzten etxebizitzek hainbat antolakuntza era aurkezten dituzte: bitartekari gisa "errejenta" bat jartzen duen proxeneta batena izan daiteke, proxeneta edo erakunde batekin erlaziorik ez duen emakume batena izan daiteke, edo taldean edo bakarka era autonomoan lan egiten duten emakumeak izan daitezke.

Bezeroak ere, antolakuntza modalitatearen arabera, era desberdinean burutzen ditu kontaktuak. Emakume autonomoen kasuan, ohikoa egunkarian iragarkia jartzea da harremanerako zenbaki batekin. Etxebizitza jabe edo proxeneta baten ardurapean badago, egunkariko iragarkiak berdin balio du, baina kasu batzuetan, harremana etxebizitzako telefono zenbakia emateagatik diru kopuru bat kobratzen duen agentzia baten bidez egiten da.

Dedikazio maila ere antolakuntza tipoaren araberakoa da. Orokorki, etxebizitza txulo baten edo jabearen ardurapean badago, lanaldi luzeagotarako joera dago. Horrek egunean 10 ordu inguruko lana suposatzen du, salbuespenak dauden arren. Emakume autonomoen kasuan ordutegia beraiek erabakitzen dute. Gure berriemaileen artean 24 orduko erabilgarritasunetik hasita, astelehenetik ostiralera bitarteko 5 orduko ordutegiak arte aurki ditzakegu. Dena den, badirudi etxebizitzetako ordutegiek "klub" tipoko ordutegiek baino "egunekoagoak" izateko joera dutela.

Ordutegirik badago, goizeko 11etatik gaueko 9ak bitartekoa izaten da, nahiz eta gure berriemaileek diotenez, arratsaldeko ordu batetik 5etarako ordutegia ere ohikoa den.

"Etxebizitza honetan 11etatik gaueko 9etara egiten da lan, eta gehiago irabazi eta zita landu beharrik ez izan arren, neketsuagoa da biziosagoak dira eta".

"4 edo 5 urte daramatzat etxebizitza honetan lan egiten eta goizez bakarrik egiten dut eta diru guztia niretzat da".

"Etxebizitza jabe baten ardurapean dago eta bezeroarekiko harremana agentzia baten bidez ezartzen da, eta agentziak berak hots egin ohi du".

*"Etxebizitza jabearen ardurapean dago. Bezeroak iragarkien bidez iristen dira. Anak (jabeak) elkar aurkezten gaitu eta beraiek aukeratzen dute. Anarekin dugun betebeharrak bakarrik sarre-
ra bakoitzeko %50 berari ematea da (...) Ordutegiak gure artean adosten ditugu. Ez digute ordutegi zehatzik exijitzen, baina badakit beste zenbait lekutan neskek ia egun osoz egiten dutela lan, 11etatik gaueko 9ak arte".*

"Ordutegi obligaziorik ez dago. Etxebizitzan nagoenean jabeak pasatako deiak hartzea da nire betebeharrak. Hala ere, bezero bati uko egin diezaioke, eman nahi ez diodan zerbitzu bat eskatzen didalako edo beste edozein arrazoiengatik. Normalean astelehenetik ostiralera joaten naiz 14:30etatik 18:30etara".

"Etxebizitzan autonomo gisa nago. Ordutegi bat betetzera beharturik nago, zuk zeuk ezarri nahi duzuna".

Zerbitzu bakoitzeko prezioak, aztertutako gainerako tipoetan bezala, denbora eta zerbitzu motaren arabera (normala edo berezia) neurtzen dira eta kale eta klub tipoetan baino altuagoak dira. Kasu honetan, 30 minutuko zerbitzu normalak 10.000 pezeta inguru balio ditu, eta ordubeteko berriz, prezioa 20.000 pezeta ingurukoa izan ohi da. Etxebizitzetan ohikoa da zerbitzu bereziak burutzea, hala nola, sadomasokismoa, uzki koitoa, duplexa (bi emakumerekin sartzea) edo lesbikoa (nesken arteko jolasa). Mota horretako zerbitzuek prezio altuagoa dute eta ordu erdiko 25.000 pezetaren ingurukoa izaten da. Orokorrean, bitartekariren bat izan bada (proxeneta edo etxeko jabea) zerbitzuaren prezioaren %50 eskuratu du.

"30 minutu 10.000 pezeta eta ordubete 15.000 pezeta. (...) Bezeroek beti prezioarekiko kexua azaltzen dute".

"(Zerbitzu normalak) 30 minutu 10.000 pezeta eta ordubete 15.000. Bereziak bi neskekin 30 minutu 20.000 eta ordubete 30.000 pezeta".

"Zerbitzu bereziak ez dira normalak bezala kobratzen. Normalak 20 minutu edo ordu erdirako 7.000 pezeta balio du. Zerbitzu berezien artean preserbatibo gabeko frantsesak adibidez 15.000 pezeta balio ditu; griegoak berdin; duplexak 15.000 eta 20.000 pezeta artean. Lesbikoa 25.000 eta 30.000 pezeta artean legoke. Sadoak berriz 20.000 balio du. Guztiek 30 bat minutu irauten dute. Zerbitzu normalengatik etxebizitzako jabeak %50 jasotzen du eta zerbitzu bereziengatik berriz, berak %25 eta guk %75".

HILEROKO DIRU-SARRERAK

2.4.2

Irabazten duten kopurua kalkulatzeko zaila gertatzen zaie, izan ere *"dirua sartu ahala gastatzen duzu. Hau ez da eguneroko lan bat bezalakoa"*. Gainera, diru-sarrerak oso aldakorak dira, denboraldi ona edo txarraren arabera (bezero gehiago edo gutxiago), dedikatutako denbora, lan ordutegian egin daitezkeen zerbitzuen eta eskatzen zaizkien zerbitzuen prezioen arabera (zerbitzu guztiek ez dute prezio berbera).

Elkarriketatu ditugun emakumeek emandako informazioan oinarrituz, lanaldi osoan aritzen direla aintzat hartuz emakume bakoitzeko hilabeteko diru-sarreraren batez bestekoaren estimazioa burutuz lortu dugu aurkezten den kalkulua (batzuk informazio zehatza –kopuru zehatza edo bi kopururen arteko bariazio bat– eta beste zenbait, berriz, hurbilpenak –familiar astero bidalketa, eguneroko diru-sarrerak eta abar–).

HILERO	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Etxeb.		
200.000 pezeta arte	4	1	2	7	17,9
200.000 eta 300.000 artean	1	6	1	8	20,5
300.000 eta 400.000 artean	1	5	4	10	25,6
400.000tik gora	0	1	2	3	7,7
EE	2	7	2	11	28,2
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

(*) Zenbait kasutan ez da jakiterik izan deklaraturako diru-sarrerak lanaldi osoari dagozkion edo erdiari edo asteko zenbait eguni.

Normalki, jasotako iritziek azken urte hauetan diru-sarrerek behera egin dutela adierazten dute. Zenbait kasutan hileroko diru-sarreretan adierazitako kopuruak benetako diru-sarrerak baino txikiagoak direla konprobatu ahal izan da. Azterturiko kasu bakar batean ere ezin daiteke aurkakoa suposatu.

Oro har, erantzuten ez dutenak bi taldetan banatzen dira: zenbat irabazten duten ez dakitenak edo asko alda daitekeen kopurua irabazten dutenak, eta, bestetik, kopuru oso handiak irabazten dituztelako erantzuten ez dutenak.

Kalea: 2 emakumek ez dute erantzun. Bere taldeko %25 da. Batez bestekoa 250.000 pezeta ingurukoa da. Muturretako balioak ezabatuz (altuena 500.000 eta baxuena 50.000), lanaldi osoko deklaraturiko hileroko diru-sarrerak 160.000 eta 400.000 pezeta artean egongo lirarteke.

Kluba: 7 emakumek ez dute erantzun. Bere taldeko %35 da. Batez bestekoa 330.000 pezeta ingurukoa da. Muturretako balioak ezabatuz (altuena 650.000 eta baxuena 200.000), lanaldi osoko deklaraturiko hileroko diru-sarrerak 225.000 eta 400.000 pezeta artean egongo lirarteke.

Etxebizitza: 2 emakumek ez dute erantzuten. Bere taldeko %18 da. Batez bestekoa 400.000 pezeta ingurukoa da. Muturretako balioak ezabatuz (altuena 1.000.000 eta baxuena 100.000), lanaldi osoko deklaraturiko hileroko diru-sarrerak 375.000 eta 500.000 pezeta artean egongo lirarteke.

Bateragarria al da prostituzioa beste lan edo ikasketa jarduerekin?

BESTE ZENBAIT JARDUERA	TIPOLOGIA			GUZTIR.	%
	Kalea	Kluba	Etxeb.		
Beste lan jarduera batekin	2	8	3	13	33,3
Heziketa ikastaroekin	3	1	1	5	12,8
Ezerekin ez	3	8	6	17	43,6
EE	0	3	1	4	10,3
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

Gure berriemaileen artean ia erdiak prostituzioaren jarduera beste lan jarduera edo heziketa ikastaro batekin bateratzen du. Txosten honetan erabilitako tipologiaren arabera, "kluba" tipologiako berriemaileek, oro har, beste lan jarduera bat izaten dute. "Kale" tipokoak dira hezkuntza jardueraren bat izateko joera handiena dutenak. Azken egoera horrek gure berriemaileekin harremanetan jartzeko erabilitako iturriarekin du zerikusia, hau da, prostituziorik marjinalenean aritzen diren emakumeekin lanean aritzen diren elkarteekin.

Orokorrean, edozein izanik ere tipoa, egiten duten lana kalifikazio baxukoa eta etxeko lanei, zaharren zaintzari eta ostalaritzari loturikoa izan ohi da. Emakumeen kolektibo hori, txostenaren lehen zatian "bizitza bikoitza" delakoari loturiko emakumeekin ezin da parekatu, azkeneko kasuan prostituzioa kalifikazio handiagoko ogibideen diru-sarrerak areagotzeko burutzen baita, eta ez alderantziz.

Burutzen dituzten heziketa ikastaroen profila baxua da: ofimatika, tapizeria ikastaroak, etxeko laguntza eta hizkuntzak (ingelesa eta gaztelania). Dena den, gure berriemaile batek publizitate-materialen diseinua ordenadore bidez izeneko ikastaroa burutzen ari dela adierazten digu, eta beste batek berriz ekimena, jarrera ekintzailea eta negozio-sena azaltzen ditu:

"Informatikari ekin diot, internauta naiz eta WEB orriak egiteko ikastaro bat egin behar dut. Eta orri bat ireki behar dut arropa sexya saltzeko eta ordenadore bidez streepteasea egiteko. Klub bateko jabearekin ere hitz egin behar dut dantzaleku bat irekitzeko eta ikuskizuna sarean jarriko dut".

Prostituzioan hasi aurretik beste lan jarduerarik ba al zuen?

BESTE LAN JARDUERA BAT PROSTITUZIOAN HASI AURRETIK	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Etxeb.		
Bai	4	10	7	21	54
Ez	3	10	4	17	44
EE	1	0	0	1	2
GUZTIRA	8	20	11	39	100,0

Gure berriemaileen artean, erdiak baino gehiagok ordaindutako beste lan jarduera bat izan zuten prostituzioan hasi aurretik. "Etxebizitza" tipoak beste jarduera bat izandako emakumeen proportziorik handiena jasotzen du. Hala ere, tipo guztietan elkarrizketatutako emakumeen erdia behintzat egoera horretan dago.

Aldakuntzaren arrazoiek behar ekonomikoei erantzuten diete, bai estatuko zein atzerriko emakumeentzat. Guztiek uste dute saltzeko duten baliotsuena bere gorputza dela eta horrek kalifikazio baxu eta ordain eskaseko lan "normalizatuek" baino diru-sarrera askoz ere altuagoak izatea ahalbidetzen diela.

Burutu zituzten lan jarduerak zerbitzuen sektorearekin zuten zerikusia. Ile-apaintzaile, saltzaile, zerbitzari, sukaldari eta idazkari ogibideak aipatzen dira, neskametzaz gain.

BEREN BURUA ETA SEKTOREA ULERTZEKO MODUA

2.5

BEREN BURUA ETA GIZARTE IRUDIA ULERTZEKO MODUA

2.5.1

Bere burua ulertzeko modua

Nork bere burua prostituta aitortzea zaila da. Elkarrizketatutakoek gaiari ihes egiteko joera zuten mingarria egiten zitzaielako eta errealitate gogorarekin aurrez aurre ipintzen zirelako. Kapitulu honetan bere jardueraren gizarte estigmatizazioaren aurrean beren burua justifikatzeko egindako hausnarketak nahasten dira. Batzuek prostituzioan jarduten duten emakumeak direla aitortzen dute, baina horretarako moral bikoitz bati heltzen diote, eta horrela

gauza bihurtzen dute beren burua, eta gorputza lan tresna soil bat dela esanez justifikatzen dute beren burua.

"Nik badakit prostituta naizela, baina nire inkontzientean langileztat jotzen dut nire burua. Nire adiskideek badakite prostitutak direla, baina lan bat bezala ikusten dute, besterik gabe, eta ez gizarteak ematen dion zama txar horrekin".

Neurketa mailari dagokionez, bada ogibidea lotsakor gisa definitzeko zalantzarik ez duenik:

"Nik neure burua prostitutatzen dut, lan hau egiten baduzu ezin zaitezke pertsona zintzo bat bezala sentitu".

Elkarrizketatutako emakume gehienek prostituta hitzak duen zama gutxiesgarriaren eta gizarteak bere jarduerarekiko duen ikuspegiaren aurrean, plazerik gabe "bekaturik" ez dagoela eta beraz burutzen duten jarduera sexuaren profesional bezala burutzen dutela esanez defenditzen dute bere burua. Hala ere, interpretazio mota horren zama morala eta beraien diskurtsoak ohiko moralitateari loturik daude, beraiek igorle leialak izanik.

"Guk prostituta (lana) izatea eta puta izatea bereizten ditugu. Prostituta izatea lan bat da. Gu bagara eta horregatik kobratzen dugu. Ez gara plazeragatik joaten gizon batekin, diruak eraginda baizik. Niretzat lan normal bat da, ez naiz puta bat, nahiago dut prostituta deitzea. Putak besterik gabe jotzen du larrua eta berdin zaio kobratu ala ez".

"Niretzat profesionalak gara eta era horretan egiten dugu lan. Ez zait prostituta hitza gustatzen. Sexuaren profesional deitu behar litzateke. Klub batean aritzeko trebea izan behar da. Puta doan aritzen dena da".

Bere jarduerari buruzko pertzepzioaren barruan, kontuan hartu beharreko beste osagai bat bere jardura lan zentroetan bakarrik sumatu beharrena da. Ez zaio inoiz jakitera emango beren hurbileko familiari eta inolaz ere ez bere seme-alabei. Hori guztia nagusitzen den ordena moralaren gaizki esanetatik babesteko arrazoia argudiatuz. Ezkutatu behar horrek, janzkera eta hizkeraren irudia asko zaintzera bultzatzen ditu:

"Niretzat tabua da ez baitut nahi prostituta naizela inor ohar dadin, eta prostituta izateaz gain ama naiz. Babestu beharreko familia daukat, ez ekonomikoki bakarrik, moralki ere bai... (..) Nire lanetik irteten naizenean arropa diskretua eramatea gustatzen zait. Uniformea albo batera utziko banu bezala da".

Beren burua prostituta gisa aitortzeari uko egiten dioten kasuetan, gaixotasunera jotzen dute drogaren menpekoek egiten duten bezala:

"Nik ez dut nire burua prostitutatzen hartzen. Droga dela medio gaixorik nagoela uste dut eta horregatik aritzen naiz prostituzioan. Jendeak gizarteko zabortzat hartzen gaitu".

Edo zoritxarrera, bere egoera ekonomiko edo afektiboa dela eta:

"Oso gogorra eta zaila da nork bere buruari prostituta deitzea. Gorputza saltzea da, nire lagunekin hain prostituta sentitzen ez naizen arren. Lan baten gisan ikusten dut. Oso desatsegina da baina beharrak bultzatuta egiten dut eta lan bat bailitzan ikusi behar dut. Nire barruan ez naiz prostituta sentitzen".

"Profesionalki ez dut nire burua prostituta ikusten, zorte txarra izan duen pertsona normal bat baizik. Ez litzaidake gustatuko Brasilen prostituta gisa ikustea. Hemen ez da hain gogorra. Puta hitz zakarra da eta irain bat, prostituta hitzak ez du zama hori. Ahaztu egingo dudana bizitzaren zati bat da hau, eta bizitzeko beste era bat aurkituko dut".

Beren gizarte irudia ulertzeko duten modua

Emakume atzerritarren artean EAEko gizonek adierazitako arrazakeria edota xenofobiari buruz jardutea nahikoa arrunta da. Izan ere, gizonek beltzak izate hutsagatik, brasildarrez hitz egiteagatik edo latinoamerikar azentua izateagatik prostitutatzat hartzen baitituzte.

"Atzerritarrak garenez, era txarrean begiratzen gaituzte eta kalean esamesaka ibiltzen dira zertan zabiltzan jakin gabe. Atzerritarrak izate hutsagatik denak prostitutak garela uste dute. Zuregana hurbiltzen dira taberna batean, zuri prezioa jartzeko asmoarekin... Nire herrialdean hau ez dago ongi ikusia eta horregatik daude horretarako hain leku gutxi. Hango jendeak ez du onartzen".

Beste zenbaitek argi dauka gizarteak, onartu ez arren, prostituzioa beste ogibide bat gehiago bailitzan onartzen duela:

"Nik uste dut jendeak drogazale eta marjinatu gisa ikusten gaituela eta bakardadea izugarria da".

"Uste dut gizarteak guregandik duen irudia txarrean dela. Beti kakaren pare ikusten zaituzte eta autoestimu ikastaroak emanda ere oso zaila da horrekin apurtzea. Zinismo asko dago eta ez da esaten zenbat bilioi mugitzen dituen".

Gizarteak jardueraren interpretazio ezkorrean izan ditzakeen salbuespenenak, prostituzioan aritzen diren emakumeen portaera indibidualari loturikoak dira:

"Gizarteak duen irudia zure jarreraren araberakoa da. Nik ez nuen inoiz arazorik izan eta tratu ona izan da. Hemen jendeak ongi tratatu gaitu beti, normalean ona eta edukazio onekoa da. Han, Venezuelen prostituzioa okerrago ikusia dago, eta zenbait estatutan poliziaren agiri bat atera beharra dago".

Ohikoa da hemengo errealitatea eta beren jaioterrietakoen arteko konparaketak egitea, batez ere, Atlantikoa gurutzatu aurretik ogibidearen ezagutza zutenen aldetik. Bitxia dena zera da: eginiko elkarrizketetan errealitate horiei ez zietela xehetasun kritikorik erantsi, naturalizat hartu zituzten.

"Gure herrialdeetan pertsona bat honetan aritzen dela jakiten bada, guztiek baztertu egiten dute. Han prostituzioa oso gaizki ikusten da. Kolonbian adibidez, ile horaila izatea, puta izatearen sinonimoa da. Venezuelen eta Kolonbian fitxatuagoa zaude. Osasungintzara joatea nahitaezkoa da 8 edo 15 egunean behin. Horren gainean kontrol handia daukate. Emakume bati gaixotasun bat aurkituz gero, sendatu arte baztertuta edukitzen dute".

Familiarekiko harremana

Emakume atzeritarren artean familiaren kontzeptua ez da familia nuklearrarena, familia zabalarena baizik. Eta familia hori ekonomikoki babesten dute eta bere diru-sarreraren jatorria ezkutatzen diote:

"Nire familiak ez daki zertan aritzen naizen eta seme-alaba helduak ditudan arren ez dakite ezer, zer imajinatzen duten beste kontu bat da".

"Nire familiak ez daki... nire lehengusinak bakarrik... nire amak badu susmoren bat... Nire seme-alabei ez diet inoiz esango. Eta abar".

Depresioak izan edo kasualitate baten ondorioz familiako norbaitek ogibidearen berri izaten duen kasuan, normalean ama izaten da. Orduan, konplizitate bat sortzen da eta jarduera horretan ibiltzeko erabakia onartuko ez duen arren, amak lagundu egingo du.

"Nik ezin diet nire seme-alabei bizitza hain era garratzean suntsitu. Nire familian amak bada-ki eta asko laguntzen dit lur jota nagoenean".

Emakume atzeritarrek ogibidea neurosi apur batez bizi dute, badakitelako familiak bere diru-sarreraren jatorria ezagutuz gero hain beharrezko duten ingurune horretatik baztertuak eta kanporatuak izango liratekeela. Dena den, susmoa beti hortxe egongo dela aitortzen dute, komunikazioaren globalizatzek beren herrialdeetako telebista programek gaiaz eten-gabe hitz egitea ekarri baitu.

"Anaiak etxetik bota ninduen gauetz lan egiten nuela jakin zuenean eta nire osaba-izebek jadanik ez dute nirekin hitzik egiten. Nire seme-alabei ez diet inoiz esan honetan lan egiten nuenik, ez nuelako nahi beraien ama fulana bat zela pentsa zezaten".

Prostituzioan aritzen diren estatuko emakumeek gaiari heltzeko beste modu bat erabiltzen dute. Familiaren presioa txikiagoa dela deritzote eta harreman hori egunero mantentzeko beharrik ez dute ikusten. Dena dela, bereganako begirunea ezkutatzeari edo gutxienez gaia ez zabaltzeari dago oinarriturik.

"Nik hiru alaba ditut eta Jainkoari esker bat bera ere ez dago giro horretan. Aita desberdinen alabak dira eta ez dituzte ezagutu. Ez nuen abortatu izan nahi, ez nituen adopzioan eman nahi eta zaharrena bakarrik izan banu, ez nuke hainbat denbora iraun izango giro horretan. Beraiek badakite horretan jardun dudala baina nahiago dute galderarik ez egin eta nik errespetatu egiten ditut. Familiarekin beti izan dut edukaziozko harremana. Urrunekoa baina hala ere partaide bat izan naiz beti, eta ezkontza edo jaunartzeren bat izanez gero ez naute inoiz baztertu...".

Gizarteko aldaketek ere badute beren isla prostituzioaren munduan. Aldaketa horiek burutzen den sexu motaren gain ere eragiten dute. Gure solaskideen iritziz, telebistaren pape-ra garrantzitsua da ez-ohiko sexuaren eskaera bultzatu eta suspertzeko orduan.

Familia eta ezkontzaren ideian ere badute eragina aldaketa horiek. Familiako instituzioari loturik ez dauden sexualitatearen beste zenbait forma ohiko ikuspegiarekin norgehiagokan hasi daitezke. Ohiko ikuspegi horren arabera, urratze onargarri bakarra prostituzioa zen.

Era berean, gizartearen bilakaerak arazoak dituen gaztearen irudia, desengainatua, galdua edo ama ezkongabea baztertu egin ditu, eta jadanik errealitateari ez dagozkion klixeak dira. Erakundeek eskaintzen duten gizarte babesari esker, gazte batek bizibidea ateratzeko prostituzioan hastea asko mugatzen den ekintza bilakatu da. Emakumearen independentzia handitzea prostituzioan ere igartzen da: txuloaren irudi klasikoa pixkanakako desagertzen ari da.

Migrazioak sakonki eragiten du sektorean, prostituzioan aritzen diren lau emakumetik hiritan eragina baitu.

Herri mailako beste zenbait aldaketa ere prostituzio zirkuituak aztoratu dituzte. Las Cortes gunearen kasuan, auzo txinatarra bezala onartua egotetik, lurralde zabalean eragina izanik, prostituzio marjinalaren gune izatera pasa da.

Enpresa mailan ere prostituzioak eraldatu egin behar du. Bere berehalako eraginak etxebizitzaren ugartzea izan behar du, beheakadaren ondorioz erretiraturik doazen klubak aurrean.

Teknologiaren eragina ere sumatzen da. Telefonía mugikorrak, adibidez, bere kasa dabilen prostituta agertzea errazten du, hemen aztertutako bideetatik at. Edo zenbait emakumek lan egiten duten establezimendutik kanpo kontaktuak burutzea. Gaur badago ezkutuko prostituzioa –adierazpide hori erabil badaiteke ekonomiako sektore ez formal baten barruan– agian ohiko erakundean baino garestiagoa, eta, hain zuzen, komunikazio teknologia berriek errazten dute.

Txostenaren azterketa esparruan –ohiko kale, klub eta etxebizitza erak– gure elkarrizketatuen naberitu ditugun berehalako eraginak ondokoak dira:

- Eskaeraren jaitsiera.
- Eskaintzaren gorakada emakume migratzaile mordoa sartu delako.
- Prezioen beheakada, aurreko faktoreen ondorioa.
- Klubak eraldaketa eta merkatuaren galera.
- Ohiko txulo edo makarraren figuraren desagertzea eta prostituzioaren enpresa negozioaren indartzea.
- Etxebizitzaren zirkuituen gorakada bezero eta emakumearentzat era ziurragoa izanik.

- Lan baldintzen gogortzea.
- Kaleko prostituzioan arriskuen gorakada.
- Etxebizitzetako prostituzioan arriskuaren beherakada.

Beraiek horrela adierazten dute:

Eskaintza eta eskaeraren arteko desoreka

"Asko jaitsi dela igartzen da. Klub asko itxi dituzte. Bezero asko erretiratu dira. Gainera lehen gehiago ordaintzen zuten. Baina gaur egun konpetentzia handia dago. Atzeritar gazteagoak dira eta deigarriak gertatzen dira, eta gainera gutxiago kobratzen diete, lokaleko jabeak adierazitakoa kobratzen dutela esan arren. Nahiago dute bezero gehiago izan, bakoitzarekin gutxiago irabazi arren".

"Hau oso pattal dago. Nik uste dut gizonak lehen baino diru gutxiago daukatela, edo ez direla seguru sentitzen. Gainera pertsonen mentalitateak aldaketak jasan dituzte. Klub asko ere ireki dituzte. Aldaketa azken urteotan nabaritu dut. Jendeak bidaia gehiago egiten ditu, turismo gehiago egiten du... horrek esan nahi du honetarako diru gutxiago duela".

Emigrazioa

"Gero eta neska gehiago iristen dira eta prezioak behera doaz. Bestalde kalean konpetentzia gorantz doa. Lehen putetxeetan zeuden beltzaranak kalean lan egiten hasi dira orain".

"Emakume afrikarrak eta ekialdeko herrialdeetakoak daude. Latinoamerikarrak batez ere brasildarrak eta kolonbiarrak dira. Atzeritar asko iritsi da 94az geroztik".

"Atzeritarren boom honek dezente egin du behera, ez baitira behar bezala antolatzen. Ez zuten bezeroa mantentzeko asmorik, dirua besterik ez zuten bilatzen. Ni hasi nintzenean neska atzeritarren eskaera handiagoa zen, horixe zen berritasuna".

"Baldintza kaskarrenak errepideetako klubetako atzeritarrek dituzte. Pasaportea kentzen diete, ez dituzte irteten uzten, hamar ordutik gora lan egitera behartzen dituzte ...".

Aldaketak sistemaren antolakuntzan

"Azken urteotan aldaketa asko egon direla entzun dut nik. Txuloen konturik ez dut ezagutu, baina uste dut neskak bere buruaren jabe egiten ari direla".

"Orain afrikarren kasuan txuloak beren senitartekoak izaten dira".

"Etxebizitzetan klubetan baino lan gehiago egiten da, klubetan emakume gehiegi dago eta. Etxebizitzetan aukera handiagoa egiten da. Ni Bilbora iritsi nintzenetik proxeneta gutxiago dago".

"Jadanik klubak baino etxebizitza gehiago daude. Orain konpetentzia atzeritarren eta europarren etxebizitzaren artekoa da. Baina bezeroak betikoak dira".

"Prostituzioaren funtzionamendua asko aldatu da. Lehen ez zen etxebizitzarik. Gizonek nahiago dute diskrezioa".

"General Conchan neskei egunero 10.000 pezeta kobratzen zaizkie nahitaez. Klubetan ez zen horrelakorik gertatzen. Paperen kontua kobratzeko beste aitzakia bat da. Klub batzuek abokatuak izan ohi dituzte".

"Etxebizitza batean lan egitetik klub batean lan egitera sekulako aldea dago. Etxebizitzan ordutegia zeuk aukeratzen duzu, diskrezioa nahi duen jendea joaten da eta ez dute nahi klubetan ikus ditzaten".

"Etxebizitzak dagoeneko beteta daude. Gaur egun egunkarietan iragarri beharra dute. Mugikortasun handia dago. Mugitzen denari ongi doakio".

"Sakelako telefonoak lana distortsionatu du, neskak bezeroekin etxebizitzatik kanpo egiten baitute hitzordua".

Aldaketak ogibidean hasteko arrazoietan

"Orain drogazaleak dira, jokora engatxatuak eta esplotaturik ekartzen dituzten atzeritarrak. Gaur egun haurdun geratuz gero, ez zaituzte etxetik kanporatzen eta erakundeek babes gehiago eskaintzen dizute. Hori guztia aldatu da gizartearen aldaketaren dela".

Beraz: lehenago lokal bakoitzeko arauak zuzendutako jardueraren autonomia zen prostituzioa. Prostituta bere autonomia zuen jabearekiko, baina proxeneta edo txuloaren menpe zegoen. Gaur egun prostituzioak birmoldaketa prozesua bizi du, ekonomia formalaren ereduak kopiaatzeko joerarekin, prostituta autonomoaren gainetik erakunde enpresariala jarritz. Errepideetako klubak dira erakunde eratuena dutenak, zenbat eta ekonomia kriminaletik hurbilago are eratuagoak.

Etxebizitzek lanaren enpresari erakundearen berri bat ordezkatzeko dute, sektoreko ekonomia informaleko eredu tipiko bezala. Zenbait jardute paternalista besteren lanaren esplotazioaren eraginkoragoekin nahasten dira. Eraginkortasunaren hobekuntza horiek jarduteko eraginkortasunaren ahalbidetzen dute.

Paraleluki prostituzio jardueraren kontrolatu gabeko erakunde elkarbizitza da. Batetik, ohiko kaleko prostituzioa marjinaltasun eta arrisku handiko jardueraren bilakatu da. Eta bestetik, komunikazio teknologia berriek indartutako autonomia eredu berritzaileak.

Ohiko praktikan, negozioaren oinarritzeko bi sistemek jarraituko dute elkarbizitzen: klubak eta etxebizitzak. Bi sistema horiek hainbat bezero eta erari erantzuten die, eta ondorioz ez diote elkarri konpetentziarik egiten eta bezeroen bilakaera eta eskakizunetara bilakatuz joango dira. Dena den, emakumeentzat alternatiboki sartu ahal izango diren eratuak bi aukera izaten jarraituko dute. Gainera, ogibidearen eredu autonomoekin bateratu ahal izango dituzte. Epe motzean "klubeko prostituta" eta "etxebizitzako prostituta" artean espezializazio prozesu bat ematea gerta daiteke.

Bik izan ezik, guztiek, asoziazionismoa ez dute bideragarria ikusten. Beraien artean ez baitago kontzientzia kolektiborik, eta lan harremanak eskaintza pixkanaka eskaera gaindituz doan sektore bateko lehiak ezartzen ditu. Hala eta guztiz, informazioa elkartrukatzeko eta segurtasun ezaren kasuan edo bezero mozkor edo oldarkor baten aurrean, elkarren babesa bilatzen dute.

"Ez dut uste kontzientzia kolektiborik dagoenik. Agian batzuek badute. Nire giroan ez bederen. Prostituzioan aritzen ez diren emakumeekin ibiltzen saiatzen naiz".

"Harremana txarra da. Bezeroak direla eta elkarri atzapar egin nahirik ibiltzen dira. Ez dago adiskidetasunik. Dena da inbidia, nagusikeria eta gorrotoa... Nire astialdian ez dut lan esparruarekin harremanik izaten. Bezero bat kentzerik badute, kendu egiten dizute. Putada bat egin badiezazute, egiten dizute. Beti antenak jarrita egon behar duzu. Espainiarrak kontu gehiagoz ibiltzen dira, zein den jakin dezakezulako eta ondoren min eman diezaiokezu bere familiari esanez. Baina atzerritarrek ez dute atzera egiten".

Batzuen iritziz asoziazionismoa ezinezkoa da prostituzioan lan egiteak beregan duen ezkutatzea dela eta; eta ez litzatekeelako bideragarria beraiek iritzi publikoaren aurrean azaltzea, batez ere familiaren aurrean beren irudia babesteko duten beharra dela eta:

"Gure arteko harremanei dagokienez, esan diezazuket Bilbotik kanpo beste leku batzuetan lan egin dudala eta gure arteko elkartasuna handiagoa zen. Elkarri gehiago laguntzen genion. Hemen zatituagoak gaude. Asoziazionismoa oso zaila da publikoki agertzearen zailtasunagatik. Nire lan esparruan, adibidez 20 baldin bagara, guztiak ez dira lagunak, lankideak dira. Laguntzat 3 edo 4 bakarrik ditut, elkar babesten dugulako".

Kaleko prostituzioan aritzen diren emakume drogazaleen kasuan, beraien arteko harremanak droga lortzeko babeserako sare natural bezala dago markatuta:

"Batzuetan zaldia erosi ahal izateko elkartu ohi gara. Eta nik 2.000 pta. baditut eta besteak 1.500, droga lortzeko erlazionatzen naiz, hortik aurrera ezer ez. Auzotik irteten dudanean lan egiteko edo drogatzeko izaten da".

la guztiak bat datoz lana familia edo aisiarekin nahasten ez dutela adierazteko orduan. Bakarrik daudenak eta babeserako sare familiarrik ez dutenak soilik jartzen dira harremanetan lankideekin, kalera irten edo ongi pasatzeko:

"Lagunak girokoak izan ohi dira, beti bilatzen baituzu zure antzeko jendea, lana familiako bizitzarekin nahastu ez arren".

"Gainerako neskekin oso ongi konpontzen naiz. Gure artean barrena husteko beharra daukagu, baina ez dut beraiekin hitzordurik egiten hortik zehar ibiltzeko".

"Ongi pasatzera irteten naizenean nahiago dut beste giro batzuetan ibiltzea, eta noski, ez dut inoiz esaten klub batean lan egiten dudarik. Nire lankideekin harreman ona dut baina

nahiago dut bakarrik egon inbidiarik sortu ez dadin. Zeure burua zaindu behar duzu. Gehienetan nire ahizparekin irteten naiz".

Elkarrizketatutako batzuei bakarrik iruditzen zaie bideragarria lana eta beraien arteko laguntasuna edo aisialdia nahastea:

"Ni mundu guztiarekin ongi moldatzen naiz. Prostituzio giroan harreman ona dut neska guztiekin. Zerbait hartzera irteten gara, oporretara, barre egiten dugu ... Lagunak eta lankideak gara. Nire ogibidea ezagutzen ez duten giro batean ere egoten naiz. Nirekin ikastaroak egiten dituen jendearen giroa. Zertan aritzen naizen galdetzen didatenean, neskamea naizela eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen dudala erantzuten diet".

PROSTITUZIOA UZTEARI BURUZKO IRITZIA

2.5.4

Prostituzioa uztea ikuspegi bikoitz batetik planteatzen da. Batetik, emakumearen duintasun eta segurtasunerako hain oldarkorrak ez diren lan normalizatuak bilatzeko eratik bideratzen da. Eta bestetik, prostituzioan aritzeko erabilgarri den bizitzaren denboraldiaren ondoren emakume horiek duten aspirazioaren alternatiba gisara. Bi ikuspegi hauek elkarrizketatutako emakumeengan aurki daitezke; baina zalantzarik gabe bigarren ikuspegiak arduratzen ditu gehien.

Elkarrizketatutako emakume gehienek prostituzioa uzteko gogoia adierazi zuten, aurrez azaldutako arrazoiak direla eta; oso lan astuna da, arriskutsua, baztertzaila, etsigarria eta sarritan beren baloreekin aurrez aurre jotzen duena. Baina dirua izanik lanari ekiteko arrazoi garrantzitsuena eta kasik bakarra, dirua da prostituzioa uzteko eragozpen nagusia ere.

Diruaren beharrari lotuta prostituzioa uztea eragotziko luketen beste zenbait arrazoi azaltzen dira. Droga menpekotasun arazoak izanik prostituzioan aritzen diren emakumeen kasua da; lehendabizi droga utzi beharko lukete eta ondoren beste ogibide bati ekin. Beste pisuzko arrazoiak paperen gabezia da. Paperik gabe prostituzioa lanbide ziurra da eta familiarako aurrezpen modua. Azkenik elkarrizketatutako batzuk pentsatutako negozioa ezarri edo beren jaioterrira itzultzeko adina diru aurrezterik oraindik ez dutela lortu adierazi dute.

Ikus ditzagun zenbait testigantza:

"Momentuz honetan lan egiten jarraitzea gustatuko litzaiguke paperen arazorik gabe eta kontratua sinatuz. Horixe gustatuko litzaigukeela, adibidez, pub batean edo dirua bidali eta etxea erosteko aukera emango ligukeen lan batean aritzea".

"Gehien desio dudana hau uztea da, nire alaba ekarri, lan egin, bizitza normala izan eta paperak lortzea. Aurten lan honetatik atera beharra daukat".

"Laster utzi behar dut, jadanik Brasila itzultzeko txartelaren jabe naiz".

"Norberak bere etorkizuna bilatu behar du, honetatik ezin baita beti bizi. Saltzaile ona izateko gai naizela uste dut. Gai horretan ez nuke heziketarik beharko".

"Ez dut uzten ez dudalako lanik aurkitzen. Aurrezle ona naiz, baina gehienek arropa erosten dute eta ez dute neurririk hartzen. 150.000 eta 160.000 pezeta arteko lan batengatik utziko nuke, baina ez nazatela zaborra banintz bezala tratatu".

"Prostituzioa uztea gustatuko litzaidake, bi lanekin (prostituta eta neskamea) asko nekatzen naiz eta. Baina hilean niretzat bakarrik 150.000 pezetako diru-sarrerak emango lidazkeen lan bat aurkitu beharko nuke".

"Alokairua ordaintzeko laguntza bat eskatzen ari naiz, lan bila aritzeko lasaiago egoteko".

"...Dena diruan laburbiltzen da... Hemen neskame edo garbitzaile lanak bakarrik aurki ditza-kezu. Gainera atzeritarrok ez gaituzte kontratatu nahi garbiketarik kanpo eta klubetan baka-rrik egin dezakegu lan".

"Hau nekagarria da, erre egiten zara... asko estutzen zaitu ... sufrimendua ez du diruak kon-pentsatzen. Josteko makinekin lan egina naiz, baina hemen ez dago horrelakorik. Bere ordutegia eta soldata dituen lana izango nuke gogoko. Kontratu bat segurtasun bat izate-ko".

"Beste batzuk diruaren bizioa daukate eta horiek prostituzioan hilko dira".

Hori da elkarrizketatutako guztien tonu orokorra. Testigantza horiek islatu ditugu, baina adie-razi gabe geratu diren antzekoak ere izan zitezkeen. Jaioterriak, aurreko jarduera edo itxa-ropenen maila bakarrik aldatzen dira. Klub baten jabearen ondorengo erantzuna sekulako harribitxia da:

"Nik ez dut uste nire klubeko neskak lana aldatuko dutenik. Ontziak garbitzen hasten badi-ra, gutxiago irabaziko dute, eta hori ez zaie gustatzen. Dena den bakoitzaren arabera kon-tua da. Nire ustez bakar bat ere ez dago gustura lan honekin, baina ez dute beste irtenbi-derik. Jasan beharra daukate".

Orokorki balizko lan aldaketa baten aurrean ez dira oso zorrotz azaltzen. Askok, gizarte segurantzaren barne, 150.000 eta 200.000 pezeta artean irabaz dezaketen lan berri baterako aspirazio teorikoa adierazten dute. Baina eragozpenik handiena –gure iritzian– diru erraza-rekiko mendekotasuna da. Diru hori, era berean, erraz gastatzen da, beren ametsak lortzea eragotziz. Mendekotasuna elikatzen duen zirkulu zaharra. Horrela, aldi baterako ogibidean jardutearen helburu nagusia den aurrezki hori gutxitan lortzen da; aldi baterako denbora hori betirakoa bilakatzen da, eta 50 urte izatearen mamua azaltzen da... Gero eta gutxiago ira-baziko dute, gero eta osasun txarragoa izango dute eta gizarte segurantzaren ezertxo ere koti-zatu gabe, lan bergizarteratze programen menpe edo azkenik sorospen publikoaren menpe egongo dira. Hori dela eta, legeztatzea irtenbide bezala ikusten dute edo beren itxaropenak erakundeengan finkatzen dituzte. Bereziki, gizarte erakunde ahulak dituzten herrialdeetatik etorritakoak.

Dena dela, badiirudi argi dagoela atzeritarrek familiaren berrelkartzearen bidetik utziko luke-tela, eta beste batzuek, beren jaioterrietara itzuli, etxea erosi eta negozioa ezartzeko adina diru bildu ahal izan dutenean.

BEZEROA

2.6

HARREMANETAN JARTZEKO ERA

2.6.1

Ogibidearen edozein alderditan kokatu ondoren, lana bezeroa erakartzearekin hasten da, hau da, harremanetan jartzeko erarekin.

Kaleko prostituzioan aurrez adostutako taberna eta klubetan ateetan ezarritako amuen bidez sortzen da. Baina prostituzio marjinaletik kanpo, ohikoena establezimendu baten barruan kontaktatzea izaten da, hau da, prostitutak "kluba" deitzen duen horretan.

Ez da zaila susmatzea zein eratan hurbiltzen diren bezero izan daitekeenarengana eta nola sortzen duten beren zerbitzuen beharra. Beraiek horrela ikusten dute:

"Ni bezerorengana hurbiltzen naiz, batzuetan berak deitzen zaitu... Era askotan losintxatzen ditut, gizon bakoitzak bere egoa baitu, eta hori da harremanetan jartzeko era. Gehienek, normalki, ongi erantzun didate, eta ongi tratatu naute eta kopa bat besterik nahi ez badute, ez diet bultzatzen eta bakean uzten ditut. Orokorki antzerkia ongi egiten dugula iruditzen zait".

Klubetan lan egiten duten elkarrizketatuei ere antzeko zerbait gertatzen zaie. Hala ere, klubetan kasuan soldatuen jarrera edo ikuspegiak azaltzen dira. Zenbait kasutan klubek prozedurak, exijentziak eta diziplinak ezartzen dizkiete:

"Errepideetako klubetan 15 minuturako bezeroarengandik ezer lortzen ez bazenuen, isuna ezartzen zizuten".

"Nik ordutegia beti betetzen dut eta ezin naiz nire kasa aritu. Jenderik ez badago, batzuetan lehenago irteten gara".

Badira klubetako misioak ere:

"Batzuek kalera irteten nahi izaten dute, baina nik ez dut horrelakorik egiten arriskua baitakar. Badira egiten duten lankideak. Batzuetan jabeak gomendatzen dizu, bezeroa dela eta abar esaten dizu, baina aukeratzeko askatasuna ematen digu".

"Normalean geu gara hurbiltzen garenak. Etxera eramaten ditudan klubeko lagunak dira. Nik ezagutzen ez dudana inor ez dut etxera eramaten. Harremana klubean sortzen da".

Etxebizitzetan harremanetan jartzeko era oso desberdina da, bezeroarenganako hurbiltzea ez da hain zuzena. Kalerako eta klubetan norberaren lilurekin jokatu da eta era batean bezeroa lortzeko nahitaezko gaitasunak dira. Etxebizitzetan bezeroa prozedura sofistikatuago batez ordezkatu da, eta bezeroak –orain bai, etxebizitzara iritsi ondoren berak aukeratu

du emakumea– erakunde batengan konfiantza gehiago adierazten du pertsona batengan baino.

"Bezeroak egunkariko iragarkia ikusten du, agentziara deitu eta horrek 20.000 pezeta kobratzen dizkio. Diru hori kontu korronte batean sartzen da eta horrek nire telefono zenbakia edukitzeko eskubidea ematen dio. Lehen beraiekin kafe bat hartu ohi nuen nolakoak ziren jakiteko".

Taberna eta klubetan bezeroak noizbehinkakoak dira, ez dira joaten ezinbestean sexua kontsumitzera eta bezeroen joera hori neurri handi batean emakumeen lanerako eta antzerkirako gaitasunaren arabera izango da. Etxebizitzetan aldiz, bisitaria jadanik bezeroa da, nahi duen emakumea aukeratzea baino ez zaio falta, eta hori esperotako eskaintzan aurkituko du zalantzarik gabe. Produktuaren aurkezpena gehiago dago erakundearen menpe, emakumea beraren menpe baino. Eta gainera aukera zabala behar da bezeroa ez "nekatze"ko". Hori dela eta sortzen dira errotazioa eta emakume beraiek martxan jarritako sistema autogestionatuak.

"Nik neskak aurkezten dizkiet –dio madame batek– arropa gardenez jantziak, eta gelara igozen dira. Astean behin etortzen diren bezero finkoak dira".

"Gure artean etxebizitza eta klubetako helbideak pasatzen dizkiogu elkarri, eta hiru astera-ko plaza eman diezagutela eskatzen dugu, edo adibidez, guztiok dakigu onena Gasteizko ... deituriko etxean lan egitea dela".

BEREN BEZEROAK NOLA IKUSTEN DITUZTEN

2.6.2

Elkarrizketatuek beren bezeroekiko duten ikuspegia emakumeak bezeroarekin ezartzen duen harreman motaren menpe dago, eta baita harremana ezartzen den egoeraren menpe ere (kalea, kluba, etxebizitza). Horiez gain, establezimendu motaren menpe ere badago, klub batzuetan gizon helduagoak ibiltzen baitira eta beste batzuetan giroa gazteagoa izaten da. Ostalaritza sektorean bezala, gizarte segmentu bakoitzak bere "tipoak" sortzen ditu, eta enpresariak negozioa bideratzen duten merkatuko segmentuari egokitutako giroak sortzen dituzte.

Orokorki bai kalean zein klubetan edo etxebizitzetan, prostituzioan aritzen diren emakumeen begirada zorrotzek gizonen alderdi lizunak islatzen dituzte. Dena den, bezeroarekiko harremanetan eskuzabaltasun eta humanismo egoerak azaltzen dituzten hausnarketak ere badira.

Profil soziodemografikoari dagokionez, kaleko giroan "gizon arrunt eta arraroak" aurki daitezke, gehienak adin ertainekoak, "langileak eta ikasketa gutxi dutenak", nahiz eta jubilatutako asko ere izaten diren. "80 urte arteko eta jubilatutako dauden bezeroak ditugu".

"Duela 7 urte kalean hasi nintzenean tipo garbiak azaltzen ziren. Baina orain joaten direnak zahar biziotsuak dira eta ezerk ez die axola". "Usain txarra darie".

Kaleko prostituzioan aritzen diren emakumeek beraien bezeroak definitzen dituztenean erabiltzen dituzten bereizgarri ilunen kontrastea "itxura oneko" gazteen presentziak nabarmentzen du.

"Nik baditut mutil gazteak diren lagunak, oso ederrak eta izugarrizko autoekin. Mutil horiek horrelako lekuetan zer egiten duten pentsatzen egoten naiz".

Klubek –bere kokapenaren arabera– era askotako bezeroak izan ohi dituzte. Hiri barruetan kokaturiko klubek zein etxebizitzek, batez ere, hiriko bezeroak izaten dituzte. Klubetako giroa berriz, eskaintza eta prezioen bidetik espezializatzen da, eta horrek bere publikoa definitzen du kultur maila eta diru-sarrerei dagokionez.

"Bezero gehienak seme-alabak dituzten gizon ezkonduak dira. Hitz egiten eta egoten dakien jendea da".

"Bigarren emaztetzat hartzen zaituzte".

Etxebizitzetan azaltzen diren bezeroen profila –elkarrizketatuen iritziz– klase ertain eta altuan kokatzen da. Herriko bezeroak izan ohi dira.

"Gizon formalak izan ohi dira, ezkutuan eta kontu handiz etortzen dira. Koadrilan etortzen badira maila altuagokoak izan ohi dira, tripa-festan ibili den jendea baita eta maila handikoa" ... "Prostitutekin ibili direla adierazten duten arrastoak edukitzeak arduratzen ditu, hori dela eta ez dugu perfumerik erabiltzen edo gizonezkoena erabiltzen dugu".

"General Conchan 40 urtetik gorako gizonak joaten dira nirekin, baina Basaurin gazteak ibiltzen dira".

"Neska-lagunik ez duten 20 eta 25 urte arteko gaztetxoak ere etortzen dira. Klase ertaineko jendea da. Nahikoa garbiak eta edukatuak. Jubilatu asko dauzkat. Beren emazteek hezurretako arazoak dituzte... hau da, ezin dute beraiekin barrena hustu. Nik nahiago ditut bezero horiek klase altukoak baino, biziotsu asko baitago".

"Batzuek ez dute gai pertsonalez hitz egin nahi eta beste batzuek esaten dizute: azkar, haurra jasotzera joan behar dut eta".

Ohiko bezeroen artean aipatzen ez diren ogibideak gutxi dira. Gainera ogibide batzuekiko ikuspegia ez da bere nahietara egokitzen dena:

"Profesionalak –ingeniari, exekutibo eta abar adieraziz– dira okerrenak, zerbitzu bereziak eskatzen baitituzte. Maila gorenekoek etxebizitzetara jo ohi dute, kluba baino diskretuagoa da eta... Biziotsu asko dago, nahiago dute fetitxismoa, sadoa,... Bere egoera ekonomikoak ahalbidetzen dietenez, edozertarako eskubidea dutela uste dute, gainerakoak baino dezentetzorrotzagoak dira eta oldarkorragoak".

Zerbitzu sexualei buruz hitz egiteak prostituzioan aritzen diren emakumeen lan jarduera apur bat murrizten du, beste osagai bat ere badago eta –hitz egitea, entzutea– batzuetan sexu jarduerari laguntzen diona, eta zenbait kasutan bezeroaren helburu nagusia izaten da.

Elkarrizketatu ditugunen informaziotik abiatuz, zerbitzuak hiru kategoriatan bana ditzakegu.

- "Arrunta", ogibideko argotean koittoa eta felazioa adierazten duena. Arruntaren bariedade moduan "naturala" dago (preserbatiborik gabeko koittoa).
- "Zerbitzu bereziak", hau da, uzikio koittoa, sado-masoa, griegoa, urrezko euria, musu beltza eta ikasgabeko publikoarentzat interpretazio zaila izan arren intuizio errazeko beste zenbait izen. Gizartean onartzen ez diren harreman heterosexualen mota batean bildu genitzake. Emakume guztiek ez dituzte eskaintzen zerbitzu bereziak, prezioa dezente igotzen den arren. Era berean zerbitzu berezi horiek badirudi etxebizitzetako jarduerekin lotura gehiago dutela, etxebizitzetan eskaintza zabalak bere nahiak era egoikienean aseko dituen aukeratzea ahalbidetzen baitio bezeroari. Elkarrizketatutako emakume multzo batentzat zerbitzu berezi horiek sexu itxuragabekeria hutsak izatea adierazgarria da, eta "txerrikeria", "gauza arraro" edo "perbertsiotzat" jotzen dituzte.
- "Laguntasun" soila, harremana ezartzeko kakoa dena, baina sarritan zerbitzu horietara jotzeko ezkutuko motibazioa bilakatzen dena.

Ondorengo testigantzek elkarrizketatutako emakumeek beren jarduerarekiko duten ikuspegia azaltzen dute.

Klubetan sexuaren bertsio estandarragoak funtzionatzen du, aurretikako aldatzeaz lagundurik. Orduka kontrata daiteke, nahi izanez gero gau osorako ere bai, eta horrek klub arrunt batean 100.000 pezeta balio ditzake. Baina klubetan eta kalean ohikoa sexu azkarra da.

"Asteburuetan mozkor gehiago etortzen dira eta sexua nahi dute: astegunetan elkarrizketa gehiago nahi dute".

"Ez dut zerbitzu berezirik egiten eta ez dut preziorik jaisten. Sexu arrunta preserbatiboa erabiliz egiten dut... Hiriko klub hau errepidekoa baino gogokoagoa dut segurtasun eta garbitasun gehiago dago eta, baina klubetan gehiago eta azkarrago irabazten da. Eta beraz ongi dabilen baten berri izanez gero, bertara hots egin eta behar adina denboraz geratzen naiz". (Errepideko Kluba)

"Beste batzuek preserbatiborik gabe egitea eskatzen dizute, beraiek justifikatzeko ni osasuntsu nagoela esaten didate. Orduan, HIESaren Aurkako Komisio batean ikasitakoa esan behar izaten diet. Oso gutxi dira laguntasun soilagatik doazenak. Lanean ari naizenetik bi besterik ez ditut ezagutu. Gogoan dut horietako batek ukitu gabe eta ezer egin gabe ordaindu zidala".

Etxebizitzetan aldiz, jarduera korapilatsuagoa suertatzen da. Zerbitzuak ere garestiagoak dira:

"Frantsesa %80k eskatzen du. Beren emazteei eskatzen ez dieten zerbait da".

"Bada fetitxismoa eta sadoan espezializatutako jendea. Okerrago pasa arren denbora gutxian diru gehiago irabazten duzu. Horrela hobeto, etxebizitzan barietate gehiago dago eta. Baina ez dut gustuko era "naturalean" lan egitea. Etxebizitzan preserbatiboak direla eta kontrol dezente dago. Nire etxebizitzara hilean behin etorri arren badakit beste batzuetara ere joaten direla. Hor dago arriskua, ez dakigu kalean zer dagoen".

"Arruntena sexua da, baina badira hitz egiten duten mutilak ere, eta maitasuna eta samurtasuna ematea gustatzen zaie".

"la beti psikologoarena egitea egokitzen zaigu. Arazo pertsonalak kontatzen dizkigute. Badira ordaindu eta ukitzen ez gaituzten gizonak, elkarrizketa eta beraiei entzutea bakarrik bilatzen dute".

BEZEROEN MOTIBAZIOAK

2.6.4

Gure elkarrizketatuek ikuspegi zorrotzez aztertu dituzte gizonak beren zerbitzuetara jotzeko motibazioak ere. Lakrikunkeriatan ibili, jazarri eta bezeroa erakartzeko beste zenbait triki-mailu erabiltzeak ez luke zentzurik izango bezeroak ez badu prostituzioak eskaintzen dizkion atentzio pertsonalen kontsumorako joera garbirik.

Oheko talaiatik bezeroak behatzen dituzte:

"Aspaldidanik psikologikoki aztertzen ditut" dio elkarrizketatutako batek.

Eta pribilegiatu bezain egoera deseroso horretatik beren bezeroen motibazioak interpreta-tzen dituzte; egoera horretatik eta –ezinezkoa da beste modu batean izatea– sexua, familia eta gizartearekiko bere aurreiritzietatik.

Beraientzat oinarritzko hiru bezero mota daude –ezkongabeak, ezkonduak eta pasadizokoak–, eta hainbat motibaziori erantzuten diete. Eta gizonetzkoen bi estereotipo daude: gizon-haurra eta ohiko zangarra.

Ezkongabeei buruz ez dute zeresan handirik, neska-lagunik ez izatea salbu, edo neska-lagu-nak ez diela sexu harremanik izaten uzten, edo maitasun beharra dutela, edo barrua hustu beharra dutela. Agian, bere ogibidea legezkotzat joko lukete hasiera erritua edo gizon bakar-tientzat barren hustea izatera mugatuko balitz.

Pasadizokoak ere ez du beraien jakin-min handirik sortzen. Bidaiariak, marinela, kamioiza-leak, harreman sexualik izan gabe denbora luzea ematen duen jendea izanik, gauza arrunta da.

Ezkonduak, ordea, era zabalagoan aztertzen dituzte, eta itxuraz bezeroen gehiengoa osa-tzen dute. Elkarrizketatutakoen iritziz, frustrazioa eta senar-emazteen arteko monotonia dira bezero horien motibazioen iturburu nagusiak. Iturburu horiek antzina ezkontzako eginbidea

deiturikoa edo hainbat egoera fisiko ere izan daitezke: gaixotasunak eta zenbaitetan menopausia ere bai.

Gizonezkoa sexualki emakumezkoa baino aktiboagoa izatearen aurreiritzia ere proposatzen da ezkondu askok prostituziora jotzearen azalpen bezala.

Dena dela iritzi bat azaltzen da beste guztien gainetik: hainbat eredu sexualen inhibizioa –prostitutek zerbitzu bereziak deitzen dituztenak– ohiko senar-emazteen jarrera sexualaren baitan. Harreman sexualei maitasuna, irudimena eta samurtasuna kenduz gero, oinarritzko premia fisiologikoak asetzeko ohizko ekintza monotono bilakatuko lirateke. Horrela, ezkonduak prostituziora jotzea behar beste asetu gabeko gizonezkoen beharren kontu bat bezala ikus daiteke, edo bizio soila bezala.

Klub eta etxebizitzetako errepertorioak hainbat hausnarketarako aukera eman dezake. Eskaintzaren egituragatik, klubek esanahi bat baino gehiagoko egoeretara eramán gaitzaketek. Baina ez dute derrigorrez sexu zerbitzua berekin izan behar. Kluba urratze bat da, baina ez du zertan senar-emazteen arteko desleialtasun bat ekarri. Zenbait bezerok edariak hartu, lakrikunkeriatan ibili, laztanak egin eta ahozko keinuak bakarrik egiten dituzte. Etxebizitza batera jotzea, aldiz, desleialtasuna izango da beti ere.

"Guk egiten dieguna beren emazteek egin nahi ez dietelako etortzen dira, beste batzuk bakarrik daudelako, edo begiratzea, hitz egitea edo edariak hartzea gustatzen zaielako". (kluba)

"Normalki maitasun faltan daudelako etortzen dira, lan egin eta etxera dirua eramateko makinak bezalakoak dira".

"Normalean bere emaztearekin aspertu egiten direlako. Beren emazteek ez dute gustuko beraiekin egotea eta beraiek hau behar dute. Hainbatek dio emaztea utzi nahi duela... baina gustatzen zaiena emakumez aldatzea ere bada".

"Ezkonduak diotenez, hemengo emakumeek ez dute sexu harremanik nahi, edo gehienez ere noizean behin nahi dute". (Etorkin baten hitzak)

"Kapritxo bat asetzeko etortzen dira, badira kapritxoz datozen gizon ezkonduak eta familia dutenak".

"Bezeroak lasaitasun bila etortzen dira. Emaztearekin eztabaidan jardun eta arazoa ahazteagatik garagardo bat hartzera etorri zen atzo gizon bat". (Kluba)

Senar-emazteen arteko fideltasunik ezak ere dagokion zigorra jasotzen du:

"Ezkon bizitza astuna egiten zaie eta etxebizitzetako neskekin hainbat kitzikatzeko bilatzeko beharra dute. Normalean huts egiten die, ordea. Pena ematen diena zera da: larrua jotzen dute eta beraien emaztearekin larrua jotzea bezalakoa izaten da". (Madame baten hitzak)

Gizonezkoen estereotipoak honako moduan islatzen dira:

"Ongi pasa nahi dute. Gizonak azokako tximinoak bezalakoak dira eta oso infantilak".

"Espainian inoiz neska-lagunik izan ez duen gizon heldu asko dago eta bere amarekin bizi dira, ez dakite zer den emakume bat".

"Maitasuna behar dute, oso bakarrik daude. Hitz egitean berehala ohartzen zara".

Honako azken iritziak beste edozeinek baino hobeto islatzen du prostituzioaren gizarte funtzioa:

"Gizonak dira egoera puruan, eta daukaten matxismo guztia adieraz dezakete. Eta gainera, guk txalotu egiten ditugu jolasa horrela adostuta baitago. Zu bere zerbitzuplean zaude Espainiako pitorik handiena duela esateko. Matxismoaren inperioa da".

BEZEROEKIKO HARREMANAK **2.6.5**

Badirudi kaleko prostituzioan egoera gatazkatsuetarako joera handiagoa dagoela, baina hala ere, hipotesi hori ezingo da egiaztatu ikerketa honetan. Dena dela, elkarrizketatuen subjektibitatea eta hainbat egoeratako permisibitatea aintzakotzat hartu behar dira.

"Orain arte ez dut arazorik izan. Bezero arraro bat izan dudan arren menderatu dut. Adibidez, korritzen ez direnean ez dute ordaindu nahi". (Las Cortes kalean aritzen den emakumea)

"Nik izan ditut arazoak hainbat bezerorekin. Batez ere edanda dagoen jendearekin. Autoan gindoazen batean sastakaia ateratzen zidan. Gertatu zait autopistatik biluzik joan beharra ere...". (Cortes/ Gimnasio kaleen artean eta autoetan)

Klubetan aldiz, elkarrizketatuek sarriagotan egin behar izaten diete aurre egoera korapilatsuei, edo bezeroekiko harremanetan gehiegitan jasaten dituzten degradazio egoerekiko sentikorrak dira. Elkarrizketatuak arazo horien balorazioan luzatu dira. Eta hori da, zalan-tzarik gabe, bere ogibidean gehien kezkatzen dituen alderdietako bat: segurtasun fisikoa, eta beraiengandik etekin handiena lortzen dutenek beren jarduerarekiko egiten duten estigmatizazioa. Behin baino gehiagotan arduratu da literatura soziologikoa gai horiez: esplotatu, baztertu edo marjinatutako gizarte multzoen estigmatizazioa, esplotazioa, bazterketa eta marjinazioaren ideologia legitimatzaile gisara. Hori dela eta, atal honetan gai horri buruzko testigantzak aurkezteko orduan ohi baino gehiago luzatu gara.

"Okerrenak zahar mozkorrak dira. Gizonak astakirten hutsak dira, animaliak bezalakoak. Hainbat gizonak oso gaizki tratatzen gaitu. Oso gauza gogorak jasan behar dituzu. Beraiek nahi dutena egin, gauza gogorak egin eta entzun. Esperientzia erabat desatseginak izan ditut, baita tratatu txar fisikoak ere".

"Ordaintzen didatelako sentimendurik ez dudala uste du hainbatek, eta edozer gauza eskatu diezazuke. Kakaren pare sentiarazten zaituzte".

"Mozkorrak, preserbatiboa erabiltzeko eragozpenak jartzen dituztenak eta gaizki tratatzen zaituztenak dira okerrenak, baina nik ez dut amore ematen. Batzuetan ez dute ordaindu nahi izaten".

(..) "Beraiekin dezente tirabira izaten ditugu bere bikotea bazina bezala portatzea eskatzen digutelako... Gainera, maitasunez eta pasioz egin dezazun nahi dute..."

"Batuetan arazoak izan ditugu. Prezioa botatzen diezunean zera esaten dizute: lapurretara etortzen zareten atzerritar horiek!... (..) Borrokaldietan gure artean defendatzen saiatzen gara. Ez dago inor gu babesteko. Niri tipo batek ileetatik heldu eta egurtu egin ninduen. Normalean klubeko jabea ez da bertan izaten. Zerbitzari baten esku uzten du".

"Beraiengana hurbiltzen zarenean atximur egin, eskukatu, titiak zapaldu, atzamarra behean sartu eta bularretakoa barran bertan kentzen saiatzen dira...

Eta hori sexu jardunera gelara joan aurretik..., Batek labana atera zidan denbora agortu zitzaioala esan niolako ... 3 kiloko hautsontzi bat erabiliz egin nion aurre... Preserbatiboaren kontuarekin ere sortzen dira arazoak. Zu konturatu gabe kentzen saiatzen baitira".

"Hemengo gizonak, esate baterako, Sevillakoak baino biziotsuagoak dira".

Esan dugu etxebizitzetako jarduerak profil konplexuagoa duela. Profil horrek bezeroekin prostituzioan jarduten duten emakumeengan ere eragiten du. Dena dela, etxebizitzetako giro propioa dela eta, badirudi konplexutasun horrek bertan lan egiten duten emakumeen segurtasun pertsonalari baldintza hobekak eskaintzen dizkiola.

"Ez dut inoiz tratu txar fisiko edo ahozkorik jasan".

"Zaharrenak dira preserbatiboa erabiltzearen aurkakoenak".

"Etxebizitzetan istiluetarako joera gutxiago dago. Drogarekin lotuta daudenak dira arrisku-tsuenak".

Istiluak eta tentsioak ez dira bezeroekin bakarrik sortzen. Ondorengo testigantzak prostituzioan aritzen diren emakumeak eta txulo eta proxeneten arteko erlazio kodea islatzen du:

"Agentziak bidalitako gizonak jo izan naute ostatuetan. Ez diet inoiz salaketarik jarri puta naitzelako. Duela hiru hilabete nire txuloa ezagutu nuen alkoholikoen birgaitze zentro batean, dirua eman behar diot, bestela jo egiten nau eta. Berak ordainean babestu egiten nauela dio ...". (Etxebizitza)

Klubek sareetan (errepideetako klubez ari gara bereziki) ezarritako erlazioen beste alderdi bat ere bada. Klub horiek ekonomia kriminalaren osagaiak dira. Droga trafikoa eta legez kanpoko migratzaileen estortsioarekin ere badu zerikusirik. Kasu batuetan estortsio hori emakumeen salerosketarekin aldera daiteke. Burututako landa lanean ez da esplotazio era horien berririk jasotzeko aukerarik izan. Dena dela, polizia ikerketaren beharra du gai horrek. Kontuak kontu, ekonomia informaleko egoerako ogibide baten jarduera eta ekonomia kriminala bereizi beharko dira.

Sektore horretan ekonomia kriminal deiturikoa zera da: legez kanpoko ekintzak burutuz emakumeak esplotatzen dituzten mafiak egotea. Delituzko ekintza horiek honakoak dira: emakumeen salerosketa, emakumeen bahiketa eta paper eta pasaporteak kentzea, eta hutsaren truke lan egitera behartzea, garraioa eta beharrezko kudeaketak eragindako abuzko zorra ordaintzeko aitzakia medio.

JARDUERA PROFESIONALETIK ERATORRITAKO ARAZOAK

2.7

Elkarrizketatutako emakumeen iritzietatik abiatuz, interesatuen pertzepzioari erantzuten dion ondorengo arazoen balantzea ezartzen da:

- Lan onarpen ezaren ondorioz sortutako arazoak.
- Laneko higieena eta osasuna.
- Arriskuak eta segurtasun pertsonala.
- Drogamenpekotasunak eta ludopatiak.

LAN ONARPEN EZAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ARAZOAK

2.7.1

Elkarrizketatuak kezkatuak azaltzen dira laneko gizarte prestazioak jasotzeko eskubiderik ez dutelako: gizarte segurantzaren eta gaixotasun edo erretiro kasuan jasotzen diren soldatak. Osasunari dagokionez, jatorria lan eskubideetan izan ez arren, badira hainbat zerbitzu kolektiboaren beharrak betetzen saiatzeko. Zerbitzu horiek asko erabiltzen dira (ikus ondorengo atala).

Bestelako prestazioei buruz –erretiroa esate baterako–, estrategia indibiduala aurrezkietan konfiantza izatea da; edo prostituzioko bizitza emankorra agortzean (arrisku handiko eta gaizki ordaindutako jardura marjinalenetan ezik, 45 urtetik aurrera emakume batek negozio horretan irtenbiderik ez duela adierazi ohi da) ogibidez aldatzea da; edo autonomo bezala kotizatzea.

"Alokairuak garestiagoak jartzen dizkigute, eta haurtzain bat kontratatu behar baduzu, haurrak ongi ez tratatzearen arriskua duzu, puta zarenez..."

"Hau utzi nahi duzunean ez zaude prestatuta eta lan berri batean prostituta izan zarela jakiten badute kalera bota zaitzakete. Gainera ez gaituzte langiletzat hartzen, eta, beraz, ez daukagu lan eskubiderik (erretiroa, gizarte segurantzaren)..."

"Andre bat zaintzeagatik dudak kontratuari esker daukat gizarte segurantzaren..."

"Paperen kontua ere hor dago, jabeak frogagiria sinatu eta baimena izan arren ez daukagu paper guztiak..."

Aurreko arazoen multzoa ez bezala, arazo hauek era orokorrean eta bizitasun handiz sentitzen dira. Elkarriketatik jasotakoaren arabera, klubetako garbitasuna oso kaskarra da. Eta bezeroengan mesfidantzarik sortu ez dadin, azaleko tratamendua baino ez du jasotzen. Etxebizitzetan, aldiz, badirudi garbitasunaren kontuari arreta gehiago jartzen zaiola.

Osasunari dagokionez, bere akatsak lan baldintzen ondorioak dira batez ere. Baina, baita lokalen jabeen aurreikuspen edo ardura ezaren ondorioak ere. Dena dela, hainbat lankideen jarrera indibidualak ere kritikatzeko dira. Onddoak eta azaleko gaixotasunak dira elkarriketatuek osasun faltari egozten zizkieten arriskuak.

Lan baldintzek bestelako osasun arazoak ere eragiten dituzte, esate baterako, insomnioa eta depresioa. Bakardadea, familia esparruaren haustura, lanaren gogortasuna, gizarte estigmatizazioa edo moral edo gizarte jatorriko autoestimua galeraren ondorioz sortutako depresioa behin eta berriz errepikatu zen gure berriemaileekin izandako solasaldietan.

"Garbitasunaren kontua gaizki dago, gelak egunean bi aldiz garbitzen dituzte, baina asko gara erabiltzen ditugunak. Dena dela bakoitzak bere gauzak eraman behar ditu (izarak, xaboia, preserbatiboa). Osasunaren gaia neska batzuen arazoa da jabeena baino gehiago".

"Beti daukazu izara garbi bat, baina hori ez da nahikoa 20 neska ari bagara lanean bi gela-tan. Bideta denok erabiltzen dugu eta goizez bakarrik garbitzen da. Hori beti horrela izan da".

"Osasunari dagokionez, klub txikiek ez dizute ezer eskatzen (klub handiek euren medikua daukate) eta hori ez zait ongi iruditzen, gaixo asko baitago hor zehar. Gaixotasunen bat hartzeko beldur handia dut. Osasunaren kontuan, kluba ez da arduratzen, nor berak zaindu behar du bere burua".

"Hemen onddo asko eta trikomonak hartzen dira. HIESaren arriskua ere hor dago, baina beste hainbat infekzio ere badaude".

"Gaueko bizimoduak osasunean dezente eragiten du: insomnioa, nerbioetako gaixotasunak. Segurtasunik ez dugu eta ez gaude gustura".

"Depresio arazoak izaten dira, ordu asko egoten baikara geldirik".

Prostituzioan jardutea arrisku handiko ekintza da. Osasunaren arloan, aurrez adierazitako arazoez gainera, elkarriketatutako emakumeek HIESaren arrisku talde bat osatzen dutela argi dute. Arrisku horren kontzientziak, alde batetik beraien artean preserbatiboaren erabilera zabaltzea ekarri du, eta, bestetik, –aurrez adierazi den legez– preserbatiboaren erabilera horrek bezeroekin iskanbilak izatea ekarri du. Gainera, ogibidearen behin-behinekotasunak

eta mugikortasunak zera eragiten du: jarduera mota horrek eskatzen dituen ginekologi azterketak ez direla behar bezain ohikoak.

Tratu txarren arriskua ere sumatzen dute. Hala ere, elkarriketatutako emakumeen taldean tratu txarrak kolektiboaren arriskuak ziren, eta maila partikularrean ukatu egiten zituzten: "ni ez ninduten inoiz jo"– zioten batzuek sintomatikoki. Erantzunen fidagarritasuna edozein dela ere, nabarmena da tratu txarren arriskua ogibideko ohiko egoera bezala sumatzen dela.

"Beste arazorik? Lan hau hain desatsegina izatea, tratu txarrak, zorra kitatu artean klubeko jabeen eskutik etor daitezkeen errepresalien beldurra –legez kanpoko etorkinen kasuan bidaiari dagokion zorraz ari da–, alaba kentzeko beldurra eta drogekin harremanetan egotea, ukitu ez arren. Drogak hemen ezagutu ditut".

DROGAMENPEKOTASUNAK ETA LUDOPATIAK

2.7.4

Ogibideko jardueraren baldintzek droga eta alkohola eskuragarriagoak egiten dituzte. Behin betiko ondorioak ezarri ezin diren arren, alkoholismorik bada, maiz ematen ez bada ere.

"Drogak, alkoholismoa, depresioa, bakardadea. Eta errepideetako klubetan neskak estorsionatzen dituzten txuloak eta mafiak".

"Edaten ez badut ezin dut egin. Hemen neska askok drogak hartzen ditu gauari eusteko".

"Prostituta izatea zein desatsegina den, nire gorputza saltzea, kakaren pare sentiarazten zaitu. Beldur handia diet tratu txarrei".

"Ogibide honetan dirua erraz bota ohi da, diru erraza da. Gero bakardadea dator. Hori dela eta, irabazten duzun duro bakoitza berehala gastatzen duzu. Drogak, makina txanponjaleak, zer egingo zaio... Askok eta azkar sartzen da eta ohitu egiten gara".

Lan baldintzekin lotutako beste arazo bat jokorako joera da. Hori dela eta, ludopatia ere sarri ematen den arazotzat adierazi da. Diru erraza, bakardadea eta antsietate egoeren ondorioz, emakume horietako batzuek politoxikomanak izatera bultzatzen ditu. Politoxikomania hori, batez ere, alkohola, medikamentuak, jokoarekiko mendekotasuna eta beste hainbat droga-ren artean kokainarekikoak osatzen dute.

ATZERRITARREN EGOERA

2.7.5

Gure berriemaile atzerritarren oinarritzko arazoak legez kanpoko egoeratik eratorriak dira. Horri, beren egoera legeztatzeko beharrezko tramiteen inguruko ezagutza eta informazio eza gehitu behar zaio. Hainbat kasutan, udal bateko erroldan sartzeak zerbitzu publikoak,

laguntzak eta dauden gizarte baliabideen erabilera ahalbidetzen dizkietela ere ez dute jakiten.

Beharrezko informazioa eskuratzeko zailtasunak direla eta, gure berriemaileak betebeharrak eta ziurtagirien labirinto burokratikoarekin harremanetan jartzen dira. Ondorioz, beren egoeraz baliatzen diren bitartekariak azaltzen dira. Hainbat emakumek abokatu pribatu baten zerbitzuak ordaindu behar izaten dituzte. Abokatua kasu askotan lan egiten duten klubetako jabeen bidez lortzen dute. Edo zirkuituaren barruan lan kontratuak eros ditzakete, normalean prezio izugarriak ordainduz.

"Erroldatzearen kontua zer zen ez nekien, eta 92an iritsi arren, erresidentzia paperak egiten hasi nintzen arte ez nuen jakin erroldan sartu beharra nuenik. Neskame kontratu baten bidez lortu nituen erresidentzia paperak".

"Hona iritsi nintzenean inork ez zidan ezer esan. Eskerrak arazorik izan ez dudana. Etxe batean lan egiten duen lagun baten bidez neskame kontratu bat lortu ahal izan dut, nire lagunak lan egiten duen andrearen alabaren seme-alaben zaintzaile gisa. Extranjeriara joan nintzenean erroldan urtarrila baino lehenago sartuta egon behar nuela esan zidaten eta orain bizikidetasun paper bat atera behar dut. Aurreko hilean bizikidetasun agiria ateratzera joan nintzen eta jarrera onaren agiria ere eskatu zidaten. (...) Extranjerian eskatu dizkidaten paperak honakoak dira: pasaportearen fotokopia, medikuaren ziurtagiria, bizikidetasun ziurtagiria eta jarrera ona ziurtatzen duen papera. Azken hori lortzea bakarrik falta zait... Venezuelako enbaxadan eskatu dut. Hango poliziaren paper bat eskatzen digute, hemengoak ez baitu balio".

"Paperak— egiten ari naiz urtarrilerako erresidentzia lortzeko. 40.000 pezetaren truke abokatu batek erroldatu egin nau eta lan kontratu bat lortu dit neskame gisara. Oso zaila da lan egitea paperik ez badaukazu. Klub batzuetan paperak eskatzen dizkizute".

"Cartagenan lan kontratu bat eskaini zidaten 25.000 pezetaren truke".

Lortzen dituzten lanak kalifikazio txikikoak izan ohi dira eta normalean ekonomia informalean kokatzen dira. Zirkulu biziotsu batean sartzen dira, "paperik" gabe oso zaila baita lan kontratu bat lortzea eta lan kontraturik gabe ezin baita paperik lortu. Hori dela eta, egoera legeztatzea lortzeko, beraien ardura nagusia lana edo beste zerbaite lotutako bide bat aurkitzea da. Horretarako, lan egiten duten klub edo etxebizitzetako jabeek gain, beren lagun edo ezagunen, edo beren ogibidearen jardueran ezagututakoen laguntza ere jasotzen dute. Lagun edo ezagun horiek egoera berdinean iritsi ziren lehenago, eta beharrezko informazioa jasotzea lortu zuten.

Gure berriemaileek, nagusiki, neskametzat edo pertsona helduen zaintzari loturiko kontratuetara jotzen dute. Beste bidea emakumeek tradizioz erabili duten baliabide bakarrarena da: ezkontza. Dena dela, azken irtenbide horrek dakartzan loturak ezagutzen dituzte eta gehienek nahiago dute kontratazioaren bideari heldzea.

"Ez daukat paperik— eta horrek beste zerbaitetan lan egiteko arazoak sortzen dizkit, orain inork ez du kontraturik egin nahi. Erroldatuta nago, baina ez dut kontraturik lortzen. Tabernaren batean lan egin nahi dut baina paperik gabe ez nau inork kontratatzen".

"Familietan lan egiten dugun arren inork ez digu lan kontraturik egin nahi. Hori da, hain zuzen, izan nuen arazorik larriena. (...) Paperen kontua konpondu ahal izateko mesedea egin zidan pertsona batekin ezkondu nintzen eta oso ongi konpontzen naiz berarekin. Elkarrekin bizi ez garen arren bikote erlazioa mantentzen dugu, ni nire etxean eta bera berean. Hala ere, denok nahiago dugu lanpostu bat aurkitu ezkondu baino".

"Espainiar batez maitemindu eta ezkondu egin nintzelako dauzkat paperak (...) Orain bananduta nago".

"92an lan kontratua lortu nuen neskame gisa eta ondoren paperak".

"Andre bat zaintzeagatik lortutako lan kontratuari esker daukat erresidentzia baimena".

"Amnistia legea atera zen eta abokatu batekin harremanetan jarri nintzen. Berak lan eskaintza bat egin zidan eta hori mesedegarria izan zen niretzat. Paperak eman zizkidaten baina urtebeterako soilik. Jadanik epea bete da. Orain paperak berritzeko lana aurkitu behar dut. Ezagun batzuekin hitz egin dut eta badirudi lortu ahal izango dudala. Klubean ez digute kontraturik eta ezer egiten. Paperak lortzeko ezkontzea da beste aukera. Bide horretatik paperak bost urterako balio dutela uste dut eta gero naziotasuna ematen dizute edo horrelako zerbait".

"Tramiteak egiten ari naiz. Lagun batek laguntzen dit. Etxeko laguntzako kontratu bat egin nahi dit".

ERABILGARRI DAUDEN ZERBITZUEI ETA ESKU- HARTZE NEURRIEI BURUZKO IRITZIA

2.8

ERABILGARRI DAUDEN ZERBITZUEI BURUZKO IRITZIA

2.8.1

Elkarrizketatu ditugun emakumeak elkarte batzuen bidez aurkitu ditugula aintzat hartu behar da. Elkarte horiek bazterketa edo marjinazio arriskuan dauden hainbat kolektibori laguntza ematen diete. Beraz, normalki dirulaguntzak izaten dituzten zerbitzu publiko zein pribatuek duten ezagupen maila eta harrera ona erlatibizatu egin behar dira.

Gehien eskatzen diren zerbitzuak osasunarekin zerikusia dutenak (azterketa medikoak, ginekologia), heziketa eta lan zerbitzuak, eta, azkenik, atzerritarren kasuan, erregularizaziorako laguntza eta orientabideak dira. Erroldatzeko orientabide eta informazioa asko esti-

matzen du etorkinen kolektiboak. Izan ere, erroldatzetik eratortzen baitira udal zerbitzuen eskuera, osasun txartela lortzea eta gizarte laguntzak jasotzea.

Osasunaren kontua da, dakigun bezala, elkarriketatutako emakumeen kezka nagusia. Gainera, kontu horrek gizarte komunikabideetan ere kezka handia sortzen du. Gure berriemaileen iritziz, ogibidean hasi berriak diren emakumeek ez dituzte arriskuak ezagutzen, eta ondorioz, dauden zerbitzuei buruz ere ez daukate ezagutzarik.

"Nire ikuspuntutik, klubeko emakumeekin harremanetan jarri behar litzateke, gizarte zerbitzu batzuk badaudela jakin dezaten... batez ere afrikarrentzat. Emakume horiek preserbatiborik gabe jarduten dute eta Afrikan gaixotasun asko daude. Osasun zerbitzuak emakume horiek gaixotasun kutsakorren froga analitikoak egitera behartu beharko litzateke. Kondoia zer den ere ez dakiten neskak ikusi ditut eta gainera, drogazaleekin lan egiten dute. Auzolan asistentzia modulu bat da. Arazo bakarra zita denbora askora ematen dizutela da. Neska gehienek ez daukate Auzolaneko txartela eta ez dute medikutan dirurik gastatzeko asmorik".

Enplegurako zerbitzuak ez dira hain sarritan aipatzen. Kasu gehienetan kaleko prostitutek eta zaharrenek eskatzen dituzte: heziketa motaren bat jaso nahi dute lan "normalizatu" bat lortzeko asmoz.

Enplegurako zerbitzuak noizean behin eskatzen dira:

"Ni gaizki sentitzen naiz hau eginez eta utzi egin nahi dut, baina horretarako irteeraren bat izan behar dut".

"Nik, Gizarterako-ren laguntzari esker, gizarte soldata lortu nuen, interneteko ikastaro bat egin dut, ofimatikako beste bat eta udazkenean web orrien diseinuarekin hasiko naiz".

Beraien beharren pertzepzioaren laburpen gisa bi testigantza aurkezten ditugu. Testigantza horiek elkarriketetan zehar adierazitako iritzi orokorra islatzen dute:

(...) "Dauden zerbitzuak egokiak dira gurekin lanean oso ongi ari diren taldeak daudelako eta nahikoa informazio ematen digutelako. Beharko nukeen laguntza osasun alorrekoa litzateke, osasun txartela beharko nuke. Prebentzio gaietan baditugu baliabideak, baina gripea harrapatzen badut osasun txartela behar dut beste guztiek bezala".

(..) "Gaur bertan izan naiz gizarte laguntzailearekin, eta asko baloratzen dut lan egiteko duten modua. Nire etxetik alde egin behar izan nuenean ez nekien nora jo eta gizarte laguntzailearengana jo nuen. Beraiek tratu txar gehiago ez jasatera animatu ninduten eta hemen, Bilbon, etxebizitza bat lortzen lagundu zidaten. Beraiek egin zuten nire paper kontu guztia eta ez dut arazorik izan. 10ekoa emango nieke eman didaten laguntzagatik. Berdin Auzolani ere atentzio ginekologikoa ematen zidanean. Gehien nahi dudana lan kontratu bat lortzea da, goizeko seietan ohetik jaiki behar badut ere".

Asistentzia zerbitzuak ezagutzen dituztenek erabili egiten dituzte, nolabaiteko arretaz dena den. Alde batetik, elkarriketatutako emakume gehienek medizina pribatua izateko adina baliabide badituzte. Gainera, sare publikoa edo elkarte pribatuen asistentzia sareko baliabideek beren jardueraren onarpen edo aitortpena suposatzen dute. Hori ez da komenigarria guztientzat, bai autoestimuari dagokionez –egiten dudana lotsatu egiten naiz eta ez zait

gustatzen naizena bezala ezer eskatzea– zein gizartearen aurrean diskrezioa gordetzeagatik. Beren pribazitatearen babesak hesiarena egiten du, zerbitzu publikoak eta asistentzia espezializatuko sare pribatua eskura izateko orduan. Ondoriozta daiteke, era berean, hesi horrek beren eskaeren defentsarako elkartze mugimenduak eragozten dituela. Hori bera areagotu egiten da legez kanpoko etorkinen kasuan. Kasu horretan diskrezioa babeserako baliabidea bilakatzen da. Zentzu horretan, beren ogibidea publiko egiteko gizartean duten beldurra adierazi behar da. Beldur hori zentzuzko jarrera bihurtzen da ofiziala dirudien guztia-
ren aurrean. Elkarte pribatuak ere ikuspegi horretan leudeke.

Behar bat sortu eta adierazitako zerbitzu edo erakunde batengana jotzen dutenean, beldur-
raren ordezkari konfiantza azaltzen dute *–ez zidaten paperik eskatu ezta zertan lan egiten
dudan galdetu ere–* eta balorazio oso ona egiten dute. Elkarriketatutako batek honela adie-
razten zuen:

*"Nik uste dut gure artean osatutako elkarte bat behar dugula. Elkarte horren bidez, neskek
dauden zerbitzuen berri izango lukete eta hurbilagotik ezagutuko lituzkete. Neska askok ez
dakite ezer eta manipulatu egiten dituzte".*

ESKU-HARTZE NEURRIEI BURUZKO IRITZIA

2.8.2

Esku-hartze neurriak bi taldetan sailkatzen dira:

- Legeztatzea.
- Erregularizazioa.

PROSTITUZIOAREN LEGEZTATZEA

Gai honi buruz iritzia eman duten zazpi emakumetik hiru legeztatzearen alde daude. Etxebizitzetan lan egiten dutenen kasuan, proportzio hori are altuagoa da. Izan ere, hama-
rretik zortzi dira legeztatzearen alde azaltzen direnak.

Dena dela, argitu beharreko hitzen nahasketa bat sortzen dela adierazi behar da. Beraiek
prostituzioaren legeztatzea aipatzen dutenean, beraien jardura jardute ekonomiko formal
gisara erregulatzeaz ari dira, prostituzioa ez baita legez kanpoko gure herrialdean. Hala ere,
"legeztatzea" hitza, gure berriemaile atzerriarrentzat, beren migratzaile egoera legeztatze-
ko paperak lortzearen baliokidea da.

"Legeztatzearen" aldeko arrazoiak lan kontrataziotik eratorritako gizarte babesean (gizarte
segurantzak, gaixotasun kasuan soldata prestazioak eta erretirorako eskubideak) biltzen dira,
funtsean. Atzerriarren kasuan, legeztatzea langile moduan erregularizatzeko aukera gisara
ikusten da, eta ondorioz, erresidentzia baimenaren lorpen moduan.

Segurtasun pertsonala ere legeztatzearekin lotzen da. Eta legez kanpoko etorkinen kasuan, legeztatzea bermearekin lotzen da polizia jazarpenaren aurrean.

"Legeztatzearen alde nago segurtasun gehiago egongo litzatekeelako eta emakumea ez litzateke jazarpenaren beldur biziko (legez kanpoko egoeran egotean, edozein unetan extranjeria etorri eta giltzapean sar zaitzake, dokumentazioa eskatu eta abokatuak errekurritu arte hiru egun ziegan eman ditzakezu). Orokorki neskak horrela daude. Gainera zergak ordaintzeak bermeak ematen dizkizu eta paperen kontua edukiko genuke. Ez ginateke Poliziak noiz harrapatuko gaituen beldurrez biziko".

"Legeztatzean heldu berriak diren emakumeak esplotatzen dituzten klubekin bukatuko lukete. Ni prostituzioa legeztatzearen aldekoa naiz. Hala ere, hobe litzateke prostituzioarekin bukatzea. Gainera horrek hainbeste ziurtasun-gabeziaren amaiera ekarriko luke".

"Prostituzioak legeztatua egon beharko lukeela uste dut nik, horrela sindikatuetan biltzeko eta gizarte segurantzaren laguntza psikologikoa izateko eskubidea izango genuke".

Legeztatzearen aurkako arrazoiak pribazitatea bermatzearen eta kontu ekonomikoen ingurukoak dira.

"Dagoen bezala ongi dago, ez dut nahi inork jakitea zertan lan egiten dudana".

"Ez naiz legeztatzearen aldekoa, era horretan gizarte segurantzaren kotizatu beharko genuke eta. Gainera, familiak zertan ari garen jakin lezake eta neska askok nahiago du isilean lan egiten".

"Debekatuta dagoenak jendea erakartzen du, eta legeztatuz gero ezingo litzaioke eutsi. Ni erregularizazioaren aldekoagoa naiz".

ERREGULARIZAZIOA

Elkarriketatutako emakumeen pentsamenduan erregularizazioaren kontzeptua ez da egoitzen ideia argi eta bukatu batekin. Batez ere abusuak ekiditeko kontrol moduan definitzen da. Kontrol modu hori, beraien iritziz, klubei ezarri beharko litzaieke langileei baino gehiago. Zenbait kasutan, erregularizazioa "kartilan" oinarritutako antzinako kontrol era zaharrekin nahasten da. Kontrol modu horrek gaur egun zailtasun legalak izango lituzke intimitaterako eskubidea bezalako oinarritzko eskubideen defentsan. Erregularizazioari buruzko iritzietan ikus daitekeenez, horrek osasun kontrol modu bat izan beharko luke. Kontrol hori klubei eskatu beharko litzaieke.

"Bertan lan egiten duten neskek mediku kontrolak pasatzen dituztela dioten egiaztapenak exijitu behar zaizkie klubei".

"Azterketa medikoak eta osasun eta higiene kontrolekin lotura duen guztian, klubek kontrola eraman eta ordena pixka bat jarri behar lukete".

"Azterketak oso garrantzitsuak dira, bai klubaren, bezeroaren, zein bakoitzaren segurtasunerako. Klubeko neskak osasuntsu badaude, hori klubarentzat bezain onuragarria da neskentzat ere".

3

**ESKU HARTZEKO
BIDEAK**

Txosten honen hirugarren fasearen helburu nagusia zera da: autonomia erkidego honetan prostituzioan diharduten emakumeen bizi baldintzak hobetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako erakundeek bideratu beharreko jardunbideak diseinatzea.

Lehenik, kolektibo horrentzat zerbitzuak ematen dituzten erakunde publiko zein pribatuak zerrendatzen dira; hartara, egungo hornikuntza maila zein den ikusi ahal izateko, esku-hartze aukera berriak proposatu aurretik.

Jardunbide berriak planteatzeari dagokionez, emakumeei eginiko elkarrizketetan ikusitako beharrak hartu dira abiapuntutzat, eta baita eurentzako laguntza eskaintzen duten erakundeetako langileen bitartez jasotako iradokizunak eta informazioak ere. Emakumeen beharrak betetzen laguntzeko proposamenen planteamenduan aurrera egiteko xedez, lan fase honetan hausnarketa eta eztabaida taldeak antolatu dira prostituzioan diharduten emakumeekin zuzenean eta zeharka lotura duten adituekin.

Zentzu horretan, bost talde deitu dira, eta talde horietako bakoitzean arazo mota desberdinak aztertu dira sakonki. Talde desberdinetan jorratu diren gaiak ondorengo arloetako esku-hartzeari lotutakoak izan dira: osasuna, maila sozial-asistentziala, legezkotasun maila –atzeritarren egoerari dagokionez–, emakume horiek lan merkatuan sartzeko duten aukera, eta, azkenik, prostituzio jarduera ekonomikoa onartzen hasteko aukerak ekarriko lituzkeen arazoak. talde horien ondorioak bildu dira txostenaren zati honetan.

Prostituzioan diharduten emakumeen kolektiboaren arazoei buruz duten ezagutza eta esperimentziaren arabera hautatu dira talde desberdinetan parte hartu duten pertsona guztiak. Batzuek administrazio publikoko hainbat arlotan lan egiten dute (Osakidetzan, Gizarte Zerbitzuetako maila desberdinetan...), eta beste batzuk, berriz, sarritan administrazioaren laguntza jasotzen duten erakunde pribatuetan aritzen dira (prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko berariazko programak, Caritas, CEAR...).

Ondorengo kolektiboek parte hartu dute:

- "Osasuna"z arduratzeko taldea: Antisida, Ledo, Auzolan, Munduko Medikuek, Askabide.
- Arlo "sozial-asistentziala"z arduratzeko taldea: Caritas, Aldundiaren zerbitzu komunitarioak, Aukera, Udalaren Gizarte Ongizatea.
- "Emakume atzeritarren egoera"ri heltzeko taldea: Bilbo Etxezabal, Bakerako bulegoa, CEAR, Gurutze Gorria.
- "Lan mundurako sarrera"z arduratzeko taldea: Caritas, Sartu, Askabide, Agiantza, Lanberri, Izangai.
- "Prostituzioko jardueraren araupetze ekonomikoa"z arduratzeko taldea: Emakunde, Lanbroa, EAJ-PNV, IU-EB, Gizarterako, Aukera, Askabide.

*Ikerketaren hirugarren zati honetan, prostituzioan diharduten emakumeekin lan egiten duten elkarteek eta emakume horiei aholkularitza eta laguntza ematen dien erakundeek adierazitakoaren ondorioak bildu dira, eta horiez gain, elkarrizketatutako emakumeen eta sektorearekin lotutako pertsonen iritziak ere jaso dira.

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN PERTSONEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN ERAKUNDEAK

3.2

Ikerketa proiektu honen lehen fasean, ikergaira hurbiltzeko lehen urratsetako bat zera izan zen: prostituzioan diharduten emakumeei laguntzen dieten elkarteekin eta aholkularitza eta babesa ematen dieten bestelako erakundeekin harremanetan jartzea, zuzeneko lotura izaten baitute emakume horiekin eta ondo ezagutzen baitituzte euren arazoak eta egoera.

Proiektuaren hirugarren fase honek, aldiz, prospektiba du oinarri, balizko jardunbideak diseinatzea, alegia. Emakume horien egoera hobetzen laguntzen duten jardunbideak proposatu baino lehen, badirudi ezinbestekoa dela prostituzioan diharduten emakumeei laguntzen dieten erakundeen egungo egoera aztertzea. Lurralde historiko bakoitzeko egoera nolakoa den ikustean datza –prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko programen hornikuntza maila eta bestelako zerbitzuena –emakume horien bizi baldintzak hobetzen laguntzeko helburuarekin zerbitzu horiek osatzeko balizko jardunbideak proposatu aurretik.

EURENTZAKO BERARIAZKO PROGRAMAK

3.2.1

Lehendabizi, lurralde historiko bakoitzean emakume talde honentzako berariazko programak eta baliabideak zein diren zehazten da. Lurralde arteko hornikuntza desberdintasunak nabarmenak dira, beti prostituzioan diharduten emakumeen taldea beti ere hiriburuetan gehiago biltzen baita edota han gehiago ikusten baitira.

Bilbon, esate baterako, kolektibo honen jarduera tradizionalaki "Gorteak" auzoan kokatu izan da. Hori horrela izanik, Askabidek 15 urte baino gehiago darama bertan emakume prostitutekin lanean eta eurentzako jarduera programa zabala du. Donostian, alabaina, emakumeak oso sakabanatuta daude klubetan eta bereziki hiri bertako eta Oarsoaldeako etxebizitzetan, eta, ondorioz, Aukerak bi urte baino ez darama abian eta prebentzioan eta laguntzan oinarrituta lan egiten du. Arabako hiriburuan, berriz, Gizarterakok 15 urte darama kaleko emakumeekin lanean, laguntza, errehabilitazio eta babesa eskainiz. Prostituzioko emakumeez gainera, beste talde batzuek ere arduratzen dira ahal duten neurrian.

— ARABA

Gizarterako

Prostituzioan lan egiten duten emakumeak birgizarteratzeko programaren barruan kokatzen da. Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Udalaren diru laguntza jasotzen du, eta, horrez gainera, 30 bazkide baino gehiago ditu, urtean 1.200 pta.ko kuota ordaintzen dutenak.

1986ko otsailean sortu zen elkarte eta honakoen bidez laguntzen dio prostituzioan diharduten emakumeari: gizarte laguntza, lege, lan eta osasun orientazioa, laguntza psikologikoa, lanean hasteko jarduerak eta kafe tertulia.

Kaleko batzorde bat ere badu, eta batzorde hori kalean prostituitzen ari diren emakumeekin hitz egitera joaten da.

Emakumeek dituzten arazoen arabera, berariazko gaiez arduratzen diren beste erakunde batzuetara zuzentzen dituzte (Anti-SIDA, SOS-Arrazakeria...).

Programa horren bitartez urtean 230 emakumeri laguntzen zaie gutxi gorabehera. Urteko 5.300.000 pta.ko aurrekontua du; bi langile finko daude bertan eta hainbat boluntarioek euren laguntza ematen dute.

— BIZKAIA

Askabide

Prostituzioaren mundutik datozen pertsonei laguntza, babesa eta prestakuntza ematea da elkarte horren xedea.

1985ean sortu zen eta hiru iturritatik lortzen ditu diru sarrerak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udaletik, Elizaren inguruko erakunde pribatuetatik, eta bazkideen ekarpen ekonomikoetatik.

Hala eskatzen duten prostituzioaren inguruko pertsona guztiei laguntza eta asistentzia ematen dien Harrera etxea du.

Alfabetizazio programa ere badu, prostituzioan diharduten emakumeei kultur prestakuntza emateko. Eguneroko bizitzan hobeto moldatzeko gutxieneko ezagutza bereganatzen dute programa horren bitartez.

Prostituziotik ateratzeko bideak aztertu eta lantzeaz gain, lan normalizatueterako prestatu, eta nahi izanez gero, lanpostuak bilatzeko lorbide izango diren emakume taldeak antolatzen dira.

Prostituzioan diharduten emakumeentzako tailer proiektua ere badu, eta prostituzioa betiko utzi eta lan irteera normalizatuaren arteko zubi da nolabait proiektu hori. Proiektuaren helburua zera da: pertsona horiek dituzten hutsuneak lantzea (gizarte gaitasunak, lan dizi-

plinako ohiturak...), prestakuntza ematea, eta lan normalizatuko dinamiketan sarraraztea, "beka" bidez ekonomiko lagunduz.

Prostituzioan diharduten adin aurreratuko emakumeak eta egoera sozio-sanitario larrian dauden emakumeak hartzen dituen Etxea Zentroa.

Toxikomania arazoak, marjinaltasun maila handia eta drogamenpekotasun tratamendua lortzeko benetako zailtasunak dituzten emakumeak hartzeko Askarri Etxea Zentroa.

Programa prebentiboak ere antolatzen dira "herritar normalizatuari" zuzenduta, bereziki eskolara joateko adinekoentzat, sexu esplotazio aurreko fasean egoteko arriskua baitute.

Askabidek urtean 273 emakume ingururi laguntzen die. Urteko aurrekontua abian dituzten programen arabera izaten da. Edonola ere, 40 milioi inguruan ibiltzen da. Langileak ere proiektuen arabera aldatu egiten dira, baina hamar pertsona finko dituzte.

Oblatas

Prostituzioa utzi nahi duten emakumeak hartzeko pisu bat dute, eta enplegurako prestatzeko eta ondoren lana aurkitzeko beste erakunde batzuk eskaintzen dituzten baliabide normalizatuak eskuragarri jartzen zaizkie.

— GIPUZKOA

Aukera

Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia eta Irungo Udalak, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzaen diru laguntzak jasotzen ditu prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko programa horrek.

1998az geroztik lan egiten du.

Orientazio sanitario, sozial, juridiko eta psikologikoa du oinarri bere jardunak.

Material prebentiboa banatzen dute: 60 preserbatiboko poltsa. Poltsa hori doakoa da. Emakumeak erregulartasunez zentrora joan daitezen bultzatzeko erabiltzen da preserbatibo poltsa.

Programaz arduratzeko psikologoek landa lana ere egiten dute eta hilero joaten dira Pasaia eta Irungo klubetara.

Komunitateko baliabideak erabiltzen dituzte eta emakumeek dituzten beharren arabera beste zentro batzuetara bideratzen dituzte, esate baterako Anti-Sida batzordera edo anbulatorio batera –osasun arazoak dituztenean–, edo SOS-Arrazakeria-ra lege arazoak dituztenean, edo oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara.

Noizean behin emakumeentzako bilerak antolatzen dira eurentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruz. Oraindik ez dute terapia talderik sortu, izan ere. Nahiago dute pixkanaka sartzten joan.

2001eko urtariletik abuztura bitartean 400 pertsonari lagundu zaie. Urtean 6 milioi pta.ko aurrekontua du. Bi pertsonak lan egiten dute programa horretan, eta gainera hainbat boluntarioek laguntzen du.

BALIABIDE "OROKORRAK"

3.2.2

Jarraian beste zerbitzu batzuk aurkituko dituzu, prostituzioan diharduten emakumeentzat berariazkoak ez badira ere, eurentzat programak dituztenak eta eurei laguntzen dietenak.

OSASUN MAILA

Ikerketa honen aurreko faseetan behin eta berriz nabarmendu da kolektibo honen egoera berezia, izan ere, hainbat arrisku eta patologia izaten dituzte, diagnostikatzeko berariazko osasun arreta behar dituztenak.

— ARABA

PAC (Etengabeko harrera gunea)

Osakidetzaren menpe dago. GIB probak doan egiten ditu eta azterri ginekologikoak egitea bideratzen du.

Anti-Sida Batzordea

HIESa eta Sexu Transmisio bidezko Gaixotasunen prebentzioari buruzko informazioa ematen dute.

Hilean 8.000 preserbatibo inguru banatzen dituzte kostu prezioan (15 pta unitateko) eta badute esperientzia prostituzioan diharduten emakumeekin hausnarketa eta lan taldeetan aritzeari buruz.

2001 urterako agenda bat diseinatu dute. Agenda horretan, STG eta HIESari buruzko informazioaz gain emakumeentzat lagungarri izan daitezkeen baliabideak aurkitzeko helbideak ere bildu dira. Agenda ematerakoan, prostituzioan diharduten emakumeen ezaugarri eta arazoei buruzko informazioa biltzeko asmoa dute.

Janaria banatzeko programa ere badute.

— BIZKAIA

Auzolan

Lehentasunez jende marjinalarekin lan egiten duen modulu psiko-soziala: prostituzioan diharduten pertsonak, inmigranteak eta toxikomanoak. Ginekologia, famili plangintza, buru osasuna, toxikomania eta alkoholismoan oinarritutako laguntza klinikoko programa du. Aholkularitza juridikoa ere ematen die behar duenei.

Osakidetza eta Bilboko Udalaren dirulaguntza ematen die osasun eta gizarte zerbitzuetarako hurrenez hurren.

Ledo Anbulatorioa

Sexu bidezko gaixotasunez arduratzen da eta Basurtoko Ospitalearen menpe dago (Osakidetza). Sexu Transmisio bidezko Gaixotasunen osoko azterketak egiten dituzte. Kontrolak doakoak dira eta pazienteek ez dute "paperik" behar.

Anti-Sida Batzordea

HIESaren Aurkako Prebentzioaren Plana garatzen duen Osasun Hezkuntzako plana du (Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udalaren HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Planak diruz lagundua). Prostituzioan diharduten zenbait emakumek Osasun Agente gisa lan egiten dute eta klubetan beste emakume batzuekin harremanetan jartzen dira, preserbatiboak, informazio foiletoak eta orientazioa emateko.

— GIPUZKOA

Anti-Sida Batzordea

Sexu langileei laguntzeko berariazko programa du.

Prebentzio materiala banatzen dute, hilean 100 preserbatiboko poltsa. Kostu prezioa kobratzen diete eta informazio pixka bat eskatzen zaie horren truke.

Osasun baliabide publikoei buruzko orientazioa ere ematen dute. HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Planera edo anbulatorioetako Famili Plangintzako zentroetara bideratzen dituzte emakumeak.

LEGE AHOLKULARITZA

Prostituzioan diharduten geroz eta emakume gehiagok arazo larriak dituzte atzerritar izateagatik. Estatu espainiarrean gehienez hiru hilabetez egoteko baimena izaten dute emakume atzerritar horietako gehienek. Dena den, euretako askok luzatu egiten dute epe hori, aldi baterako nahiz betiko, hemen bizitzen geratu nahi dutelako. Horregatik, euretako asko-

ren egoera ilegala izaten da eta ondorioz babesgabe aurkitzen dira zenbait klubetako nagusien abusuen aurrean.

Oro har egoitza baimena araupetzeko prozesua luzea eta garestia izaten denez, elkarte askok tramitazio laguntza ematen die. Elkarte horietako batzuk hiru lurraldeetan finkatuta daude, CEAR edo SOS-ARRAZAKERIA esate baterako, eta lurralderen batean beste zerbitzu osagarri batzuk ere badituzte.

SOS-Arrazakeria

Orientazio juridikoa eskaintzen die atzerritarrei oro har.

CEAR (Errefuxiatuari Laguntzeko Batzordea)

Honek ere atzerritarrei lege aholkularitza eskaintzen die.

— ARABA

Norabide

Vitoria-Gasteizko Udalak sortu berri duen zerbitzua da eta legezko egoeran dauden atzerritarrei laguntza ematea du helburu.

— BIZKAIA

Bilbo-Etxezabal

Etorkinei laguntza eta lege aholkularitza ematen die elkarte honek.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Bukatzeko, emakume horiei beste era bateko laguntzak edo zerbitzuak ematen dizkien baliabideak aipatzen dira. Batzuk hiru lurraldeetan finkatuta daude eta beste batzuk, berriz, kokatzen diren hirikoak dira soilik.

Elizbarrutiko Caritas

Laguntza sozialak eta ekonomikoak ematen ditu puntualki.

Gurutze Gorria

Europar Batasuneko janari soberakinak banatzeko programa du.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak; Berdintasunerako Zerbitzuak

Laguntza ekonomikoen egitarauetara iristeko informazioa ematen dute eta, hala denean, tramiteak egiten dituzte -Gizarte Larrialdietarako Laguntza edo/eta Oinarrizko Errenta,

laguntza psikologikoak, etab. Zerbitzu horietaz baliatzeko ezinbestekoa da errolatuta egotea.

Premiako Zerbitzuak

Larrialdi egoeran dauden pertsonen berehalako jaramona egiteko zerbitzuak dira, eta zerbitzu honetaz baliatu ahal izateko ez da beharrezkoa errolatuta egotea.

— BIZKAIA

Etorkintza

Drogen menpekoei laguntzeko elkarteak.

Susterrak

Haurrentzako laguntza.

Argindegi

Caritas-en menpe dago. Tailerrak eskaintzen ditu.

Elurra

Caritas-en menpe dago. Tailerrak eskaintzen ditu.

Oscus

HHI, LH, sustapen tailerrak.

Bagabiltza

Prestakuntza ikastaroak, sustapena.

HHI

Emakume atzerritar helduentzako hezkuntza; Irala-ren menpe dago.

— GIPUZKOA

Elizbarrutiko Caritas

Emakumeak hartzeko pisuak ditu.

EAEn elkarte eta GKE ugari daudenez eta euren arteko koordinazioa eskasa denez, litekeena da bakarren bat edo beste zerrenda honetan ez agertzea. Hori dela eta, aipatu beharra dago txosten honen helburua ez dela bakarrik programen inbentarioa egitea, are garrantzi-

tsuagoa baita egungo hornikuntza maila azaltzea, hartara bideratu beharreko jardunbideak proposatzeko.

Hasieran badirudi programa eta zerbitzu asko daudela. Baina ezberdintasun handiak daude lurraldeen arteko hornikuntzan eta lurralde bereko elkarten artean koordinazio falta sumatzen da.

Prostituzioan diharduten emakumeetako askok ere ez dakite halako baliabiderik dagoenik. Beraz, lurralde guztietan azpiegiturak eta zerbitzuak jartzeaz gain, oso garrantzitsua da, baita ere, informazioa eta zentroen arteko koordinazioa hobetzeko ahalegina egitea.

Bestalde, zera ikusi da: zenbait elkartek laguntza berak banatzen dituztela lurralde berean –EBko janari soberakinen kasua, esate baterako–. Horrez gainera, emakume gehienek ezin dituzte baliabide asko erabili –Ongizate Saileko zerbitzuek ematen dituztenak–, atzerritarrak direlako.

Azken finean, prostituzioan diharduten emakumeei zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde asko badaude ere, erakunde horien arteko koordinazio faltak laguntzen bikoiztasuna sortarazten du eta, gainera, sarritan emakumeek ez dituzte laguntza horiek eskuratzeko baldintzak betetzen. Horregatik, kolektibo horri dagokionez modu aktiboagoan esku hartzeko premia jabetu behar du administrazio publikoak, eta lehendik dauden baliabideak optimizatzen ahalegindu behar du.

DIAGNOSI OROKORRA

3.3

Prostituzioan diharduten emakumeen egoeraren diagnosia egin nahi izan da ikerlan honetako aurreko faseetan. Lehenengoan kolektiboaren tamaina –emakumeen kopurua– eta prostituzioan sartuta dauden emakume mota desberdinak karakterizatu nahi izan dira. Bigarrenean euretako batzuen bizi esperientziak ezagutzea izan da helburu. Eta azkenik, hirugarren fase honetan, kolektiboaren bizi baldintzak hobetzen lagunduko duten balizko jardunbideak proposatzeko ahalegina egingo da, eta, horretarako, emakume horien egoera eta ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutu behar dira.

KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

3.3.1

Prostituzioan lan egiten duten emakumeen kolektiboaren bilakaera eta administrazio publikoak bultzatzen edo egiten dituen jarduketak motak parekatzean gehien nabarmentzen den alderdietako bat zera da: arazoaren bi alderdien arteko desfasea.

Oro har, prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko egungo politikak "klasikoen" (4) taldean oinarritzen dira, hau da, prostituziorik tradizionalenean. Aurreko atalean egiaztatu ahal izan dugunez, prostituzioko emakumeei laguntzen dien elkarteek artean denbora gehien daramatenak talde horietan oinarritzen dira: bai kokapenagatik –halaxe da "Gorteak" auzoan bertan dagoen Askabide-ren kasua–, eta bai egiten dituzten bideratzeengatik ere.

Zentzu horretan, egungo jardunbideak adin aurreratuko emakumeen kolektiboan oinarritzen dira. Ikerketa honetan bildutako emaitzen arabera, talde hori arian-arian desagertzen doa ordezkorik ez dutelako. Beste sektore ekonomiko batzuetan gertatzen den bezala, espainiar nazionalitateko herritarrek ez dituzte egin nahi zenbait lan –batez ere lehen sektorekoak eta ostalaritzakoak ere geroz eta gutxiago–, eta atzeritarren eskulana bideratzen da jarduera horietara. Horrela, bada, horixe bera gertatu da prostituzioan diharduten emakumeen kasuan, eta emakume espainiar gehienek goi standingeko etxebizitzetan lan egin ohi dute.

Laburbilduz, kolektiboaren azken hamar urteetako bilakaeran hiru joera nabarmentzen dira:

- **ATZERRITARTZEA.** 90eko hamarkadaren hasieratik hona emakume atzeritar asko sartu da sektorean. Hala nola, gaur egun prostituzioan diharduten emakume guztien %80-90 atzeritarrak direla kalkulaten da.
- **SAKABANATZEA** lokaletan. Hiri erdiguneko lokal tradizionalak desagertzen ari dira eta haien ordez geroz eta etxebizitza gehiago ditugu. Paraleluki, lokal handiak irekitzen ari dira hirien kanpoaldean, eta lokal horietako asko "plaza" erregimenean kudeatzen dituzte eta hilero aldatzen dituzte emakumeak.
- **Sektoreko jarduera HANDITZEA.** Formula berri horien bidez (makro-klubak eta etxebizitzak) azken urteetan sektore horren negozio kopurua igo egin dela egiaztatu da.

Guzti horren ondorioz, elkarte tradizionalei geroz eta zailagoa egiten zaie esku hartzea. Euren jarduketa guneak espazio mugatuak izaten dira eta emakume gutxiko profildunak; zailtasun handiak izaten dituzte, esate baterako, hiriko hainbat klubetara joateko eta are gehiago errepidekoetara heltzeko. Kasu batzuetan landa lana ere egiten dute eta elkarteetako arduradunak joaten dira klubetara emakumeak informatzera edo prebentzio materiala banatzera. Baina, edonola ere, sarritan ez zaie lokaletan sartzen uzten.

Bestalde, emakume gehienak atzeritarrak direnez eta askok euren egoera legeztatzerik izan ez dutenez, jarduketa are zailagoa da. Arazoa bikoitza da: alde batetik, elkarteek ezin duten emakume horiengana heldu, eta, bestetik, emakumeek beraiek errezeloak izaten dituzte euren egoera isilpean gorde nahi izaten dutelako. Pertsona horiek komunitateko beste zerbitzu batzuetara bideratzea asko mugatzen du horrek guztiak.

Hortaz, egungo jardunbideak indartu egin behar dira eta esku hartze berriak proposatu behar dira arazoari osoki heldu ahal izateko.

(4) Espainiar nazionalitate dute emakumeak, adin aurreratukoak (50 urte ingurukoak), prostituzioan urteak daramatzatenak eta kualifikazio maila apalekoak.

lkerketako aurreko faseetan egindako azterketen bidez, EAEn prostituzioan diharduten emakumeen artean hiru mota aurkitu dira: kalekoak edo "klasikoak", atzerritarrak eta goi standingekoak.

Bistan denez, esku hartzearen maila eta mota eta emakumeen egoera sozio-ekonomikoa alderantziz lotuta egongo dira kasu gehienetan, edo beste era batera esanda, zenbat eta diru sarrera eskasagoak izan orduan eta laguntza gehiago beharko dute. Dena den, baieztapen hori ez da guztiz egia, gauza batzuk guztiek behar baitituzte. Esate baterako, guztiek behar dute euren jarduerari lotutako arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea bultzatzen duen osasun informazioa. Zentzu horretan, zera detektatu da: sektore batzuetan –maila altuenetan batez ere, egungo jardunbideetatik urrutien daudenak baitira– ez dutela kontuan hartzen euren lana dela eta berariazko azterketa ginekologikoak egin behar dituztela. Kolektibo horretako emakumeak sarritan zentro pribatuetara joaten dira, eta zentro horietan ez badute adierazten euren lan jarduera zein den, ez dizkiete egiten patologia ohikoenak diagnostikatzeko derrigorrezko azterketak.

Euren osasunari dagokionez, jarduera horrek dituen arriskuez jabetzeaz gain, emakume guztien behar dituzte osasun azpiegiturari buruzko argibideak eta baita patologia jakin batzuen diagnostikoa egiteko zentroen hornikuntzari buruzko informazioa ere. Gainera laguntza psikologikoa ere behar izaten dute askotan, prostituzioan aritzeak eragin gogorra izaten baitu emakumeen emozio orekan, eta horren eraginez depresiorako joera nabarmena izaten dute sarritan.

Gaur egun, maila behekoak edo klasikokoak nahiko ondo informatuta daude, euren zuzenduta baitaude, hain zuzen ere, prostituzioko emakumeentzat garatzen diren esku hartze guztiak. Egungo jardunbide bakarrak kolektibo horretara bideratzen dira. Baina esku hartze gehienek helburu den talde hori desagertuz doa sektorearen garapenaren ondorioz, pertsona horiek ordezkorik ez baitute espainiar nazionalitateko emakumeen artean.

Baina, edonola ere, atzerritarrak dira era guztien artean behar gehien dituztenak. Hasteko, estatuan bizitzeko baimena legeztatu behar dute, erroldatu gabe daudenek osasun zerbitzuez baliatzeko erraztasun handiagoak behar dituzte, askok behar-beharrezkoak dituzte alfabetatze ikastaroak –gasteleraz hitz egiteko ere ez baitira gai–... Hala eta guztiz ere, egungo Extranjeria Legeak ez du bide ematen emakume horien egoera erregularizatzeko eta lehendik gizartean dauden baliabideak optimizatzea oztopatzen du; izan ere, sarritan, legez kanpoko egoeran daudelako euren isolamendua areagotzen da eta baliabide publikoetarako sarbidea ukatzen zaie.

Alabaina, azken erreformaren bidez badirudi erroldatuta dauden emakumeek edo 2001eko urtarrilaren 23a baino lehen lan baimena dutenek euren egoera erregularizatu ahal izango dutela. Baina, seguruenik hori egin dezaketenak gutxiengo izango dira, atzeritar gehienak sakabanatuta eta isolatuta egoten baitira.

Edonola ere, kolektibo horrengan esku hartzea arazotsua izan daiteke. Euretako batzuk ahalik eta denbora laburrenean ahalik eta diru gehien irabaztea baino ez dute nahi izaten, eta beste asko, aldiz, bertan geratzeko prest egongo lirateke, horretarako aukerarik izanez gero.

Azken finean, emakume atzerritarren kolektiboak arazo bikoitza du. Alde batetik, turista gisa ezin dute hiru hilabete baino gehiago geratu eta euretako askok gehiago geratu nahiko lukete edo baita bertan bizi ere, eta, ondorioz, asko legez kanpo geratzen dira. Bestetik, berriz, prostituzioa jarduera ekonomiko gisa onartuko balitz, legalki geratzeko aukera izango lukete eta era normalizatuan bizi ahal izango lukete. Izan ere, lan kontratua izanik, egoitza baimena legeztatu ahal izango lukete.

Amaitzeko, goi standingekoei dagokienez, ezinezkoa izan da zuzenean jakitea zein diren kolektibo horren beharrak. Kualifikatuagoak direnez eta baliabide ekonomiko hobeak dituztenez, administrazioaren esku hartzea mugatuagoa izango litzateke: oinarrian, jardueraren ondorioz dituzten osasun arriskuei buruz jabetzeari lotuta egongo litzateke soil-soilik.

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO BEHARRAK

3.4

Prostituzioan diharduten emakumeen artean sumatu diren era guztietako beharrak azaldu dira atal honetan. Taldeetan parte hartu duten adituek egindako hausnarketa eta zehaztapenak oinarri hartuz egin da zerrenda. Logikoki, ondoren aipatu diren gabeziak ez dagozkie emakume guztiei; euren egoera partikularren edo lanaren arabera, batzuk edo besteak dagozkie.

INFORMAZIOA

3.4.1

Oro har, beraientzako erabilgarriak liratekeen komunitateko baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa behar dute askok. Informazio premia hori are larriagoa da atzerritarren kasuan; izan ere, isolatuago egoten dira eta batzuk ez dute jakien zein baliabide dauden eta baliabide horiek erabiltzeko zein tramite egin behar dituzten. Horrez gainera, legez kanpoko egoeraren ondorioz, ezkututan gordetzen dira errepresalien beldurrez.

OSASUNA

3.4.2

Begi bistakoa da prostituzioan diharduenak bere osasuna arriskuan jartzen duela. Ikerlanean kontsultatutako adituen arabera, ondorengo alderdiez arduratu beharra dago:

- Emakume horien artean ohikoagoak diren patologientzako berariazko azterketa ginekologikoak (STG, GIB probak, cervix minbizia...).
- Patologia horien prebentzioa.
- Mendekotasunetarako joerari (alkohola, ludopatía...) eta depresioari aurre egiteko laguntza psikologikoa.

SEGURTASUNA

3.4.3

Osasun arriskuez gain, bezeroengandik tratu txarrak jasotzeko beldur izaten dira emakumeak. Oro har, arrisku kolektiboa dela dirudi, halakorik gertatu izana ukatu egiten baitute gehienek maila partikularrean. Komenigarria da, baita ere, emakume horien inguruko mafiak edo merkataritza sareak daudela argi uztea eta iruzur egoerak eman daitezkeela.

ETXEBIZITZA

3.4.4

Gehienek ez dute etxebizitza propiorik eta alokatutako etxebizitzan jabeek gehiegikeriaz jokatzeko dute sarritan; lan kontraturik ez dutenez, normalean baino askoz alokairu garestiagoak kobratzen dizkiete. Bestalde, kasurik okerreanean etxebizitzaz aldatu behar izaten dute eta horrek euren gizarte isolamendua areagotzen du.

EGOITZA BAIMENA ARAUPETZEA

3.4.5

Logikoki, atzeritarrei dagokien arazoa da hau. Gehiegikeria asko ekidin ahal izango lirateke euren egoera erregularizatzen orientatzen dituzten laguntza egiturei esker. Lan emaleek gehiegikeriak eragiteko arrisku handiagoa dute lege kanpoko egoeran daudenean; ez diete lan kontraturik egiten, eta, ondorioz, ordainketa esplotazioa jasan behar izaten dute batzuetan. Egoitza baimenaren tramitazioarako iruzur laguntza ematen diete abokatu batzuk –inongo baliorik gabeko papera erredaktatzen die, alegia–.

LANBIDE BATEAN HASTEKO ALTERNATIBAK

3.4.6

Lanez aldatzeko nahia adierazten dute batzuk, batez ere zorra ordaindu ondoren. Hori horrela denean eta beste lan bat egiteko prestatuta dauden kasuetan, komenigarria litzateke alternatibaren bat eskaintzea bizitza normalizatuagoa izateko bide emango liekeena.

ESKU-HARTZE ESTRATEGIAK

3.5

EAEn prostituzioan diharduten emakumeen egoera duintzeko helburuarekin administrazio publikoak bideratu beharreko jardunbideak diseinatzerakoan adituen artean aipatu diren hainbat gai azalduko dira atal honetan. Zentzu horretan, bi gai nagusi aipatu dira: esku hartzean emakumeak beti talde batzuekin integratu beharra eta esku hartze horren osoko planteamendua edo globala.

BERARIAZKOTASUNA / INTEGRAZIOA EZTABAIDA

3.5.1

Prostituzioa lanbide duten emakumeen bizi baldintzak hobetzea helburu izanik, administrazioak orain arte baina modu zuzenagoan esku hartzeko aukera planteatzerakoan sortzen diren lehen arazoetako bat zera da: esku hartze hori berariaz kolektibo horretan oinarritzea, edo, bestela, esku hartze horiek jarduketa politiko orokorragoetan integratzea.

Gai horri dagokionez, kontraesan handiak sumatu dira gaur egun emakume horiekin harreman zuzenak dituzten kolektibo eta elkarten artean. Izan ere, hasieran profesionalek esaten dute prostituzioko emakumeen arazoak beste edozein emakumerenaren oso antzekoak direla, baina arazo zehatzak sakonago aztertzean –osasuna eta lanbide batean hasteko aukerak dagozkienak, esaterako–, kolektibo horretan arazoak berariazkoak direla ikus daiteke. Jatorriz arazoak antzekoak badira ere, emakume horietako askoren kasuan eraginaren tamainari dagokionez desberdintasun handiak izaten dituzte.

Emakume horiek esku-hartze politika orokorragoen baitan integratzeko behar larria ikusten dute euren gertuen dauden sektoreek, hartara –esku-hartze horren bidez– gizarte isolamendua edo ghetto bihurtzea saihesteko.

Esku-hartzearen planteamenduaren ikuspuntutik emakumeak beste kolektibo batzuetan integratzea onuragarria izango litzateke bi arrazoiengatik. Alde batetik, oso erabilgarria izango litzateke, emakumearen isolamendua hausten lagunduko lukeelako hasiera-hasieratik –ekintzak planifikatzeko fasetik bertatik. Bestalde, gainera, seguru asko arazo edo beharri-

zan jakinen inguruko administrazio publikoaren baliabide edo jarduketak optimizatzea ahalbidetuko lukeelako.

Baina hala eta guztiz ere, praktikan arazoak izan daitezke gisa horretako jarduketa orokorrekin. Izan ere, beharbada emakume horietako batzuk ezinbestean esku hartzea beharko dute beste kolektibo batzuetan integratu aurretik –arazo partikularrak tarteko (5)–; hala nola, kolektibo batzuk ekintza performatiboen beharra izan dezakete.

ESKU-HARTZE INTEGRALA / AREAZ AREAKOA

3.5.2

Prostituzioa bizibide duten emakumeen egoera hobetzeko xedea dute baliabideak optimizatzeke, zera izango litzateke egokiena: esku-hartzeko politika integrala planteatzea.

Administrazio publikoaren ikuspuntutik era horretako esku-hartzeak halabeharrez hobetuko luke jarduketa bide desberdinen arteko koordinazioa, eta, bestalde, bikoiztasunak saihesten az gain, baliabideak erabiltzaileen irispidean jartzea bultzatuko luke.

Esku-hartzearen helburu diren emakumeei dagokienez, berriz, jarduketa horien eraginkortasuna nabarmen indartuko litzateke. Irizpide moralak alde batera utzita, bistan da prostituzioak pertsonengan ondorioak eragiten dituela; hala nola, osasunean, oreka emozionalean eta gizarte harreman orokorretan.

Hori guztia dela eta, administrazio publikoaren esku-hartzea, ahal den neurrian behintzat, osokoa izatea komeni da. Horrela, emakume bakoitzaren arazo edo beharrianak elkarrekin konpon litezke eta politiken egonkortasuna hobetuko litzateke.

Baina, hala ere, administrazio publikoaren egoera egitura administratibotik abiatuta, oso zaila eta konplexua izaten da berariazko kolektiboen inguruko osoko planteamenduak aurrera eramatea; operatiboagoa da esku-hartze batzuk prostituzioan diharduten emakumeen beharretara zuzendutako jarraibideen arabera antolatzea –sare publikoan dauden baliabide eta zerbitzu ugariak baliatuz–. Beraz, prostituzioan aritzeagatik arazoei heltzerakoan erakunde bat baino gehiago esku hartu behar dute, baina hori ez da oztopo, kolektibo horiek behar duten esku-hartzearen zentzu globala duen koordinazioa planteatzeko.

(5) Jardueran urte asko ari izan ondoren desegituraketa ezagarriak dituztenen kasua da edo hizkuntzarekin arazoak dituzten atzerritarrena.

Labur adierazita, balizko esku-hartzeko jarraibideak diseinatu aurreko azterketatik ateratzen diren ondorioetako bat zera da: administrazio publikoak gaur egun garatzen dituen estrategiak zaharkituak geratu direla prostituzioan ari den sektoreak izandako aldaketen ondorioz. Egun prostituzioan diharduten emakumeen gehiengo nagusiak ezin du zerbitzu askoz baliatu, informazio falta handia dute, eta, sarritan zenbait zerbitzu bikoiztu egiten dira hainbat erakunderen artean.

Hori horrela izanik, administrazioaren esku-hartzea hobetzeko ezinbestekoa da planifikazio bateratuak egitea, administrazio publikoak diruz laguntzen dituen prostituzioaren inguruko berariazko programen bidez (6).

ESKU-HARTZEKO BEHARRA

3.6.1

Prostituzioa bizibide duten emakumeen inguruko esku-hartze politika birplanteatu behar dute administrazioek, oro har, bai eta Euskadikoak ere. Zentzu horretan, lehenik eta behin arazoa osoki aztertzen duen eztabaida egitea komeni da, eta azterketa horretan emakumearen egoeraren ikuspuntu desberdinak eta etorkizunari begira administrazioak bideratu beharreko esku-hartze mota barne hartu behar dira.

Hori kontuan hartuz, ondorengo ikuspuntuak mahaigaineratu behar lirateke:

- Ikuspuntu orokorraren arabera gizarte osasuneko arazoa da, orokorrean gizartean izan ditzakeen osasun ondorioez jabetzeko lan handia eskatzen baitu. Hori horrela izanik, emakumeak arrisku talde izan daitezkeela onartu du gizartearen zati handi batek, baina publikoa oraindik ez da ohartu emakume horien bezeroak ere arriskuan egon daitezkeela.
- Ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta, ezkutuko ekonomian negozio ikaragarria sortzen duen jarduera dugu, eta, beraz, negozio hori guztia karga edo esku-hartze publikotik at geratzen da. Emakumeek gain, eurek sortutako irabazietatik bizi diren pertsona eta talde guztiek ere etekina ateratzen dute.
- Jarduera hertsiki legearen ikuspuntutik aztertzen badugu, oso definizio nahasia eman beharrean izango gara. Izan ere, jarduera berez ilegala ez bada ere, horretan diharduten pertsonak legez kontrako egoeran ezartzen dira. Eta ondorioz, arautu gabeko jardueretan gertatu ohi den moduan, abusu eta estortsiorako baldintza ezin hobeak eskaintzen

(6) Aditu askok laguntza politikak gomendatu dituzte zuzeneko esku-hartzearen orde; izan ere, emakumeak administrazioaren beldur izaten baitira, seme-alaben zaintza edo jasotzen duten dirulaguntza kenduko dizkietelakoan.

ditu; eta prostituzioaren kasuan are larriagoa da nabarmen, gorputza eta sexu harremanak baititu oinarri.

- Beste gauza batzuen artean, aurrerapen etiko eta morala izateaz gain, eztabaida planteatzea heldutasunaren seinale izango litzateke. Gizarteak bere kontraesanak onartu behar ditu eta haiei aurre egin, eta are gehiago EAEko testuinguruan, erkidego honetan politika sozialak eta baztertuei laguntzekoak bideratzearen aldeko apustua egiten baita.
- Emakumeei dagokienez, bistan da kolektibo benetan ahula osatzen dutela; esku-hartzea behar dute eta euren egoerari duintasuna eman behar zaio. Prostituzioan aritzeak ahul bihurtzen ditu: gizarteak gaitzetsi egiten du jarduera, asko legez kontrako egoeran daude, lanak osasun arazoak eragiten dizkie, tratu txarrak izateko arriskua, emakumeen trafikoan diharduten mafiak...
- Azkenik, arazoari dagokionez, erakunde publikoek duten betebeharraren inguruan, emakumeei laguntza ematen dieten beste erakunde edo talde batzuei laguntza ematea besterik ez dute egin. Erakunde horietan lan egiten dutenek orokorrean oso lan baldintza eskasak izaten dituzte eta gaur egun ematen duten laguntza maila ez litzateke posible izango boluntariorik gabe.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, administrazio publikoak arazoari aurre egin behar dio ezinbestez giza baliabide gehiago eta material gehiago bideratuz sektorean lan egiten duten pertsonen laguntza eta duintasunerako. Eta, laguntza indartzeaz gain, sektorearen funtzionamenduaren kontrola bere egin behar du.

ESKU-HARTZEKO BIDEAK

3.6.2

Jarduketak antolatzerakoan administrazioak ahal duen neurrian emakume horiek beste talde batzuekin batera integratu behar baditu ere, arazo askori dagokienez berariaz euren- tzako jarduketak bideratu beharko ditu.

Era berean, guztiok nahi genuke aldi berean emakume bakoitzaren arazo guztietan esku hartu ahal izatea, baina arazo edo behar izan batzuek berariazko jarduketak eskatzen dituz- tenez, behar zehatz horietarako hainbat jarduketaz esku hartu beharra dago.

INFORMAZIOA

Prostituzioan aritzen diren emakumeen gabeziarik nagusienetako bat maila guztietako infor- mazio falta. Gizartean tabu ugari dago prostituzioaren eta jarduera horretan dihardutenen inguruan, alde batetik aspalditik ezkutatuta egon den jarduera delako estigmatizazioaren ondorioz, eta, bestetik, sexu harremanekin lotutako gaiak sortarazten duten errezeloenga- tik. Eta guzti horren ondorioz, emakume horiek gizartean isolatuta daude.

Horregatik, informazio lana bi arlotan egin behar litzateke aldi berean: orokorki gizartearentzat eta prostituzioko emakumeentzat.

- Gizarteari dagokionez, berriz, kolektibo horren inguruko sentsibilizazioa egin behar litzateke maila guztietan, hau da, komunikabideetatik hasi eta berariazkoagoak diren gizarte kolektiboetaraino.

Zabaltzen dituzten zenbait berriren edukien bidez komunikabideek sarritan prostituzioko emakumeen inguruko aurreiritziak indartzen laguntzen dute. Halaxe gertatzen da prentsan agertzen diren bortxatutako hainbat emakumeri dagokionez. Delitua jasandako emakumearen jarduerak normalean garrantzirik ez badu, zergatik aipatzen da prostituzioa denean? Orobat, zera nabarmentzen dute hainbat berrik eta epaile sententziak: emakume horiek ez dituztela beste edozein herritarren eskubide berak.

Hori guztiagatik, egokia litzateke komunikabideetan aritzen diren profesionalak sentsibilizatzea kolektibo horrekin zerikusia duten berriei ematen dieten trataeraren inguruan. Are eta gehiago, eragile horien lana erabat bestelakoa izan daiteke: gizarteak prostituzioan aritzen diren emakumeei buruz duen ikuspegia "normalizatzeko" elementu eraginkorra izan daiteke. Izan ere, begi bistakoa da komunikabideek izugarritzko indarra dutela publikoaren iritziak eta jarrerak moldatzeko, eta, horrexegatik, funtsezko zeregina izan dezakete.

Bestalde, berariazko kolektiboak arazoaz jabetzea bultzatu behar da, hala nola, emakume taldeak, guraso taldeak, epaileak eta polizia, besteak beste. Garrantzitsua da, baita ere, arazoari prebentzioaren bidetik heltzea, sexu heziketaren bidez nerabeak arazoaz jabetzea ahalbidetuz.

Azken finean, eztabaida publiko bat egitea komeni da orokorrean prostituzioari buruz eta baita, berariaz, prostituzioan diharduten emakumeen egoerari buruz, arazoaren hainbat alderdi sakonduz. Prostituzioaren inguruko jarreraren gaineko eztabaida publikoak arazoa ulertzeko modua normalizatzen laguntzeko bide emango luke.

Zentzu horretan gizartearen jarrera ez da batere koherentea, hipokrita dela ez esatearren. Betidanik esan izan da "munduko lanbiderik zaharrena" dela eta lurraldeko egunkariek erakusten dutenez, harremanen atalean ez dirudi desagertzeaz dagoen jarduera denik, guztiz kontrakoa baizik. Baina beste edozein jarduerarekin gertatzen ez den bezala, administrazioak ez du arautzen ez eta esku-hartzen ere, eta, ondorioz, sektorea baztertzea bultzatzen du. Hori guztia kontuan izanik, beraz, halako eztabaida bat planteatzea administrazioaren heldutasunaren seinale izango litzateke eta, horrez gainera, gizarteak prostituzioa ulertzeko modua normalizatzen lagunduko luke.

- Emakumeei dagokienez informazio lanak bi helbururen ingurukoa izan behar du: eguneroko bizitzarako informazio praktikoa eskaintzea eta talde gisako kontzientzia garatzea.

Alde batetik, informazioaren zati batek emakume horientzat praktikoa izan behar du, erabil ditzaketen baliabide eta zerbitzuen xehetasunak ezagutu ditzaten. Desinformazioa oso nabarmena da emakume atzeritarren artean; hala nola, askok eta askok ez dakite doako osasun laguntza erabil dezaketenik edo eurei laguntzeko elkarteak daudenik. Horrenbestez,

lurralde historiko bakoitzerako programa eta elkarte guztiak biltzen dituen Baliabide Gida egitea ezinbestekoa da; eskaintzen diren zerbitzuak eta elkarteen harremanetarako helbide eta telefonoak emango dira gida horretan.

Klubetako osasun kontrolekin batera egin liteke informatzeko lan honen zati bat. Osasun agenteek lokalen osasun baldintzak ikuskatzen dituzten bitartean, emakumeek erabil ditzaketen baliabide eta zerbitzuen berri eman dezakete.

Bestalde, prostituzioan aritzeak bai osasunean eta bai bizi baldintza orokorretan dituen eraginen berri eman behar zaie emakumeei. Zentzu horretan, epe luzera jarduera horrek dituen eraginen inguruan auto-engainua bultzatzen du kolektiboaren isolamenduak.

Prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko programetan gauzatu behar da informatzeko ardura. Orobat, kontzientzia hartzeak ondorengoak ahalbidetu ditzake: jarduera arautzeko beharraz gehiago jabetzea eta, arautze horren bidetik, epe luzera emakumeen bizi baldintzak hobetzea eta gizarteak prostituzioa ulertzeko duen modua aldatzea.

OSASUNA

Osasunaren gaineko esku-hartzeak garrantzia handia du, eurentzat oinarri-oinarrizko elementua baita, eta, horregatik, beste esku-hartze batzuekin lotzeko balio izan dezake. Egia esan, osasunari dagozkion arazoak dira eurek gertukoentzat jotzen dituztenak, eta, hori horrela izanik, harkorragoak dira osasunarekin zerikusia duten baliabide eta zerbitzuen inguruan.

Bost jarduketa proposatzen dira osasunaren inguruan: osasun laguntza, prebentzioa, laguntza psikologikoa, osasunerako heziketa eta klubaren osasun kontrola.

Osasun laguntzari dagokionez, ezinbestekoak dira zerbitzu guztietarako sarbidea eta osasun txartela. Gainera, era guztietako azterketa ginekologikoak egiteko aukera izan behar dute. Horretarako, sarbide orokorreko hainbat doako zerbitzu jarri behar dira sare publikoaren baitan –anbulatorio nahiz eskualde ospitaleetan, lurralde historiko bakoitzaren banaketa demografikoaren arabera–. Kolektiboak jasaten dituen ohiko patologia diagnostikatzeko azterketak era normalizatuan egingo dira zerbitzu horietan, hala nola: STG, cervix minbizia, GIB...

Orobat, garrantzitsua da osasun erakundeek prebentzio kanpainak sustatzea, berariaz prostituzio helburu duten programekin bat eginez. Zentzu horretan, prebentzio lanaren balioa azpimarratu behar da; izan ere, HIESaren tratamenduaren medikuntza aurrerapenen ondorioz preserbatiboen erabilera jaitsi egin baita. Gainera, bezero batzuk prest daude gehiago ordaintzeko preserbatiboa ez erabiltzearen, eta, ondorioz, behar gehien duten emakumeek –nagusiki atzerritarrak edo drogaren menpe daudenak– ez dute erabiltzen. Aipatu beharrezkoa da, baita ere, aho-genital motako kontaktuetan ere preserbatiboa erabili behar dela. Azkenik, emakumeek jakinaren gainean egon behar dute euren kidea izaten dela sarritan infekzio foku nagusia –eta harekintxe normalean ez dutela preserbatiborik erabiltzen–.

Laguntza psikologikoa ere kontuan izan beharreko arloa dugu. Prostituzio jarduera sarritan depresio edo menpetasun joerekin lotzen dugu, lanak berak desgaste psikologiko handia

eragiten baitu. Halaber, behin eta berriz ikusi da zenbait substantzia toxiko –tabakoa eta alkohola– asko kontsumitzen direla. Zera zioen informatzaileetako batek: *"Erre edo esnifatu edo egin behar izaten dutela esan zidan nirekin egiatan hitz egitera animatu zen emakume batek, bestela oso zaila omen da eta horrelako bizitza aurrera eramatea"*. Emakume horiengan ludopatiak ere oso normalak izaten dira. Lan baldintzen ondorioz sarritan horrelako kontsumoak ihesbide bihurtzen dira, baldintza horietatik alde egiteko modua. Horregatik guztiagatik, laguntza edo terapia psikologikoko taldeak sortu behar dira autoestimua indartzen laguntzeko eta ihes egiteko beharra berehalako atseginarene bidez bilatzea gainditzeko.

Orokorrean emakume horien osasuna hobetzeko ohiturak bultzatzea helburu duen abiaburu orokorrago bateko esku-hartzeak izan litezke emakumeen osasunaren inguruko jarduketak. Kotsiderazio horren baitan osasunak honakoak barne hartuko lituzke: higiena, ariketa fisikoa, elikadura eta atseden ohiturak, eta oreka emozionala, besteak beste. Prostituzioan diharduten emakumeei laguntzeko berariazko programen baitakoa izan behar luke oinarrian Osasunerako heziketa horrek.

Azkenik, esku-hartzeko biderik berritzaileena Kluben osasun kontrolari dagokiona izango litzateke; lokalen osasun eta higiena baldintzak ikuskatzeaz gain, bertan lan egiten duten emakumeen kontrol ginekologikoen nahitaezko aldizkakotasuna aztertzea eskatuko luke. Kontrol ginekologikoak ikuskatzean osasun publikoari lehentasuna eman behar litzaioke pribatuaren aldean, zentro pribatu batzuetan ez baitizkiete diagnosi proba guztiak egiten, eta, antza denez, zentro horietako batzuetan "klubek" salbatzen saiatzen dira.

Klubak ikuskatzeak lokalen eta emakumeen jarraipen zuzenagoa egitea ahalbidetuko luke, eta, horrez gainera, administratibotik emakume horientzako informazioa errazago helarazten lagun lezake. Horregatik, emakumeei laguntza ekonomikoa eta babesa emateaz gain, klubak zorrotasun handiagoz kontrolatzearen aldeko apustu garbia egin behar du administratibotik eta etxebizitzetara ere iristen ahalegindu behar du.

SEGURTASUNA

Segurtasunari dagokionez, hainbat esku-hartze maila planteatzen dira:

- Oraindik kaleko prostituzioa dagoen guneeetan ezinbestekoa da udaltzaingoaren unitateen gehiagoren bidez babesa indartzea. Halaber, kolektibo hori sentsibilizatu beharra dago, emakumeak sarritan segurtasun indarrek emandako tratuaz kexatzen baitira.
- Lokal barruko prostituzioari dagokionez, aldiz, noizean behin poliziak ikuska ditzala gomendatzen da. Orobat, lokalek euren segurtasun neurriak izan behar dituzte, bezeroen jokabidea arautzen duen eta bezeroak onartzeko eskubidea bermatzen duen araudi propioaren bidez. Horrez gainera, lokalek segurtasun zerbitzua izatea ere garrantzizkoa da.
- Emakume trukean aritzen diren sareen jarraipena egin behar litzateke horretarako beharrezkoak diren ikuskatzeen bidez; hartara, ahal den neurrian, larderia eta eskubide mugaketako iruzur egoerak antzemateko.

SOZIALA / ASISTENTZIALA

Egungo erakundeen jarduketa eta aplikazioaren abiaburua zabaltzen duten bi jarduketa maila ditugu esku-hartzeko bide horretan: prostituzioan aritzen diren emakumeei berariaz laguntzeko programak eta oinarritzko gizarte zerbitzuak.

Programa eta jarduketetan oinarritutako esku-hartzeko bidean ezinbestekoa da esku-hartze sozial eta asistentzialeko esku-hartze plataformaren dotazioa. Plataforma horrek prostituzioan diharduten emakumeentzako berariazko programa dinamizatzailerik izan behar du eta esku-hartzeak bideratu eta koordinatu behar ditu. Bada, zerbitzu horien bidez kolektiboaren barneko informazio funtzioa zuzendu behar da; halaber, prestakuntza ikastaroak antola daitezke –batez ere aurre prestakuntzakoak– eta erabiltzaileak komunitateko berariazko beste zerbitzu batzuetara bideratu behar dira. Hiru lurralde historikoetan lehendik dauden programa eta elkarten jarduketetan planteamendu berean oinarritu behar litzateke zerbitzu egitura –administrazio publikoarekikoarekiko independenteak baitira elkarte horiek (7)– baina proiektu gisa orohartzaileagoa izango litzateke, bai baliabideei eta bai jarduketa-eremuari dagokienez ere.

Hori horrela izanik, emakumeei laguntza emateko gune izateaz gain, egitura horiek topagune (8) izan behar lukete, era informalean talde kontzientzia bultzatzeko eta emakume horien arteko lotura harremanak sendotzeko. Horrela, prebentzio lana garatu ahal izango litzateke, zenbat eta talde kontzientzia handiagoa izan orduan eta eraginkorragoa izaten baita defentsa erreakzioa arazo zehatz edo egoera iraingarrien aurrean. Gainera, erabiltzaileei informazioa eta hainbat zerbitzu eskaintzeaz gain, egitura horrek askoz ere indar handiagoa izango luke, emakumeen inguruko zerbitzu multzo guztia dinamizatuz. Bestalde, prostituzioan diharduten emakumeak hiri ingurunearen baitan egotea normalizatzeko elementu gisa balioko luke horrelako gune batek.

Emakumeentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea izango litzateke egitura horien funtsezko funtzioetako bat. Egungo zerbitzu sarea osatzen duten aktore bakoitzari dagozkion eginkizun eta funtzioak zehazkiago definitu behar dira zerbitzu bikoiztasunak ekiditeko.

Bada, hortaz, prostituzioan esku-hartzeko programa horiek ondorengo funtzioak bete behar litzukete:

- Emakumeek erabilgarri dituzten baliabide eta zerbitzuei buruz informatzea, eta, egoki denean, zerbitzu edo baliabide horietara bideratzea.
- Prebentzioa eta Osasunerako Heziketa dinamizatzea.

(7) Prostituzioan diharduten emakumeei eta administrazioko langileei eginiko elkarrizketetan zera ikusi da: emakume horiek langile publikoekiko errezeloak dituztela, euren diru-sarrerara zein den jakingo balute IMIa edo seme-alaben zaintza kenduko dieten beldur izaten direlako.

(8) Gisa horretako esperientzia interesgarria da Zaragozan garatutakoa. Prostituzioko emakumeak elkartzeko leku bat dago eta bertan emakumeek esperientziak, zalantzak eta beharrak trukatzeko dituzte; gero planteamendu horiek dagozkien zerbitzuetara bideratzen dira.

- Behar duten emakumeei laguntza psikologikoa eta talde terapia eskaintzea.
- Denbora partzialeko (aurre)prestakuntzako ikastaroak, ordutegien arabera jarduera ekonomikoarekin bateragarriak. Ekonomikoki lagundutako prestakuntza horrek gutxieneko gizarte gaitasunak garatzen lagundu behar die, hala nola, jendaurrean hitz egitea edo berariazko egoeratan moldatzea, eta emakumeek dituzten ohiturak aldatzeko balio izan behar du. Hasieran, ikastaro horiek berariaz eurentzat izan behar dute edo baztertuak izateko arriskua duten kolektiboentzat. Aurrerago, lanean hasteko berariazko jardueratan oinarritutako ikastaro zehatzago batzuetara bidali ahal izango dira emakumeak, eta, beste kasu batzuetan, emakumeak prestakuntza sistema normalizatueta integratzea ere bultzatu liteke zuzenean.
- Alfabetatzea eta kultur ohiturak atzeritarrentzat.

Oinarritzko gizarte zerbitzuen funtzioa funtsean berdina izango litzateke laguntza ekonomikoan izapidetzeari dagokionez (IMI eta AES), eta baita etxebizitza lortzeko gidaritza laguntzari dagokionez ere, alokatzen diren etxebizitzak jabeek gehiegikeriak egin ez diezazkieten.

Orobat, oso lagungarria izango litzateke bazterkeria jasateko arriskua duten taldeentzat Aplikazio Berezikiko Erregimena bultzatzea administrazioaren eskutik, komunitateko zenbait zerbitzu erabiltzeko errolda ziurtagiria ezinbestekoa izan ez dadin.

LEGE AHOALKULARITZA

Lan honen aurreko ataletan azaldu den bezala, prostituzioan diharduten emakumeen gehiengoa –%80 eta 90 artean– atzeritarrek dira, eta badirudi ehuneko horrek ez duela behera egingo epe ertainera. Bestalde, legea geroz eta murriztaileagoa da garatze bidean dauden herrialdeetako etorkinek euren egoitza baimena espainiar estatuan araupetzeko aukerari dagokionez. Eta, ondorioz, oso zaila da emakume horien egoeran eta lanean esku hartzea, askotan sakabanatuta, isolatuta, eta, kasu okerrenetan, mafien esku egoten baitira.

Hori horrela izanik, esku hartze legala funtsezkoa litzateke prostituzioko emakumeen kolektibo ahulenaren egoera duintzeko, etorkinena, alegia. Baina arazo bat dago: EAEko administrazioak ez du eskumenik maila horretan esku hartzeko. Horregatik, esku hartzeko aukera bakarra interesdunei aholkularitza eskaintzea da, dagokien tramitazio administrazioaren prozesuan laguntzeko xedearekin.

Emakumeen ikuspuntuaren arabera, mafiak salatzea da prostituzioan diharduten emakumeei euren egoitza baimena araupetzeko eskaintzen zaien aukera bakarra. Horrelako kasuetan, administrazioak egoitza baimenarekin saritzen ditu. Baina, nolana ere, normalean ez da bide hori erabiltzen egoitza baimena izapidetzeko, mafiek askotan familien inguruko txantajea egiten diete eta.

Testuinguru horretan, hainbat GKEk –CEAR eta SOS Arrazakeriak, esaterako– aholkularitza eta laguntza eskaintzen die emakume horiei. Zentzu horretan, oso lagungarria da dituzten aukerei buruzko informazioa ematea: euren egoera legeztatzeko, euren egoera araupetzea

ahalbidetzen dien kontratua lortzeko, prostituziotik ateratzeko, edo, kasurik onenetan, euren familia hemen batu ahal izateko.

Hala ere, prostituzioan diharduten emakume izan eta aholkularitza eskatzen dutenei erakundeetako arduradunek ematen dieten hasierako aholkuetako bat oso deigarria da: autoritateen aurrean ezkutuan gorde dezatela euren benetako jarduera. Kolektiboaren ahuldea eta estigmatizazioa agerian uzten du datu horrek.

PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA

Prostituzioa ogibide duten emakumeek jarduera hori uztearen aukera gaindimentsionatu egiten da sarritan, eta gizarteratzeko, ezinbestean, sektoreko jarduera utzi egin behar dutela pentsatu ohi da. Izan ere, arazoa ulertzeko modu distortsionatu horrek zera erakusten du: jardueraren gizarte gaitzespena eta aldi berean ezkutuan mantentzeko joera.

Agerikoa denez, emakume horiek beste lan batean hasteko duten aukera euren prestakuntza mailarekin lotuta dago zuzen-zuzenean, eta maila hori orokorrean oso baxua izaten da. Gainera, eguneroko ohitura nahiko desegituratuak izaten dituzte, normalean ez baitute izaten ordutegien arabera ohitura erregularrik edo arauak betetzearen ingurukorik. Baina hori bai, lan guztian zehar argi utzi da prostituzioan diharduten emakumeen taldea oso heterogeneoa dela, eta, beraz, ezin da orokortzerik egin.

Baina horri guztiari zera gehitu behar zaio: kolektibo hori prostituzioaren bidez diru asko irabazten ohituta dagoela. Egia esan, beste sektore batzuetan horrenbeste diru irabaztea pentsaezina izango litzateke euren kualifikazio mailarekin, eta ondorioz, lanbide hori uzteko probabilitatea eta aukera erreala oso eskasa da. Halaber, alderdi ekonomikoak pisu handia du prostituzioan hasterakoan eta uzterakoan ere kontuan izan beharreko garrantzia du.

Hori horrela izanik, emakumeei jarduera uzteko erabakia harrarazten dien bi faktore nagusi daude, eta faktore horiek normalean euren bizitzak aldatzen direnean eta ondorioz jada prostituzioan segitzea "ez duenean merezi" gauzatzen dira. Hala nola, bi faktore horietako lehena funtsean ekonomikoa da: bai "zorra" (9) ordaintzen amaitu dutelako edo bai jada lehiakorrak ez direlako hazten ari den merkatu horretan. Bigarren faktore mota, berriz, afektibitate ingurunea da eta harreman egonkorra lortzen dutenean edo familia biltzen dutenean gauzatzen da.

Alderantziz, bizibide horretatik ateratzea zailtzen duten elementuak ere bi motatakoak dira. Kasu honetan ere baldintza ekonomikoak garrantzitsuak dira, diru sarrera handiak izaten ohituta egoten baitira –baina aldi berean neurriz kanpoko kontsumo mailarako joera izaten dute–. Gainera, prostituziotik atera ahal izateko jarduera horretako emakumeak direla onartu behar dute eta hori ikaragarri kostatzen zaie.

(9) Elkarrizketatuen zorrari buruzko ikerketaren 2. fasean bildutako informazioak beharbada zehartasunerako bide eman dezake, elkarrizketatutako emakume gehienak latinoamerikarrak baitira. Baina mafiek emakumeengan duten kontrola –baita zorrari dagokiona ere– askoz gogorragoa da Ekialdeko Europako edo Afrikako emakumeen artean.

Azken batean, jarduera uzteko prozesua eta ondoren lan merkatuan sartzea oso zaila da. Nolanahi ere, lana aurkitzeko aukera erreala kualifikazioaren eta ohitura desegituraketaren mailaren arabera izaten da –desegituraketa hori normalean jardueran daramaten denboraren arabera izaten da.

Oinarrizko esku-hartzearen xedea emakumeen prestakuntza izango da; ikastaroetara joatea nolabait ordainduko dien "beka" baten bidez lagunduko da prestakuntza hori. Ordutegiak malgua izan beharko du, hasieran prostituzioko jarduera ikastaroetara joatearekin bateragarri izan dadin. Prestakuntza fase hori epe luzera planteatu behar litzateke eta hasieran ez du zertan lanean hasteko aukerari lotuta egonik. Bada, laguntza psikologikoa ematea eta oinarrizko gaitasun batzuk ikastea (diziplina, esaterako) izango dira prestakuntzaren oinarri, eta guztiak emakumeen gizarte gaitasunak normalizatzea izango du helburu.

Ikastaro horiek modulu mailakatuen bidez antola daitezke, eta baztertuak izateko arriskua duten beste kolektibo batzuk ere integratzeko aukera planteatu liteke, kasu desberdinen beharren arabera.

Azken finean, prestakuntza ikastaro horiek lan merkatura zuzendutako beste ikastaro berariazkoago batzuekin lotu daitezke –geriatria zainketa, osasun agenteak...– edo Enplegu Bulegoek sustatzen dituzten prestakuntza ikastaro espezializatuertako sarbide izan litezke.

Emakumeak benetan lan merkatuan sartzeari dagokionez, kolektibo horrekin lanean aritu diren adituek gehienbat klasikoen taldean esku hartu dute eta erabat baztertzen dute euren artean auto-enplegua bultzatzeko aukera. Nahiko egonkorra den kontratazioaren aldeko apustu garbia egiten dute. Izan ere, asko kostatuko prestakuntza luzearen ondoren kontratua sei hilabeteren ostean amaitzen bada, frustrazio ikaragarria sentitzen dute.

Horregatik administrazioak zuzenean esku hartu behar luke berariazko laguntzen bidez, ekintza positiboaren bidez, kolektibo hori lan merkatuan sartzea ahalbidetzeko. Laguntza horiek beste talde batzuei ematen zaizkien antzekoak izango lirateke, minusbalotasuna dutenei ematen zaizkien antzekoak, esate baterako; horrela, kualifikazio maila baxuko lan publikoko plazen portzentaje bat baztertuta izateko arriskua duten taldeentzat gordetzen da (garbiketakoak plazak, adibidez). Kolektibo horiek kontratatzen dituzten enpresei dirulaguntzak ematea edo karga batzuetatik salbuestea ere bultzatu liteke.

Edonola ere, atzeritarren artean batzuk auto-enpleguko ekimenen bidez bizibidea uztea lortu dutela ikusi da. Normalean euren merkatu propioa ustiatu edo sortzen dute, jatorrizko herrialde edo lurraldeko zerbitzu edo produktuak eskaintzen dituzten denda, jatetxe edo pelukerien bidez. Eta, beraz, euren jarduera horiek autonomiaz kudeatzen laguntzeko ideiak planteatu beharko dira.

Funtsean, xehatutako jarduketa guztien helburu nagusia zera izango da: epe motzera emakume horien egoera duintzea eta sektoreko jarduera era aktiboagoan kontrolatzea. Bestalde, administrazioak epe ertain edo luzera jarduketa handiagoak bidera ditzake prostituzioa arautzearen aldeko apustua eginez.

Legeari hertsiki helduz, prostituzioan diharduten pertsonen egoera erabat anbigua da. Legez kontrako jarduera ez denez, legezko edo legaltzat jo liteke. Baina, edonola ere, beste edozein jarduerarekin gerta litekeenarekin ez bezala, ez dago araupetua eta legez kanpotzat jotzen da.

Prostituzioaren jardueran lege abiaburutik esku hartzeko aukerari dagokionez bi jarrera erabat kontrajarri daude. Ekonomia ikuspuntuaren arabera, prostituzioan aritzea beste edozein lan mota bezain duina dela defendatzen da –bizitzeko lan ematen duen ogibidea baita–. Baina ideologia edo moralaren inguruko planteamenduetatik abiatuta, prostituzioan aritzea ez da inoiz lantzat jotzen, jarduera horretan ari den pertsonaren ustiapen erlazioa baitakar berarekin, eta, beraz, jarduera horrek debekatuta egon behar luke eta bezeroak jazarri egin behar lirateke.

JARDUERA BEHARTUA

3.7.1

Jardueraren ikuspuntutik begiratuta, prostituzioa esklabutza erregimeneko lanarekin pareka daiteke. Hortaz, bada, emakume batek libreki prostituzioan aritzeko erabakia hartzeko aukera baztertuta geratzen da. Zentzu horretan, aipatu beharrekoa da gizartearen gehien-goia bat datorrela planteamendu horrekin, behintzat prostituzioan aritzea esplotazioaren ideiarekin lotuz

Horrenbestez, jarduera horren existentzia behartutako zerbait bezala soilik justifikatzen duen diskurtsoa da gizartean nagusitzen dena; jardueran dihardutenak biktimatzat jotzen dira, hautatzeko aukerarik izan ez dutelako, eta horregatik, esplotatuta daude, makurrarazita... Hori guztia dela eta, gizarteari iruditzen zaio paper paternalista izan behar duela prostituzioan diharduten emakumeen inguruan, desagerrarazten lagunduz, berez negatiboa eta naturaren aurkakoa baita.

Emakumeari gerta dakiokkeen okerrera prostituzioan aritzea dela irizten denez, ezin da planteatu jarduera horretan diharduenak norbere borondatez egiten duela. Prostituzioan aritzea irtenbide bakar izatera behartzen duten inguruabar jakin batzuetan gerta litekeela bakarrik onartzen da –nahi gabeko haurdunaldi, prestakuntza falta, drogamenpekotasun eta halako egoeratan.

Orokorrean, prostituzioa ulertzeko gizartearen modua asko mugatzen dute moralak eta ideologiak inguruko alderdiek; jarduera gaitzesteaz gain horretan ari diren pertsonak estigmatizatzea bultzatzen dute alderdi horiek. Kontsiderazio moraletatik abiatuta, sexu harremanen gaineko kontrol murriztailea egin izan da eta afektibitatean oinarritutako bat egite edo harremanen baldintzen baitakoak bakarrik onartzen dira. Hori kontuan izanda, ezin dugu aipatu gabe utzi euskal gizarteko pertsona heldu gehienak moral katolikoaren arabera tes-

tinguruan hezitakoak direla eta moral horren arabera seme alabak izateko xedez bakarrik izan zitezkeela sexu harremanak.

Euskal gizartearen zati handi baten sexu heziketa faltaren ondorioz ere sexualitatearen kontzeptu distorsionatua eta txirotua gauzatzen da. Baina aldi berean sexu konnotazioak geroz eta gehiago erabiltzen dira –gorputzaren erotizazio orokorra– publizitate erakargarri gisa, pertsona batzuen sexu beharrak nabarmenduz.

Bestalde, feminista talde askoren arabera rolen arteko asimetria –bezeroa eta prostituta– eta rol horiei dagozkien generoak zuzenean bat datoz emakumeek jasan behar izaten dituzten beste hainbat esplotazio umilazio eta otzantasun harremanekin. Eta, beraz, planteamendu horren arabera ere prostituzioko emakumeen jarduera "esklabutza" dela onartu behar da, jarduera behartua da eta.

Illo horri jarraiki, prostituzioan diharduten emakumeei laguntza ematen dieten zenbait elkartetako arduradunak bat datoz prostituzioa esplotaziotzat jotzerakoan. Beste lan aukerarik ez duenez prostituzioan diharduen emakume esplotatuaren ideia hartu dute abiaburutzat arduradun horietako askok, eta, beraz, jarduera horretan halabeharrez dihardutela onartzen dute. Baina, hala eta guztiz ere, kasu guzti-guztiak ez direla horrelakoak ikusi ahal izan dute elkarte horiek zuzeneko harremanaren bidez. Horregatik, prostituzioa esplotazioa dela dioen aurre-planteamendu hori zehaztu egin behar da arduradun horien iritziz.

HAUTAKETA AKTIBOA

3.7.2

Prostituzioak horretan lan egiten duenari (prostitutari edo prostituitzen denari) zer nolako estigma eragiten dion behin eta berriz aztertu dugu txosten honetan, eta baita gizarteak nola gaitzesten duen jarduera –batez ere horretan diharduten pertsonetan oinarri hartuta–. Dena den, ezin ahanztz dezakegu oso ondo ordaindutako jarduera dela.

Egia esan, kualifikazio maila baxua duten pertsonen prostituzioak baino diru gehiago eman- go dien jarduerarik ez dago. Askotan beraiek esaten dute *"beste batzuen etxeak edo eskai- lerak garbitzen ez da horrenbeste diru irabazten"*. Hori horrela izanik, maila altuko artean jarduera horretan aritzeko erabakia "ez hain behartua" izan daiteke, litekeena baita bizitza aurrera ateratzeko beste aukera batzuk izatea. Baina seguru asko jarduera horretan aritze- ak beste modu batean ezingo luketen bizi edo kontsumo maila ahalbidetzen die.

Ondorioz, beti aukera egiteko askatasuna baldintzatzen edo murrizten duten zenbait alder- di gainjartzen dira –batez ere ekonomikoak– eta prostituzioan aritzeko erabakia ez da era- bat "askea" (10) ; baina, hala ere, erabakia aktiboa dela esan daiteke. Askotan gertatzen da, batez ere emakume atzeritarren artean –presio handia jasaten baitute "zorria" ordaindu eta familia aurrera atera ahal izateko– emakumeek prostituzioan aritzea erabakitzen dutela diru gutxiago ematen duten beste jarduera batzuetan aritzeko lan aukerak izan arren.

(10) Nolanahi ere, zenbait lan ez dira ia inoiz aukeratzen, bestela ia inork ez luke etxeko lanak egiteko ogibidea aukera- tuko.

Argi dago prostituzioa "betidanik" izan dugula gurekin –horregatik deitzen zaio munduko ofiziorik zaharrena– eta ez dirudi epe motzera edo ertainera jarduera hori desagertuko denik. Alderantziz, datu guztien arabera indarberritzen ari den negozioa da, sektorea dibertsifikatzen ari baita: geroz eta emakume exotiko gehiago dago sexu zerbitzuak emateko prest, lokalek ere geroz eta zerbitzu gehiago eskaintzen dituzte, eta, gainera, ez dirudi zerbitzu horien eskaera jaistera doanik.

PROSTITUZIOA JARDUERA EKONOMIKO GISA

3.7.3

Bistan da prostituzioa gaur egun gora egiten ari den negozioa dela. Horregatik, hain zuzen ere, jarduera parametro ekonomiko hutsetan kokatzea koherentea litzateke.

Prostituzioan arituz bizitza aurrera ateratzea onartezina izan daiteke abiaburu moral desberdinetatik begiratuta. Baina aurrez ezarritako prezioan dena –edo ia dena– erosteko eta saltzeko bide ematen duen merkatu ekonomiaren erregimenean, ez da batere koherentea hainbat eta hainbat balio negatibo eranstea emakume batek bere sexu zerbitzuak merkaturatzea berarentzat baldintza ekonomiko egokiagotan emateko beste gaitasun edo abilitaterik ez duelako.

Beraz, ekonomia hutseko ikuspuntutik begiratuta, prostituzioa sexu zerbitzuak diruaren truke ematea da –hala nola, prostituzioan diharduen emakume eta bezeroaren arteko harremana "de facto" kontratu bat da–. Era guztietako produktuak eta zerbitzuak trukatzeko bide ematen duen gizartean logikoa litzateke jarduera horren izaera ekonomikoa legeztatzea, eta, ondorioz, beste jarduera batzuk bezala araupetzea. Horrela hainbat gehiegikeria saihestu ahal izango lirateke –besteak beste behartutako prostituzioko kasuak–, eta, gainera, prostituzioa bizibide duten pertsonen egoera duintzen lagunduko luke horrek.

Prostituzioa legeztatu edo araupetzearen inguruko eztabaida oraindik konpondu ez bada ere, ez dirudi epe motzera konponduko denik; izan ere, oso zaila da publikoak gaiaren inguruan dituen balioak edo jarrerak alda ditzan lortzea. Edonola ere, jarrerak aldatzeak denbora eskatzen du eta hausnarketa eta eztabaida sakona.

Administrazio publikoak prostituzioari buruzko esku-hartze orokor baten aukera orain ezin du planteatu, baina esku-hartze ausart bat behar da, prostituzioko emakumeen egoera duintzen lagunduko duena eta sektoreko kontrola eraginkorragoa izatea ahalbidetuko duena (11).

(11) 2001 urtean 80 prostituzio sare desegin dira Estatu espainiarrean, eta, duela gutxi prentsan agertutako informazioen arabera (13.10.01), administrazio zentrala klubak funtzionamendua araupetzea planteatzen ari da.

Administrazioak prostituzioari dagokionez izan beharreko paperaren inguruan hiru esku-hartze mota edo maila bereizi daitezke.

Lehen esku-hartze mota gaur egun euskal administrazioak burutzen duenari dagokio. Zentzu horretan, administrazioaren jardura prostituzioari emakumeei dagokienez funtsean laguntza izaerakoa da: emakumeei hainbat zerbitzu edo laguntza ematen saiatzen da, eta emakume horiek pixkana marjinazioan ez erortzea du helburu. Hiru herrialdeetan prostituzioaren inguruko berriazko programak badaude ere, programa horiek orokorrean oso gutxi dira eta oinarritzko urritasunak ere sumatu dira. Gainera, esku hartzeko estrategia zaharkitua geratu da sektorean izandako aldaketan ondorioz (geroz eta atzeritartze eta sakabanaketa handiagoa).

Bigarren esku-hartze motak –hirugarren fase honetako 18 eta 19 ataletan azaltzen denak– administrazioak paper aktiboagoa izatea eskatzen du. Lehendabizi, emakumeen gaineko esku-hartzea bokazio globalarekin planteatu behar du, euren arazoei talde ikuspegi batetik heltzen saiatuz. Bigarrenik, berriz, klubaren kontrolekin engaiatu behar du, batez ere higie-ne eta osasun baldintzei dagozkien hainbat alderdiren inguruan –bai klubak eta bai emakumeak–, eta baita segurtasunaren inguruan ere, sektorearen ordenamendua bultzatuz.

Administrazioaren hirugarren esku-hartze mota edo mailak sektorearen araupetzea barne hartzen du. Lehen aipatu den bezala, prostituzioaren jardura berez legez ilegala ez bada ere, legislazio faltak legez kanpoko egoeran uzten du. Horregatik, epe luzera administrazioak lan baldintzak eta dagozkion kargak –sozialak zein fiskalak– araupetuz sektorea labo-ralki legezta dezala proposatzen da.

Iritzi moralak alde batera utzita, bistan da prostituzioak erabat ekonomikoak diren hainbat baldintza dituela: transakzio ekonomiko bat ematen da –zerbitzuak eta dirua trukatzeko dira–; beti dago bi alderdiren arteko kontratu edo akordio bat; jende asko bizi da jardura horretatik soilik langile autonomo gisa; eta, gainera, mota horretako zerbitzuak eskaintzen dituzten negozio antolatuek ere badaude, enpresak, alegia.

Hori horrela izanik, beste edozein zerbitzu enpresa edo jardueraren aldean duen desberdintasun nagusietako bat zera da: sektore guztia erantzutako aitortu gabeko jardura dela, eta, ondorioz, horrelako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde zein enpresek ez dutuko ekonomian lan egiten dute. Haatik, erakunde eta pertsona horiek ez daukate enpresa formalizatuak izaten dituzten eskubide eta ardurarik, eta, beraz, sektoreak aukera ezin hobeak eskaintzen ditu iruzurraren bidean diharduten sare eta enpresaburuentzat.

Argi dago jarduera araupetzeko edozein aukeraren aurrean era guztietako errezeloak agertuko liratekeela prostituzioko hainbat mailatan.

Lehenik, iritzi moralak direla eta, gizarteak jarduera horren aurrean ezikusia egiten du, eta, egia esan, ez dago sektorea ordenatzeko borondate politikorik. Baina, hala ere, ikusteko moduko fenomenoak dela esan daiteke: herriko edo eskualdeko edozein egunkari hartu eta hitz bidezko iragarkien atala gainetik begiratzea nahikoa da jardueraren bolumenaren ideia bat egiteko. Bada, beraz, sektorea aldatzeak ez luke inolako aldaketa edo berrikuntzarik ekarriko; jada hor dagoen eta guztiok ezagutzen dugun jarduera ekonomikoari legezko estatusa ematea izango litzateke sektorea araupetzea.

Zentzu horretan, lehen ere argi utzi da prostituzioaren inguruko eztabaida publikoa sortzeko beharra. Izan ere, gizarteak estigmatizatutako jarduera edo jokabide guztiak (homosexualak, dibortzioak...) igaro dira antzeko prozesu batetik. Jokabide horiek normalizatzeko aldaketa prozesu bat burutu behar du gizarteak, eta prozesu hori bideratu ahal izateko denbora behar da aurreiritzi eta jarrera horiek aldatzeko publikoa mentalizatu arte. Prostituzioa mendeetan zehar ez bada legezko izan –terminoaren zentzu zabalean–, ez da zentzuzkoa pentsatzea publikoak berehala onartuko duela eta normalizat joko duela araupetua izateagatik soilik.

Bigarrenik, sektoreko negozioak kudeatzen urteak daramatzaten enpresaburuek ere ez dute oso ondo hartuko administrazioaren esku-hartzea. Beraz, sektoreko zati interesdun handi batean araupetzearen aldeko inolako presiorik ez badago, nahiko zaila izan daiteke. Horregatik, esku hartze hori arian-arian aplikatzeko bide emango duten aukera askeko formulak bilatu behar dira. Edonola ere, zenbait klubek edo etxebizitzak –hasieran behintzat– ezkutuko ekonomian egoten jarraituko dutela dirudi, baina argi dago hori ekonomiako beste sektore askotan ere gertatzen dela.

Hirugarrenik, jasaten duten estigmaren ondorioz, jarduera horretan diharduten emakumeei asko kostatzen zaie modu irekian onartzea. Baina, nolana ere, ez da guztiz beharrezkoa prostituzioan aritzen direla publikoki onartzea. Jardueraren legalizazioa dela eta epigrafe profesional orokorrako batean sar daitezke, "zerbitzu sozialak" delakoan adibidez; besteak beste hor etxeko lanetan aritzen direnak, konpainia eskaintzen dutenak eta masaje emaileak bil daitezke.

Zentzu horretan, jarduera araupetu ahal izateko baldintza funtsezkoenetako bat zera izan daiteke: emakumeek beraiek nahi izatea, edo behintzat, izan ditzaketen abantailen berri izatea. Horregatik, oso garrantzitsua da aurretik informazio eta jabetze lana egitea, zera jakin dezaten: zergak ordaindu aurren, horren truke lan baldintza duinagoak eta gizarte eskubiak izango dituztela epe ertain edo luzera.

Nolana ere, prostituzioan diharduten emakume kolektibo batek abantaila ugari lortuko litzateke araupetzeari esker: atzeritarrek. Araupetzeak lan kontratua izateko aukera emango lieke, eta ondorioz, behar adinako denboran Espainian egoitza baimena araupetu ahal izango lukete.

• SEKTOREAREN ORDENAMENDUA

Sektorea ordenatzea ahalbidetuko lukeela da araupetzearen eskutik lortuko litzatekeen abantaila nagusietako bat. Lurralde bakoitzean zenbat klub eta etxebizitza dauden jakiteko aukera emango luke, zenbat emakumek lan egiten duten horietako bakoitzean, nolakoak diren klub eta etxebizitzetako osasun baldintzak... Legezko lan ikuskapenak egin ahal izango lirateke –salaketarik aurkeztu beharrik gabe–, eta horrela egoera formalizatu ez duten lokalak zein diren jakin ahal izango litzateke. Establezimendu bateko langile gisa aritu nahi ez duten emakumeei langile autonomo gisa lan egiteko aukera emango litzaike.

Aitzitik, gaur egun bezala, legez kontrako edo legez kanpoko egoeran egoteak bazterkeria eta sare klandestinoen funtzionamendua bultzatzen du.

• EMAKUMEEN BIZI BALDINTZAK DUINTZEA

Lan baldintzak, ordutegia, dedikazio maila, opor eskubideak eta abar xedatzen dituen lan kontratua izateko oinarrizko eskubidea lortuko lukete emakumeek araupetzearen bidez. Gainera, era guztietako gizarte zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea izango lukete hartara, Osakidetza, Gizarte Segurantzaren besteak beste –horrek erretiro pentsioa bermatuko lieke–. INEMeko bulegoetan izen eman ahal izango lukete, prestakuntza ikastaroetan parte hartu, eta, gainera, atzeritarrek euren egoitza baimena araupetu ahal izango lukete.

Araupetzeari dagokionez, emakumeek hasieran izango luketen arazoetako bat legeztatzearekiko errezeloa izango litzateke, hartara zergak ordaindu beharko bailituzkete eta ondorioz irabaziak murriztu. Gai horri buruzko informazioa ematea oso garrantzitsua izango da egoera berri horren abantailak ondo erkatu ditzaten.

Gainera, prostituzioa araupetzeak seguru asko epe luzera jarduera duintzen lagunduko du eta bizibide hori duten emakumeen pertzepzio soziala nabarmen hobetuko da.

Azken finean, prostituzioko lan jarduera araupetzeak sektorea maila guztietan ordenatzea ahalbidetuko luke, emakume guztien bizi baldintzak hobetzen lagunduko luke eta atzeritarrei euren egoitza baimena araupetzeko aukera emango lieke. Baina zehaztasun handiz aztertu beharreko prozesua da eta egikaritzarakoan malgua izan behar du, ahal den neurrian behintzat ondorio gaiztoak ekiditeko, bestela defendatu beharreko emakumeei lagundu beharrean beste batzuk eurengandik onura ateratzen baitute.

L

**LABURPENA ETA
ONDORIOAK**

Txosten hau hiru sail nagusitan banatu da prostituzioaren fenomenoaren hobeto ulertzeko: lehena prostituzioaz ulertzen denaren sektore maparen eta kolektiboaren tipologia zehazten du; bigarrenak prostituzioan diharduten emakumeen esperientziak biltzen ditu, euren iritzi, eskarmentu eta beharrak bilduz; eta hirugarrenak administrazioei zer nolako esku-hartzeak bideratu behar dituzten gomendatzen die sumatu diren arazoak konpon ditzaten ahal den neurrian.

Sektore abiaburuaren baitan oso garrantzitsua da prostituzioaren lege egoera; izan ere, legez kontrakoa ez bada ere, ez da sartzen jardura arautu eta legeztatuen barruan. Proxenetak jazarri arren, prostituzioa ez esesteari teknikoki "abolizionismo" deritzo, eta 1996ko zigor kodearen arabera egoera hauek barne hartzen ditu: adin txikiko pertsonen edo ezinduen prostituzioa, horiek ikuskizun exhibizionista edo pornografikoetan erabiltzea, eta 18 urtez goragokoak bortxaz prostituitzera behartzea.

Prostituzioan diharduten emakume atzerritarrak gaur egun gehiengoa dira, kolektibo guztiaren %80-90 inguru, eta euren egoera txarra da nabarmen; izan ere, extranjeria legearen arabera, espainiar lurraldean legez kanpo egotea kanpora egoztearekin zigor daitekeen arau haustea, eta horixe da, hain zuzen, emakume horietako askoren egoera, ezin baitute euren bizibidea egiaztatzen duen dokumenturik erakutsi, prostituzioa normalizatu gabeko egoera delako.

Lehen sail guztian zehar prostituzioaren tipologia eta euren ezaugarriak xehetasunez aztertzen dira. Ondorengo taulan EAEko kopuruak zehazten dira; prostituzioan kalean eta klubetan aritzen direnen kopuruak zehatzak dira, baina etxebizitzetan aritzen direnenak ez, prentsan iragarritakoak bakarrik bildu direnez, ez baitakigu iragarri gabeko kopurua guztira zenbatekoa den. Maila altukoak aztertzea ere ezin izan dugu lortu, eta, beraz, kopuru horiek ez dira agertzen.


Prostituzioan jarduten duten emakumeen kopurua lurralde historiko eta jardueraren modalitatearen arabera

	KALEA	KLUBA HIRIBURUA	KLUBA GAIN. LURRALDEA	ETXEB.*	Guztira
Araba	30	102	180	30	342
Bizkaia	130	260	254	254	898
Gipuzkoa	0	72	348	120	540
GUZTIRA	160	434	782	404	1.780

Iturria: Geuk egina.

* egunkarietan eta Interneten soilik iragarritakoak.

Emakume kopurua jarduera leku eta lurralde historikoen arabera



Iturria: Geuk egina.

* egunkarietan eta Interneten iragarritakoak soilik.

Bigarren saila bizipenetan oinarrituta dagoenez eta lagunartekoagoa denez, emakume horiei eginiko elkarrizketa sakonen bidez euren bizitzako alderdi esanguratsuak ezagutzeko aukera izan dugu; esate baterako: nola hasi ziren prostituzioan (horretarako arrazoi ekonomikoak izan zituztela diote denek eta euren egoera eta familiaa hobetzeko beharra nabarmentzen dute), eta egoera hori are larriagoa da atzeritarren kasuan, jatorrizko herrialde edo lurraldeetan krisiak bizi direlako edo garapen bidean daudelako.

Euretako asko eta asko lana aurkitzeko itxaropenarekin etorri dira gure herrialdera, baina hemen bestelako errealitatea eman zaie: kualifikazio baxuko postuetan aritzera behartuta ikusi dute euren burua eta askok ezkutuko ekonomian jardun behar izan dute; eta hori ez dator bat euren itxaropen ekonomikoekin ("etxea erostea", "familia hona ekartzea", "dirua bidaltzea", "negozio bat abian jartzea"...). Antza denez, prostituzioaren bidez baino ezin dute diru sarrera handia lortu denbora epe laburrean. Beste batzuk, aldiz, bazekiten prostituzioan jardutera zetoze.

Asko familiak motibatuta aritzen dira prostituzioan, eta familia horren aldeko sakrifizio gisa egiten dute eramangarri eta ulergarri euren lana. Epe laburrean diru asko irabaziko dutela iruditzen zaie, baina inolaz ere ezin da diru erraza denik esan; izan ere, eragin fisiko, psikologiko eta emozional latzak jasaten dituzte, lan baldintza gogorretan jarduten dute, eta gainera batzuetan bortxaz tratatzen dituzte.

Argi eta garbi dute zein den "prostituta" eta "puta"ren arteko desberdintasuna. "Prostituta" "sexu-profesionala" da, "plazera ez baizik eta dirua lortzeko egiten duena" eta "gorputza lan tresna gisa erabiltzen duena", eta puta terminoa, aldiz, lanbidearen alderdi negatiboena izendatzeko erabiltzen dute ("ez zaio kobratzea inporta", "gozatu egiten du"). Moralaren era-

bilera horrek eta lanaren objektibizazioak harrigarri egiten du bereizketa hori. Guztiaren muina dirua da; diruaren bidez justifikatu eta defendatzen dira euren aurkako gizarte presioaren aurrean: *"lanbide lotsagarria", "gizalegerik gabeko pertsona", "marjinatuak", "baztertuak", "gaizki ikusiak"*... Euren jarduera ezkutatzeko beharra sentitzen dute, batez ere euren familiei dagokionez, eta baita euren bizitza lanetik bereizi beharra ere, besteak beste janzkerari eta jokabideari dagokionez.

Batzuei laster utziko dutela iruditzen zaie, behar zuten dirua bildu ondoren euren helburuak bete dituztelako; baina horiek gutxiengoa dira. Gehienek ez dituzte euren helburuak lortu eta *"erraz irabazi eta erraz gastatzen den dirua"* dela diote. Dinamika zailean sartuta sentitzen dira, eta kasurik okerreanean depresioa, alkoholismoa, ludopatía eta abar pairatzen dituzte.

Ea prostituzioa utziko luketen galdetzen zaienean, denek baietz esaten dute zehatz-mehatz (*"ez dago lan honetan gustura dagoen emakumerik"*). Lan normalizatueta jardutea gustatuko litzaiekeela diote, duintasunari eta segurtasunari kalte gutxiago egiten dieteneta, baina horretarako oztopoa jauzi ekonomikoa da: ezarri dituzten helburu ekonomikoak ez lituzkete bete euren kualifikazio mailaren bidez lortuko luketen soldatarekin.

Bezeroari buruz ere badute zer esana. Sektorearen benetako motorra da eta honela sailkatzen dute: *"gizonak berezko egoeran, euren matxismo guztia adierazteko moduan, eta guk txalotu egiten ditugu, horrela adostuta baitago jokia"*. Bezero mota desberdinak daukela diote eta denetik dagoela, baina euren ustez gehienak emakume horien estigmatizazioaren irauarazleak dira (*"ordaindu egiten gaituztelako sentimendurik ez dugula uste dute eta edozer eska dezaketela"*).

Tipologia bakoitzari dagokionez, beste ezaugarri batzuen artean, honakoak bildu dira: negozioaren funtzionamendua emakumeen ikuspuntutik, gehien eskatzen diren zerbitzuak, bakoitzaren prezioa eta hileko diru sarrerak, eta prospektiba egiteko erabili diren arazo eta beharrianak.

Sektorea legeztatu edo araupetzeari buruz emakume horiek duten iritzia da sail horretan jorratu den azken gaia. Araupetzea kontzeptu nahasia da eurentzat eta kontrol maila hori baztertu egiten dute. Legeztatzea, berriz, ondo hartzen dute, 10etik 7 alde daude, batez ere atzeritarrek, paperak eta egoitza baimena lortzeko aukera ikusten baitute bide horretatik. Ezkutuko ekonomiak berezko dituen onurak eta pribatutasuna arriskuan ikusten dituztenak dira aurka daudenak.

Administrazioak garatu beharreko esku-hartze bideak zehazten saiatu gara hirugarren sailean. Horretarako, eztabaida eta hausnarketa taldeak sortu dira kolektibo horiekin zuzenean zein zeharka lan egiten duten pertsona eta erakundeekin.

Ondoriorik garbiena kolektibo horietan esku-hartzeko benetako behar nabarmena da eta maila askotako arazoak daude horretarako: osasun publikoa, bai emakumeak eta bai bezeroak arrisku kolektiboak baitira; arazoi ekonomikoak, sektore horrek negozio bolumen handia mugitzen baitu ezkutuko merkatuan inolako zergarik ordaindu gabe; konstituzio-zuzenbideko arazoiengatik, prostituzioa legearen kontrako jarduera ez bada ere emakumeak legez kanpo jartzen baititu, gehiegikeriak eta estortsioa jasateko aukera handiz gainera; arazoi moral eta etikoengatik, gizartearen moral bikoitza argitu behar baita eta arazoari

aurre egiteko heldutasuna eskatu; emakumeengatik; beste hainbat beharren artean duintasuna behar dute eta; erakunde publikoengatik, emakume horiei laguntzen dieten elkarte-ei dirulaguntzak ematera mugatu direlako. Horregatik guztiagatik, erakunde publikoek giza baliabide eta material gehiago bideratu behar dituzte emakume horien kolektiboa duintzeko eta eurentzako laguntza eskaintzeko, eta laguntza betebeharra indartzeaz gain, sektorearen funtzionamendua kontrolatu behar dute.

Administrazioaren esku-hartze aktibo horrek oinarritzko lau printzipio izan behar ditu:

- Gaiari osoki heltzeko eztabaida sortaraztea.
- Lurraldeetan azpiegiturak eta zerbitzuak hornitzea.
- Azpiegitura eta zerbitzu horien informazioa eta euren arteko koordinazioa hobetzea (baliabideak optimizatzea).
- Esku-hartzea sektorearen bilakaerari egokitzea ("atzerritartzea", "sakabanaketa", "jardueraz hazkundera").

Administrazioak arazoei aktiboki osotasunez heldu eta sektorearen kontrola eta ordenamendua ahalbidetzez gain, araupetzeko aukera ere aztertu da, eta horretarako ezinbestekoa da sektorea laboralki legistlatzea lan baldintzak araupetuz; hau da, langileen eta kontratu egileen eskubideak eta ardurak zehaztuz. Maila horretan EAEren eskumenak nahiko eskasak dira, baina ez zaigu egoki iruditzen horregatik behar hori alde batera uztea marko izateko xedea duen txosten honetan. Hala ere, hirugarren maila gisa planteatu da, epe ertain edo luzerakoa, beti ere egungo egoera eta politika aktiboagoak gaingidutakoa aplikatzekoa.

Amaitzeko, administrazioaren paper aktiboagoa zehaztuko luketen 17 esku-hartze neurri aipatzen dira jarraian:

A. INFORMAZIOA ren arloan:	• Gizarteari begira: sentsibilizazioa komunikabide eta beste gizarte talde batzuen bidez. Prostituzioari buruzko eztabaida publikoa. • Prostituzioan diharduten emakumeei begira: erabilgarri dituzten baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea (baliabideen gida). Euren jarduerak osasunean eta bizi baldintzetan dituen eraginei buruz informatzea.
B. OSASUNA ren arloan:	• Osasun laguntza: zerbitzu guztietarako sarbidea, osasun txartela, kontrol ginekologikoak. • Prebentzio kanpainak: preserbatiboaren erabilera eta HIESa. • Laguntza psikologikoa: laguntza taldeak edo terapia psikologikoa. • Osasunerako heziketa: berariazko laguntza programak. • Kluben osasun kontrola: osasun eta higiene baldintzen ikuskapena. Kontrol ginekologikoen nahitaezko aldizkakotasuna. Klubetan informazioa ematea eta etxebizitzetara iristea.
C. SEGURTASUNA ren arloan:	• Kalea: udaltzaingoaren babes papera indartzea. • Klubak: noizbehinkako polizi kontrolak. Bezeroen portaera arautzen duten araudi propioa. Segurtasun zerbitzua. • Sareen ikuskaritza, iruzur eta delitu egoerak ekiditeko.
D. GIZARTE LAGUNTZA ren arloan:	• Gizarte laguntzako esku-hartzerako plataforma: esku-hartze bideak dinamizatu eta koordinatzea. Informazioa, prestakuntza eta beste zerbitzu batzuetara bideratzea. Baliabide hornikuntza eta jarduketa eremu handiagoak. • Oinarrizko gizarte zerbitzuak: dirulaguntzen tramitazioa. Etxebizitza alokairuen gehiegikeriak ekiditea. • Baztertuak izateko arriskua duten kolektiboei erregimen berezia ezartzea.
E. LEGE AHOLKULARITZA ren arloan:	• Aholkularitza administrazio tramitazioetan: egoera legeztatzea, kontratua lortzea, prostituzioa uztea, familia biltzea.
F. PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA ren arloan:	• Merezi dien prestakuntza, diruz lagundua. • Lan munduan sartzea bideratzeko ekintza positiboa. • Autoenplegu ekimenak sustatzea, batik bat atzerritarren kasuan.